



2013

Landa-eremu atlantikoaren paisaia-balioak: oraina eta geroa



Eskualdeko txostena. Goierri

Edizioaren ©: PAISAIA SM
Donostia Ibilbidea, 76. 20115 – Astigarraga
Tel. eta faxa: 943 335048
paisaia@paisaia.com

Izenburua: Landa-eremu atlantikoaren paisaia-balioak: oraina eta geroa. Eskualdeko txostena.
Goierrri

Egilea: Miren Askasibar Bereziartua

Azaleko argazkien egileak: Mikel Alberdi, Nikolas Zeberio, Joxe Leunda

Ekoizlea: GOIMEN Landa Garapen Elkarte

Tokia eta data: Astigarraga, 2013ko urria

L.G.: SS-1335-2013

Dokumentu honen egilea edo egileak, eta PAISAIA SM enpresa espresuki eta osotasunean aipatuko dira dokumentuaren zati bat edo dokumentu osoa kopia, banatu, jendaurrean hedatu, edo modu interaktiboan (Internet edo bestelako bitartekoak erabiliz) jendearen eskura jartzen diren bakoitzean.



Lan hau Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Internazionala baimen baten menpe dago. Baimen horren kopia ikusteko, zoaz hona: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/deed.eu>.

Aske zara:

Lan hau kopia, banatu eta jendaurrean hedatzeko. Baimenaren baldintzak betetzen dituzun artean, baimendunak ezingo ditu askatasun hauek baliogabetu.

Baldintza hauetan:



Aitortu — Lanaren kredituak aitortu behar dituzu, lizentziaren esteka eman, eta aldaketarik egin ote den azaldu. Hori guztia zentzuzkoa den edozein modutan egin dezakezu, baina ez aditzera eman ez baimendunaren babesaren duzun edo hark obraren erabilera hori babesten duenik.



Ez merkataritzarako — Ezin duzu lan hau merkataritza xedetarako erabili.



Lan eratorririk gabe — Lana beste batzuekin nahastu, eraldatu edo lan eratorririk sortzen baduzu hartatik abiatuta, eraldatutako materiala ezin duzu banatu.



Lizentzia publiko honetatik at dauden baimenak ondoko estekan daude eskuragarri: www.paisaia.com.

PROIEKTUAREN IZENBURUA

Baserri-paisaia atlantikoen balioa agerian jartzeko jarduerak

GOIERRIKO ESKUALDEKO LANEN ZUZENDARITZA

Manex Aranburu (GOIMEN Landa Garapen Elkartea)

PROIEKTUAREN ZUZENDARITZA

Iker Karrera (TOLOMENDI Landa Garapen Elkartea)

PROIEKTUAREN JARRAIPENA

Agurtzane Diaz (DEBA-GARAIA Landa Garapen Elkartea)

Agurtzane Etxaniz (DEBEMEN Landa Garapen Elkartea)

Ana Fernández (MENDINET Landa Garapenaren Aurrerapenerako Elkartea)

Iker Karrera (TOLOMENDI Landa Garapen Elkartea)

Itziar Agirre (HAZI Fundazioa)

Joxe Manuel Zubizarreta (GOIMEN Landa Garapen Elkartea)

Juan Kruz Alberdi (BEHEMENDI Landa Garapen Elkartea)

Juan Mari Totorika (URKIOLA eta LEA-ARTIBAI Landa Garapen Elkartek)

Mónica Alonso (ENKARTERRIALDE Landa Garapen Elkartea)

Yurre Peñagarikano (URKOME Landa Garapen Elkartea)

PROIEKTUARI AHOLKULARITZA TEKNIKOA

Miren Askasibar (PAISAIA SM)

Ainara Flores (PAISAIA SM)

GOIERRIKO LANDA-PAISAIEN BALIOEN IDENTIFIKAZIOAN ETA EKINTZEN PROPOSAMENEAN PARTE HARTU DUTEN PERTSONA ETA ERAKUNDEAK

Agurtzane Allur (Legorretako herritarra)

Aloña Galarraga (Lazkaoko udala)

Amaia Aierbe (Gipuzkoako Erlezainen Elkartea)

Amelia Jauregi (Ilehen sektoreko ekoizlea)

Asier Galdos (Nekazalde elkartea)

Belen Maiza (Ordiziako udala)

Bitor Areizaga (Zumarragako udala)

Eneko Zabaleta (Ezkio-Itsasoko udala)

Haritz Maiz (Ormaiztegiko udala)

Idoia Abietana (Aramako herritarra)

Igor Zeberio (Ordiziako herritarra)

Jexux Arginerrena (Legorretako herritarra)

Jone Azpeitia (Legazpiko udala)

Joxe Manuel Zubizarreta (GOIMEN Landa Garapen Elkartea)

Joxe Migel Lasa (Urretxuko herritarra)

Joxe Leunda (Urretxuko herritarra)

Joxpi Irastorza (Itxaurpe elkartea)

Kizkitza Ugarteburu (Igartubeiti Baserri Museoa)

Maite Aldabe (Zeraingo udala)

Maite Sagaseta (Zeraingo udala)

Manex Aranburu (GOIMEN Landa Garapen Elkartea)

M^a Jesus Mujika (Gorostartzu baserrikoa)

M^a Rosario Urretabizkaia (Aramako udala)

Mikel Alberdi (Legazpiko herritarra)

Mikel Mendizabal (Itxaurpe elkarte)

Miren Makatzaga (Zeraingo udala)

Nikolas Zeberio (Itsasondoko herritarra)

Ramon Nazabal (Lurgintza elkarte)

Zuhaitz Akizu (Igartubeiti Baserri Museoa)

0. Aurkibidea

1. SARRERA	7
1.1. Proiektuaren deskribapena, helburuak eta datuak	7
1.2. Proiektuaren faseak eta lanerako metodologia	7
1.3. Produktuak	8
1.4. Lanetan parte hartu duen lantaldea	8
2. LANDA PAISAIEN BALIOAK IDENTIFIKATZEKO ERABILITAKO METODOLOGIA	11
2.1. Partaidetzan oinarritutako metodologiaren azalpena	11
2.1.1. ECOVAST-ek proposatutako metodologia	11
2.1.2. Gure proiektuan erabilitako fitxa	12
2.1.3. Moldatutako fitxa nola erabili den	25
2.1.4. Parte-hartzaileek aztertutako paisaien kokapen espaziala	26
2.2. Proiektuaren fase honetan emandako urratsak	27
2.3. Eskualdean ospatutako parte-hartze saio irekien datu orokorrak	28
3. ESQUALDEKO LANDA-PAISAIAREN EZAUGARRI OROKORRAK	29
3.1. Egungo landa-paisaiei buruzko hainbat datu	29
3.1.1. Geologia eta erliebea	29
3.1.2. Klima eta uraren eragina paisaian	29
3.1.3. Lurzoruaren erabilerak	29
3.1.4. Lehen sektorea eskualdean	30
3.1.5. Landaredia	30
3.1.6. Populatzeredua eta eraikuntza tradizionalaren ezaugarriak	31
3.1.7. Azpiegiturak eskualdean	32
3.1.8. Aztarna historikoak landa-paisaietan	32
3.2. Landa-paisaiaren eboluzio historikoan eragin duten faktoreak	32
4. ESQUALDEKO LANDA-PAISAIEN BALIO NABARMENAK IDENTIFIKATZEKO SAIOEN EMAITZAK	34
4.1. Proiektuaren fase honetan eskualdean aztertutako landa paisaiak	34
4.1.1. Legorretako paisaia	34
4.1.2. Itsasaga ibilbideko paisaia	35
4.1.3. Lazkaomendiko paisaia	35

4.1.4. Arriarango paisaia	36
4.1.5. Aizpea auzoko paisaia	37
4.1.6. San Migel baselizaren inguruko paisaia	37
4.1.7. Txirribisoto ibilbidetik beha daitekeen paisaia	38
4.1.8. Irimo inguruko paisaia	39
4.1.9. Ezkio-Itsaso beheko haranaren paisaia	39
4.1.10. Zumarragako Beloki bidetik hautemandako paisaia	40
4.1.11. Partaidetzaren bidez osatutako fitxen edukien analisia	41
4.2. Partaidetza saioetan identifikatutako balio eta ezaugarriak	41
4.2.1. Eskualdeko landa-paisaien balio nabarmenenak	41
4.2.2. Lehen sektoreak eskualdeko paisaiei egindako ekarpenari buruzko gogoeta	42
4.2.3. Eskualdeko landa paisaiak inguruko eskualdeetatik desberdintzen dituzten ezaugarriak	42
4.3. Eskualdeko landa-paisaien isla artean	43
4.4. Eskualdeko landa-paisaien isla turismoari buruzko materialetan	47
4.5. Eskualdeko landa-paisaiek aurrean dituzten erronkak	49
4.5.1. Epe ertainean eman litekeen ikuspeirik negatiboena	49
4.5.2. Epe ertainean irudika litekeen ikuspeirik positiboena	50
5. BASERRI-PAISAIEN BALIOEN IDENTIFIKAZIOARI BURUZKO ONDORIOAK	53
5.1. Landa-paisaien balioa agerian jartzeko ekintzak nola burutu?	54
6. IDENTIFIKATUTAKO BASERRI-PAISAIEN INGURUAN PROPOSATUTAKO EKINTZAK	57
6.1. Proiektuko fase honetan emandako urratsak eta parte-hartze saio irekiaren datuak	57
6.2. Saioaren emaitzak	57
6.3. Saioa ospatu ondorengo urratsak	64
6.4. Adostutako ekintzen zerrenda	65
7. PROIEKTUAREN ONDORIO OROKORRAK	68
7.1. Eskualdeetan identifikatutako ekintza komunak	68
7.2. Baserri-paisaietan aurkitu diren balio orokorrak	73
7.3. Proiektutik eratorritako gomendioak	74
Erakundeei zuzendutako gomendioak	74
Lehen sektoreko eragileei zuzendutako gomendioak	75

Gizarteari orokorrean zuzendutako gomendioak.....	77
8. ERREFERENTZIEN ZERRENDA.....	78

1. SARRERA

1.1. Proiektuaren deskribapena, helburuak eta datuak

Proiektu honek Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE aurrerantzean) bederatziko eskualdetako **landa-paisaia atlantikoaren balioa** agerian jartzea du helburu orokortzat. Horrekin batera, landa-paisaia atlantikoaren mantenuan, sustapenean eta paisaia horien gozamenean parte hartuko duen erakunde eta pertsona ororen **sentiberatzea** bilatu da, hau da, nekazariak, landa-eremuko biztanleak, gizartea orokorrean (bereziki eremu horietako bisitariak) eta administrazioak sentikortzeko ahalegina egin da.

Paisaia, bere definizio ofizialean, lurraldearen edozein zati da, biztanleriak hautematen duen moduan, zeinaren izaera natur edota giza faktoreen ekintzaren eta elkarreraginaren emaitza baita (Cortina & Queralt, 2007, or. 66). Hau da, paisaiak badu **izaera fisikoa**, baina horrez gain, gizakiaren buruan sortutakoa da, **pertzepzioaren** bidez. Beraz, lurralde bera begiratuta ere, bi pertsonen paisaia desberdinak hauteman ditzakete, eta horrela gertatuko da maiz. Proiektu honek bilatu duen gauzetako bat, hain zuzen ere, landa-paisaia bizi, lan egin edo aisialdiko jarduerak burutzen dituzten pertsonen hautematen dituzten paisaia desberdin horiek azaleratzea da. Bestetik, Europako Paisaiaren Hitzarmenaren eskutik jaso dugun definizioak dio paisaia **natura eta gizakiaren elkarreraginaren** ondorioz sortua dela, eta landa-paisaiei dagokienez, elkarreragin horrek zuzenean **lehen sektoreko eragileetara** garamatza, **baserriaren lanari esker** sortu eta mantentzen baitira paisaia horiek. Beraz, proiektuaren helburu nagusietako bat lehen sektorearen ekarpenari dagokion errekonozimendua ematea eta gizartea horren inguruan sentiberatzea da.

Nekazaritzak eta abeltzaintzak sortu eta mantendutako paisaiak gure **izaera** eta **nortasunaren** oinarri dira, baita **historiaren** eta **ondarearen** gordailu ere. Bertakoen bizi-kalitatean sekulako eragina dute, egunerokotasuna atsegin bihurtuz eta aisialdiko denboran naturarekin harremanetan egoteko aukera eskainiz.

Horrez gain, baserri-paisaiak eskualdearentzat **baliabide ekonomiko** garrantzitsua dira, bereziki lehen sektoreari eta turismoari lotuta. Biztanleria mantentzen laguntzen dute ere, jendeak inguru atseginean bizitzea nahiago baitu.

Azken hamarkadetan lehen sektoreak izan dituen aldaketen ondorioz, baserri-paisaiak **nabarmen aldatzen** ari dira, eta aurrera begira hirietatik kanpo dauden landa-paisaia horiek nolakoak izatea nahi dugun erabaki beharra dago.

Guzti horren gainean **gogoeta** egiteko asmoa du proiektuak. Horretarako, eskualde bakoitzean hainbat jarduera definitu eta burutu dira. Proiektuaren helburu dira lehen sektoreak guztion ongizateari egiten dizkion ekarpenen artean baserri-paisaien balioak mantentzeko dagozkionak azpimarratzea, eta horien inguruan gizartea sentiberatzea, baita eskualdeko baserriarrei haien produktuei beste balio erantsi bat gehitzeko aukera aurkeztea ere, proiektuaren emaitzak komunikatuz. Turismoaren sustapena eta landa eremuko eragileen sentiberatzea egitasmoaren helburu dira ere.

Eskualdeka, baserri-paisaiek dituzten **elementu bereizgarriak** identifikatzeko eta horiek kontserbatzeko proposenak diren **ekintzak** proposatzeko **parte-hartze saio irekiak** antolatu dira. Proiektuaren ezaugarri nabarmenena hau da: eskualdeko landa paisaiaren altxorak ezagutu, zaindu eta ezagutarazteko bertako **herritarren pertzepzioetik** eta iritzietatik abiatu dela.

Proiektuan beste hainbat helburu identifikatu dira ere:

- Landa eremuko eragileek haien paisaiak nola **hautematen** dituzten ezagutzea.
- Landa eremuko eragileen **parte-hartzea sustatzea** haien paisaien etorkizunari buruzko gogoetan.
- **Hezkuntzarako** eta sentiberatzeko baliagarria izan daitekeen materiala sortzea.

Proiektua ondoko **Landa Garapen Elkarteek** sustatu dute: Behemendi, Deba-Garaia, Debemen, Enkarterrialde, Goimen, Lea-Artibai, Tolomendi, Urkiola eta Urkome. Beraz, proiektua jarraian aipatzen diren **eskualdeetan** garatu da: Donostialdea, Debagoiena, Debabarrena, Enkarterriak, Goierri, Lea-Artibai, Tolosaldea, Durangaldea eta Urola Kosta.

Proiektua **2011 eta 2013 urteen artean** burutu da. Guztira, zazpi eskualdetan **23 parte-hartze saio ireki** antolatu dira. Saio horietara guztira 710 pertsona eta erakunde gonbidatu dira espresuki, saioek **309 parte-hartzaile** bildu zituzte, ekintzen inguruan egindako on-line **inkestan 64 pertsonen** parte hartu dute, paisaiaren analisiko **72 fitxa** bete dira, eta guztira zazpi eskualdeetako **txostenak osatzen 208 pertsona desberdin** aritu dira, proiektuaren zuzendaritza, jarraipena eta aholkularitza egin duten pertsonen gain.

1.2. Proiektuaren faseak eta lanerako metodologia

Proiektua **best fase** diferenteetan banatu da, jarraian azalduko den moduan.

0. Proiektuaren kudeaketa eta plangintza faseak, proiektu osoan zehar banatutako lanak biltzen ditu. Honen helburua, proiektuaren planifikazioa, jarraipena eta proiektuaren zuzendaritzarekin zein Landa Garapen Elkarte guztiekin koordinaketa lanak burutzea da.

1. Jokabide egokien azterketako fasean, **beste herrialde batzuetan** paisaiaren balioa agerian jartzeko burutu diren ekintzak arretaz aztertu dira. Ondotik, proiektuan erabilgarri izan daitezkeenak identifikatu eta bildu dira (txosten honekin batera argitaratutako eranskinean jaso da emaitza).

2. Balio eta zentzu gehien duten landa-paisaien identifikazioaren fasea **eskualdeka** burutu da, proiektuan parte hartu duten bederatzi Landa Garapen Elkarteei dagozkien eskualdeetan, hain zuzen ere, Donostialdean, Enkarterrietan eta Urola Kostan salbu. Herritarren eta eskualdeko eragileen parte-hartzearekin landu da, bertako populazioarentzat balio eta esanahi gehien duten paisaiak **identifikatuz**. Herritarrek paisaia identifikatzeko asmoz ECOVASTek sortutako metodologian oinarritu da fasea, herritarren parte-hartzearekin paisaia aztertzeko metodologia baliagarria baita. Eskualde mailan bertako herritar eta eragileen ustez balio eta zentzu gehien dituzten landa paisaiak eta ibilbideak identifikatzeko helburuari egokitu zaio metodologia, eta dokumentu honen hurrengo atalean azaltzen da zehaztasunez.

3. Identifikatutako landa-paisaien interpretaziorako baliabideak garatzeko fasean, paisaia-ibilbideak eta eskualde bakoitzeko landa-paisaiaren nortasunari dagokionez bereziki esanguratsuak diren elementuak identifikatu ondoren, informazio hori proiektuaren helburuekin bat egiten duten **ekintzak** lantzeko erabili da. Ekintza horien artean, landutako paisaien balioak kontserbatzeko eta berauek balioan jartzeko ekintzak proposatu dira, eskualdeko eragileen partaidetzarekin, berriz ere. Beraz, ekintza zehatzak definitzeko garaian, aurreko faseetan parte hartu duten erakunde eta pertsonekin elkarlana sustatu da. Zehaztu diren ekintzek proiektuaren emaitzak zabaltzeko eta turismorako zein sentiberatze eta prestakuntzarako baliabideak sortzeko balioko dute ere. Ekintzen proposamena parte-hartze saio irekien bidez landu da eskualde guztietan, Donostialdea eta Enkarterriak ezik.

Eskualde bakoitzerako ekintzak proposatzeaz gain, eskualdeen arteko ekintza komunak identifikatu dira ere. Horietako askok **EAE mailako ekintza** bihurtzeko potentziala dute; proiektuan parte hartu duten eskualde guztietan baliabideak partekatuz burutu litezke, edo proiektuan lortutako emaitza globalak zabaltzeko eta EAEko landa-paisaia atlantiko guztiei buruzko informazioa eskaintzeko asmoz gara litezke. Bestetik, **eskualde mailako ekintzak** definitu dira eskualde bakoitzeko landa paisaien balioa agerian jartzeko helburuarekin. Ekintzak zehazteko orduan lehen fasean aztertutako jokabide egokiak izan dira gogoan, eredu moduan balio baitute.

4. Landa paisaien inquruko sentiberatze- eta prestakuntza-ekintzak burutzeko fasearekin bukatuko da proiektua. Aurreko faseetako lanak burutu ondoren, proiektuan sortutako **ezagutza zabalduko** da.

Donostialdean eta **Enkarterrietan** beste eskualdeekiko osagarria den bidea hartu da eta, aipatutako lanak egin beharrean, baserri-paisaiak zeharkatzen dituzten ibilbide zehatz batzuen inguruan paisaia-balioak identifikatu dira eta horiek balioan jartzeko materialak prestatu dira. **Urola-Kostan**, aldiz, berriki eremu funtzionalean Paisaiaren Katalogoa prestatu denez (LKS Ingeniería S. Coop., 2012), bertan bildutako informazioa erabili da gure proiektuaren bigarren faseko informazioa lortzeko, eta eskualde mailako eragileekin lana hirugarren faseko ekintzak proposatzen eta eztabaidatzen burutu da. Horregatik, hiru eskualde horietako material eta txostenek beste sei eskualdeetakoekiko desberdintasunak dituzte.

1.3. Produktuak

Eskualde bakoitzeko txosten bat eta eranskinen dokumentu bat sortu dira, prozesu guztia eta emaitzak biltzen dituenak. Enkarterrietan eta Donostialdean paisaia-ibilbideei lotutako dibulgaziorako materiala ekoiztu da. Paisaiaren analisirako fitxa eta argibideak euskaraz eta gaztelaniaz argitaratu dira, baita proiektuaren ondorioak ere. Proiektuan zehar sortutako irudiak <http://www.flickr.com/photos/paisaia/> webgunean aurki daitezke, eta dokumentuak Landa Garapen Elkartearen webguneetan eskuragarri egoteaz gain, PAISAIAREN Scribd eta Issuu-ko biltegietatik jaitsi daitezke ondoko esteketan:

<http://www.scribd.com/collections/4364380/Baserri-paisaia-atlantikoen-balioa-agerian-jartzeko-jarduerak-Iniciativas-para-la-puesta-en-valor-de-los-paisajes-rurales-atlanticos>

<http://issuu.com/paisaia/stacks/89a88cb5d2a243d1ae23e98bb177a6ab>

1.4. Lanetan parte hartu duen lantaldea

Proiektua sustatu duten bederatzi Landa Garapen Elkarrekin PAISAIAREN enpresaren aholkularitza teknikoak jaso dute proiektua burutzeko. Zehazki, hauek izan dira haien lanak:

Miren Askasibar Bereziartua, aholkularitza teknikoaren lanen arduradun eta zuzendaria. Proiektua bera definitzea, erabilitako metodologia zehaztea, eta gai horien gaineko erabakiak hartzea bere esku egon dira. Beste herrialdeetako ereduak eta paisaiari

lotutako jarduera didaktikoen adibideen bilaketaz arduratu da. Proiektua aurrera eramateko burututako parte-hartze saio irekien dinamikak eta materialak diseinatu ditu, paisaia aztertzeko fitxa barne. Parte-hartze saioetan aktiboki parte hartu du, eta horien ondorioak laburbiltzeko lanetan aritu da Ainararekin batera. Proiektuan zehar sortutako material eta txostenen edukien eta egituraren diseinua egin du ere. Enkarterrietako eta Donostialdeko liburuxkak prestatu ditu. Landa Garapen Elkarteein proiektuaren jarraipena egiteko bileretan hartu du parte, eta esku artean duzun txosten honen egilea da.

Ainara Flores Compains, proiektuaren egunerokotasunari lotutako atazak burutzeaz arduratu da. Bere esku egon dira eskualde bakoitzeko oinarrizko informazioaren bilketa, lanak aurrera eramateko Landa Garapen Elkarteein eta eskualdeko eragileekin harremana, fitxen analisia, baserri-paisaiek turismoan duten islaren azterketa eta saioen deialdiak burutzea. Beste herrialdeetako ereduaz azterketaz arduratu da. Parte-hartze saioetan aktiboki parte hartu du eta horietarako materialak eta saioen ondorioak prestatzen aritu da Mirenekin batera. Eskualdeetako ekintzen karakterizazioaz arduratu da Landa Garapen Elkarteein elkarlanean. Enkarterrietako eta Donostialdeko materialak prestatzeko landa-lanak burutu ditu. Bi eskualde horietarako jarduera didaktikoak aukeratzeaz arduratu da, eta horiek azaltzen dituzten txostenak eta ikus-entzunezko aurkezpenak prestatu ditu.

2. LANDA PAISAIEN BALIOAK IDENTIFIKATZEKO ERABILITAKO METODOLOGIA

Proiektuaren deskribapen orokorrean aipatu den moduan, metodologiaren ikuspuntutik alderdi bereizgarriena hauxe da: eskualdeko landa paisaien balioak identifikatzeko **bertako eragileen** hautemate eta iritzietatik abiatu garela. Hau horrela egitearen **arrazoiak** anitzak izan dira:

- Landa eremuari dagozkion **erabakietan** bertako eragileek **parte har** dezaten sustatzen laguntzea bilatzen duelako proiektuak. Nolabait esatearren, landa eremuko herritar eta eragileei ahalmena emateari lotutako ekimena litzateke proiektua, norberaren paisaiaz jabetzea eta horren inguruan iritzi informatuak eman ahal izatea ahalbidetzen baititu.
- Eskualdeko biztanle eta eragileak bertako paisaien balioekiko **sentikor** bihurtzeko eta horiekiko **konpromisoa** sustatzeko modurik eraginkorrena parte-hartze zuzena delako. Proiektuak eskualdeko paisaiaren altxorak identifikatzea eta horiek balioan jartzeko ekintzak mahai gainean jartzea bilatzen du, eta landa paisaien balioak kontserbatzeko eta horiei probetxua ateratzeko **ekintzak** etorkizunean burutzeko eskualdeko hainbat eragileren laguntza beharrezkoa izango denez, eragile horien iritzia hasieratik jasotzea proiektuaren helburuak lortzeko biderik egokiena da.
- Paisaiaren arloan herritarren iritzietatik abiatuz burututako lanaren **eredu** izan nahi duelako proiektuak. Maiz paisaiari buruzko azterketa eta erabaki teknikoak adituen eskuetan uzten dira, arlo horretan aditu ez direnek irizpide egokirik ez dutela argudiatuz. Hala ere, badira prozesu parte-hartzailetan oinarritzen diren proposamen metodologikoak, hala nola, proiektu honetarako moldatu duguna.

Bestetik, hasieratik argitu behar da proiektu honen helburua **ez** dela eskualdeko baserri-paisaien **azterketa integrala**. Horretarako, proiektuan eskualdeko eragile ezberdinen ikuspuntu guztiak eta eskualdearen lurralde osoa islatzea bermatu beharra zegoen, eta alde zurratik ikusi zen herritarren borondatezko partaidetzan oinarritutako ekimenak ezingo zuela helburu hain potoloa bete.

Eskualde osoa estali ez arren, eta aztertutako paisaia bakoitzaren gainean eskualdeko eragile guztien pertzepzioa jaso ez arren, proiektuaren emaitzek balio handia dutela uste da, eskualdeko **herritar askoren iritzien isla** direlako.

2.1. Partaidetzan oinarritutako metodologiaren azalpena

Txosten honek biltzen dituen lanen muina eskualdeko eragileen **partaidetzan** oinarritutako lana izan da. Toki jakin bateko paisaiak aztertzeko dauden metodologiaren artean, badira **ez-adituen** parte-hartzean oinarritzen direnak. Azken horien artean aurkitzen da Herrixka eta Herri Txikien Europako Kontseilua (**ECOVAST**) izeneko erakundeak proposatutakoa (Spiegler & Dower, 2006). Proiektu honetan metodologia hori gure helburu eta ezaugarriei **egokitu** dugu beste hainbat iturri erabilita (Askasibar Bereziartua, 1999; Bell, 1991; Forestry Commission, 1989; Lucas, 1991; Paisaia SL, 2006; Swanwick & Land Use Consultants, 2002, or. 31), eta jarraian azaltzen dugu nola.

2.1.1. ECOVAST-EK PROPOSATUTAKO METODOLOGIA

ECOVASTek parte-hartze aktiboa izan zuen **Europako Paisaiaren Hitzarmenaren** prestaketan. Horren jarraipen moduan, 2006an gidaliburu bat argitaratu zuen, Hitzarmena Europako Kontseiluko herrialdeen artean hedatzen laguntzeko asmoz. Berezi, ECOVASTek **herritarrek sentiberatzen** lagundu nahi zuen, eta horregatik argitaratu zuen edozein herritarrek paisaiaren izaera aztertzeko metodoa aurkezten zuen **gidaliburua**.

Gidaliburua ingelesez idatzia dago, eta ECOVASTen Web orritik jaitsi daiteke. Paisaiaren inguruko prestakuntza berezirik ez duen edonork paisaiaren izaera aztertu ahal izan dezan, ECOVASTek **hamar atal** dituen matrize edo **fitxa** proposatzen du. Gidaliburuaren lehen orrialdeek paisaiaren izaeraren funtsa osatzen duten hamar gaietarako buruzko argibideak ematen dituzte, eta fotokopiatuz berrerabil daitezkeen orrialde bakarreko fitxa jasotzen da ondoren. Beraz, liburuxkako fitxa bete ahal izateko argibideak daude lehenengo orrialdeetan. Guzti horrez gain, gidaliburuak paisaiaren azterketan jarraitu beharreko **urratsak** deskribatzen ditu, eta fitxaren **hiru adibide** biltzen ditu, beste toki batzuetan azterketak egiteko lagungarri suertatuko direlakoan.

Metodologia honek proposatzen dituen **hamar gaiak** hauexek dira: **harriak** (azaleko geologia), **klima**, **erliebea** (geomorfologia), **lurzorua**, **landaredia**, **nekazaritza** eta **basogintza**, **eraikinak** eta **populazte-eredua**, gizakiak eraikitako bestelako elementuak (**azpiegiturak**), **elementu historikoak**, **sentipenak** eta asoziazioak. Lehenengo lau gaiak paisaiaren **oinarri fisikoaren** osagaiei buruzkoak dira, hurrengo bostak lurrazalaren gainean agertzen diren **elementuen** ingurukoak dira, eta azkena paisaiaren alderdi **emozionalari** buruzkoa. Izan ere, paisaia "lurraldearen edozein zati [da], biztanleriak hautematen duen moduan" (Cortina & Queralt, 2007, or. 66). Beraz, emozio eta sentipenik deskribatu gabe, ez dago paisaia aztertzetik!

2.1.2. GURE PROIEKTUAN ERABILITAKO FITXA

Gure proiekturako, ECOVASTen metodologia eta fitxa **egokitu** egin ditugu. Lehenik eta behin, esan beharra dago gure fitxan ECOVASTek proposatutako hamar gaiak mantendu ditugula, oso egoki jotzen ditugulako. Aldaketak informazioa aurkezteko moduan eta atal bakoitzari buruz ematen diren argibideetan daude gehienbat.

Proiektu honetarako, zazpi orrialde dituen **fitxa bakarrean** bildu dugu fitxa betetzeko beharrezkoa den informazio guztia. Beraz, ez da beharrezkoa liburuxka oso bat irakurtzea azterketa egin ahal izateko, informazioa arinduz. Hau posible izan da eskualde bakoitzean paisaiaren azterketak hasi aurretik **saio** ireki bat antolatu dugulako, fitxa betetzearen inguruko argibideak aurkezteko, eta gerturatutakoaren dudak argitzeko balio izan duena. **Asmatutako fitxa** bat osatu dugu ere, jendearen eskura jarri dena, betetako fitxa baten itxura nolakoa izan litekeen ezagutzen lagunduko duena.

Gure proiektuan erabilitako fitxa dokumentu honen **eranskinetan** aurki daiteke, eta ikus daitekeen moduan, bete beharreko atal bakoitzean **galdera** batzuk egiten ditu, paisaia behatzean zeri erreparatu erabakitzen lagunduko dutenak. Fitxaren azken atala, sentipen, lotura eta asoziazioei buruzkoa dena, betetzen zailena izan daitekeela aurreikusiz, **sei azpiataletan** banatu da, gai horiei buruzko hausnarketa errazteko asmoz. Azkenik, fitxan bildu ez diren gaiak gehitzeko aukera ematen duen atala gehitu da, eta proiekturako erabilgarri izango diren hainbat **datu** jasotzeko balio duen orrialdearekin amaitzen da fitxa.

Orokorrean, iruditzen zaigu fitxaren lehen hamaika puntuek **EAEko edozein paisaia** aztertzeke balio lezaketela, baina behaketari buruzko datuak jasotzen dituen azken orrialdea proiektuari zuzenean lotuta dago, eta agian beste testuinguru batean ez da baliagarri suertatuko.

2.1.2.1. Fitxa betetzeko iradokizunak

Hasteko, esango dugu paisaiaren azterketa paisaian **ikusgai** denari mugatzen zaiola. Hau da, paisaian lurzorua ikusterik ez badago, landarez estalia dagoelako, lurzoruari dagokion atalean ez da ezer jaso behar. Beraz, fitxak dituen hamar aztergaietakoren bat aztertzen ari den paisaian agertzen ez bada, ez dago zertan aztertu beharrik.

Bestetik, aztertzen den gai bakoitzaren **pisua** baloratu behar da fitxan, eta pisua emateko orduan eskualdean fitxak betetzen dituzten pertsona guztiek **irizpide** berak izatea komeni da. Horregatik, ECOVASTek proposatzen dituen irizpideak mantentzen ditugu hemen:

- **Nagusia:** elementua paisaia guztian agertzen da, eta bertako izaera/nortasunari funtsezko ekarpena egiten dio.

- **Nabarmena:** paisaiaren zati zehatz batean izaera/nortasunari funtsezko ekarpena egiten dio, EDO paisaia guztian agertzen da, baina ez da izaera/nortasunaren funtsezko elementua
- **Ertaina:** paisaiaren alderdi gehienetan agertzen da, baina ez da izaera/nortasunaren elementu nagusia
- **Baxua:** tarteka agertzen da, baina izaera/nortasunari ekarpena egiten dio

Adibidez, hurrengo bi irudietan harri biluziek duten presentziaren arabera, pisua baloratuko dugu. Kontuan izan behar da argazkiek ez dutela islatzen argazkilariak begien bistan zuen paisaia guztia, paisaiaren zati bat baino ez dute jasotzen, eta ez dakigu inguruko paisaia argazkiaren antzekoa ote den, ala ez.

Tolosaldeko landa paisaiaren argazkian, esango dugu harriak pisu baxua duela argazkitik kanpo dagoen paisaian harria tarteka soilik agertzen bada, eta pisua ertaina izango da harri biluzia argazkitik kanpoko paisaiaren puntu gehienetan agertzen bada.



Tolosaldeko landa paisaia. Iturria: TOLOSALDEA TOUR



Aralar. Egilea: Miren Askasibar

Aralarko eremu zabalen adibide izan daitekeen beste argazkiaren aurrean esango genuke harriak pisu nagusia duela argazkian ateratzen ez den inguruko paisaiaren alderdi guztietan agertzen bada, eta pisua nabarmena izango da inguruko paisaiaren toki zehatz batean soilik agertzen bada, hau da, argazkia ateratzeko unean argazkilariak ikusten zuen paisaia osotik zati zehatz batean baino harriak agerian ez bazeuden.

Hala ere, azpimarratu beharra dago fitxaren helburua pertsona bakar bat edo pertsona multzo jakin baten **pertzepzioa** jasotzea dela. Ondorioz, toki berera joanda ere, gerta daiteke bi pertsonen fitxa desberdina idaztea, azken batean, paisaia lurraldearen gaineko begirada pertsonala baita, eta **begirada pertsonal** hori baldintzatzen duten faktoreak askotarikoak dira. Beraz, metodologiak ez du bilatzen proiektuan parte hartzen duten pertsonen begiradak "berdintzea", baizik eta, hain zuzen ere, **begiraden dibertsitatea islatzea**.

Elementu bakoitzaren pisua baloratzearen gaineko irizpide orokor hauen ondoren, fitxaren **hamar aztergaien** inguruko **argibideak** emango ditugu, irudiez baliatuz. Aipatu den moduan, hamar osagaiak ondokoak dira: harriak (geologia), klima eta ura, erliebea (geomorfologia), lurzorua, landaredia, nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza, eraikinak eta populatze-eredua, bestelako azpiegiturak, elementu historikoak, eta sentipenak, loturak eta asoziazioak.

Harriak (geologia)

Hurrengo bi irudietan begien bistan dauden harri oso diferenteen adibideak ditugu. Aztertu nahi dugun paisaian harriak bistan daudenean, tankera honetako galderak egingo dizkiogu gure buruari: **azalera** handia hartzen al dute? zein **kolore** dituzte? inguruko eraikin eta harresietan harri mota hori ikusten al da, edo bertakoak ez diren harriak erabiltzen dira? Guzti honek lagunduko digu erabakitzen harriek zer nolako pisua duten paisaia jakin horretan. Batzuetan, nahiz eta azalera txikia hartu, harriek inguruko paisaiaren koloreekin edo formekin **kontraste** handia egiten dutelako, paisaiaren izaeran pisu handia dutela irudituko zaigu.

Ikus daitekeen moduan, ez da beharrezkoa harrien motei inguruko ezagutza izatea harriek paisaiari egiten dioten ekarpena deskribatzeko. Agian baten batek jakingo du San Adriango argazkiko harriak kareharrizkoak direla, eta Jaizkibeletakoak, aldiz, hareharrizkoak, eta jakingo du interpretatzen desberdintasun horrek zer nolako aldaketak dakartzan harri mota bat eta besteak sortzen dituen paisaien artean, baina ezagutza tekniko hori ez duenak ere balora dezake bere begiradaren arabera. Zentzu horretan, aditu eta ez-adituaren balorazioak desberdinak izango dira (agian), baina batek ez du bestak baino balio handiagorik, begirada desberdinak ordezkatzen dituzte, besterik ez.



San Adriango galtzada. Egilea: Miren Askasibar



Jaizkibeletako itsaslabarrak. Egilea: Miren Askasibar

Klima eta ura

Fitxaren atal honetan klimak paisaian duen **eragin zuzena** jasoko da, hau da, klimak paisaian uzten dituen **aztarnak** bilatuko ditugu. Batzuetan, **toponimiak** azaltzen du klimaren eragina (Lauaizeta, Agirre, etab.), beraz, interesgarria da tokien eta eraikinen izenak jasotzen dituen mapa bat eskura izatea azterketa egiteko. Beste batzuetan, uraren **presentzia** oso nabarmena da, ikusi edota entzuten delako, edo urari lotutako landareak daudelako. Gure proiektua garatzen den eskualdeetan, **haize** nagusiak ipar-mendebaldekoak izaten dira, eta haizeak maiz jotzen duen gainetako zuhaitzetan batzuetan nabarmena da haizearen eragina, zuhaitzak okertzen direlako. Beste toki batzuetan **lainoa** sarri sortzen da, eta paisaiaren ohiko osagaia da, bere izaeraren parte bihurtuz.

Aipatutakoen adibideak azaltzen dituzten hainbat irudi jasotzen ditugu ondoren.



Uraren presentzia argia Tolosaldeko ubide honen alboan. Iturria: TOLOSALDEA TOUR



Haizeak okertutako altzifrea Kalifornian. Iturria: <http://poodlady2008.blogspot.com.es/2010/07/100709-point-reyes-national-seashore.html>



Gure eskualde atlantikoetan maiz sortzen den lainoa, landa paisaien ezaugarri. Egilea: Sigfrido Koch Arruti. Iturria: <http://www.guregipuzkoa.net/photo/8581>

Erliebea (lurrazalaren formak, geomorfologia)

Argi dago paisaian ikusten diren **forma** gehienak lurrazalak emandakoak direla (lautada zabalen forma horizontalak, tontor harkaiztsuen forma bertikalak, muinoen forma borobildu leunak, etab.). Beraz, **erliebea** landa paisaia guztien osagaia da, baina batzuetan eragin nabarmenagoa izango du besteetan baino. Lurrazalaren formak behatzean, konturatuko gara orokorrean naturan forma **organikoak** (lerromakurrak, irregularrak) gailentzen direla forma **geometrikoen** gainetik (lerro zuzenak edo kurba matematikoak, erregularrak). Erliebearen formak zer motatakoak diren behatzeaz gain, lurrazalaren forma ezberdinak **harmoniaz** nahasten diren, edo haien artean **kontraste** handiak ote dauden interesatuko zaigu.

Bestetik, erliebeak bestelako elementuak ezkututzen edo agerian jartzen lagun dezake. Adibidez, lurra eta zerua banatzen dituen horizontetik gertu kokatzen diren elementuek gure begirada erakartzen dute, eta ezaugarri hori aspalditik erabilia izan da guztien bistan egotea nahi den elementuak kokatzeko (gurutzeak, seinaleak, mugarriak, etab.). Beraz, komeni da paisaian agertzen diren **beste elementuak erliebearekiko** nola kokatzen diren aztertzea.

Jarraian, azaldutakoaren adibide batzuk ikusiko ditugu.



Nafarroako lautadan paisaia horizontala da lehen planoan, atzeko mendien erliebe malkartsuaren aldean. Egilea: Miren Askasibar



Erliebearen forma organikoak gailentzen diren landa paisaian baserria maldak eta lautadak bat egiten duten tokian kokatzen da, eta atzealdeko muinoan harkaizti bat nabarmentzen da zeruertzetik gertu dagoelako. Egilea: Miren Askasibar



Batzuetan, formen arteko kontrastea areagotzen duten aldeak agertzen dira paisaian. Kasu honetan, koloreak eta ehundurak erabat desberdinak dira horma harkaitzua eta bere oinaren artean. Egilea: Miren Askasibar

Lurzorua

EAEko eskualde atlantikoetan ez da ohikoa izaten lurzorua **begi bistan** agertzea, baratzeetan ezik. Beraz, askotan fitxaren atal hau betetzeko beharrik ez da izango. Lurzorua landarediaren babesik gabe agertzen den gehienetan erraza izango da horren **arrazoia** asmatzea (laborantza, erosioa, etab.). Lurzoru biluzia zenbateraino nabarmentzen den faktore ezberdinen menpe dago: azalera, kokapena, inguruko kolore eta ehundurekiko kontrastea, etab. Jarraian ikusten ditugu lurzoru biluziaren adibide pare bat:



Maiz, luiziak eta obrak izaten dira lurzorua agerian geratzearen arrazoiak gure eskualdeetan. Ikus daitekeenez, kontraste nabarmena dago lurzorua eta inguruko koloreen artean, begirada erakarriz. Egilea: Miren Askasibar



Egokiak ez diren praktikak ere izan daitezke lurzoruak berezko estalkia galtzearen arrazoiak. Egilea: Miren Askasibar

Landaredia


EAEko landa-paisaia atlantikoetan landarediak lurraldearen **zatirik handiena** estaltzen du. Paisaiaren izaera aztertzeko, behaketa egitean landarediaren **hiru mota** bereziko ditugu: **belarrak**, **sastrakak** edo zuhaixkak, eta **zuhaitzak**. Beraz, tamainaren eta itxuraren arabera bereziko dugu paisaian agertzen den landaredia.

Lehenengo eta behin, aztergai den landa paisaian landarediak lurraldearen gehiengoa estaltzen ote duen begiratuko da. Horrez gain, landarediaren hiru moten artean zein edo zeintzuk agertzen diren ikusiko da, baita landare motak paisaian nola **banatzen** diren ere (antzeko tamainako esparruak hartuz, mota batek osatutako oinarri zabalean beste motetako orban txikiekin, etab.). Landaredia mota ezberdinen arteko **mugak** nolakoak diren behatuko da ere (marra zuzenek osatutako muga argiak, landare mota bat bestearekin gradualki nahastuz osatzen den muga leuna, etab.).

Bestetik, landa-paisaia atlantikoetan badira hainbat **elementu bereizgarri**, hala nola, lerro-formako landarediak osatutakoak (landarezko hesiak lursailen mugetan, zuhaitzen lerrotzatzeak, etab.). Horrelakoak agertzen ote diren ala ez jasoko da ere fitxan, baita eskualdearen nortasunaren bereizgarri diren ere.

Azkenik, ezin dugu ahaztu paisaiak urtean zehar aldatu egiten direla, bereziki landarediaren aldaketei esker. Aztergai den paisaian **urtaroetan** zehar koloreak eta itxura asko aldatzen diren aztertzea komenigarria da. Horretan asko laguntzen du zuhaitz eta zuhaixkek neguan hostoa galtzen ote duten jakitea, baina datu hori ezagutzen ez badugu, saia gaitezke toki horren argazkiak bilatzen, urteko sasoi ezberdinetan eginak.

Ondoko argazkietan ikusiko ditugu landarediaren inguruan aipatu ditugun gaien adibideak.



Udazken kolorez jantzitako paisaiaren adibidea, egun gutxi iraunda ere, ikusgarria. Egilea: Miren Askasibar



Bi landaredi mota soilik dituen paisaia (belarrak eta sastrakak). Egilea: Miren Askasibar



Landarediaren estalkia ia erabatekoa den landa paisaia baten adibidea. Ikus daitekeenez, belardi eta basoek azalera berdintsua hartzen dute, eta zuhaixkak urriago dira. Irudia negukoa da, zuhaitzen orban batzuk historik gabe agertzen zaizkigulako. Orokorrean, baso eta zelaien arteko mugek marra zuzenak jarraitzen dituzte, baina hostozabalen kasuan ertzak organikoagoak dira. Landarezko hesiak ez dira oso ugariak. Urtaroetan zehar aldaketa nabarmenak ditu paisaia honek, hostozabalei esker. Egilea: Miren Askasibar

Nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza

EAEko landa paisaia atlantikoetan **lurraren erabilera** nagusiak **lehen sektoreari** dagozkio. Horregatik esaten da lehen sektorea dela landa paisaiak sortu eta mantentzearen arduraduna. Beraz, aztergai den paisaian **azalerarik handiena** nekazaritza, abeltzaintza edo basogintzarako erabiliko da seguruenik.

Hasteko, fitxaren aurreko atalean bezala, lurraren erabilera hauek gailentzen ote diren behatuko da. Bestetik, interesgarria da lehen sektoreak erliebean eta landaredian egindako **aldaketak**, eta urtaroretan zehar paisaian eragiten dituen aldaketak aztertzea. Lehen sektoreak paisaia nola erabiltzen duen ikusiko da ere, paisaia nola "**antolatzen**" duen (baratzeak, soroak, belardiak, baso landaketak, non kokatzen dira? zer nolako tamainak dituzte?). Bestetik, lehen sektoreak **eraikinak** eta **azpiegiturak** dakartza paisaiara; zenbat eta nolakoak diren ikusi beharko da. Batzuetan, landa paisaia zehatz bat **produktu**, labore edo abere zehatz bati estuki lotua dago, eta horrela bada, fitxan jasotzea komeni da.

Azkenik, fitxaren atal hau oso egokia da denboran zehar landa paisaian emandako **aldaketen** inguruan hausnartzeko. Sumatzen al dira nekazaritza, abeltzaintza edo basogintzan azken urteetan emandako aldaketarik (soroak zeuden tokietan belardiak edo basoak landatzea, eraikin berriak, lursailak uztea, sastrakak hedatzea, larreetan bazkatzen diren abereak gutxitzea, etab.)?

Argazki batzuen bidez irudikatuko ditugu aipatutako gaiak jarraian.



Garai batean Nafarroako herrixka honen inguruan zeuden soro txikiak belardiek hartu dute, paisaia sinplifikatuz. Egun, mantentzen diren ezpondei esker asma dezakegu iraganeko erabilera desberdina zela. Egilea: Miren Askasibar



Abeltzaintza eta basogintzari lotutako erabilerak gailentzen diren landa paisaiaren adibidea, belardi zabalak baserritik gertu, eta basoak urrutiago daudelarik. Abeltzaintzarako espezializazioak baserritik banatutako ukuilu handia gehitu dio paisaiari, gure landa-paisaietan ohiko bihurtu den elementua. Kasu honetan, baserriaren eraikin nagusiarekiko "menpetasuna" egoki adierazten du ukuiluak, altuera txikiagoa eta estilo funtzionalagoa duelako. Beste kasuren batean gerta daiteke eraikin laguntzaileak jatorrizko baserria "irentsi" duenaren sentsazioa izatea Egilea: Miren Askasibar



Basogintzak paisaian eragiten dituen aldaketak nabarmenagoak dira urtaro batzuetan besteetan baino. Koniferoen landaketa hau udazkenean eta neguan askoz ere errazago ikusiko da, udan inguruko hostozabalekin bat egingo duen bitartean. Egilea: Miren Askasibar



Landa paisaia batzuk produktu, labore edo abere zehatz bati lotuta daude. Adibidez, Aralarko belardi zabalak artzaintzari esker sortuak eta mantenduak dira, eta egun latxa ardiarekin eta Idiazabal gaztarekin erlazionatzen ditugu. Egilea: Miren Askasibar

Eraikinak eta populatze-eredua

Landa paisaietan hirietan baino biztanle gutxiago dagoen arren, **eraikinak** beti presente dauden elementuak dira, eta maiz **eskualdearen nortasunari** lotuta daude. Eraikinei bakarka begiratzeaz gain, interesgarria da eraikinak nola **taldekatzen** diren ikustea, horrek ere garrantzi handia baitu.

Tokiaren eta garaiaren arabera, eraikinek **ezaugarri** desberdinak izaten dituzte. EAEko landa paisaia atlantikoei dagokienez, hainbat argitalpenetan aurki daiteke **baserri tradizionalaren** ezaugarriei buruzko informazioa, baita baserriaren eraikitze-teknikak denboran zehar nola aldatzen joan diren. Bada Interneten doan jaitsi daitekeen liburu bat (<http://bertan.gipuzkoakultura.net/bertan4/pdf/bertan4.pdf>), lagungarri izan daitekeena (Santana & Otero, 1993).

Eraikinek eta populatze-ereduak **tokiko** ezaugarriak ba ote duten behatuko da (tokiko materialekin eta eraikitze-teknikekin eginda daudelako, eraikinek taldekatzeko eredu jakina dutelako, etab.). Eraikin gehienak **garai** berekoak ote diren, edo eraikin zaharrak eta berriak nahastuta agertzen diren interesgarria da ere, eta bereziki eraikin zaharrak eta berriak ondo **integratzen** diren ala ez baloratzea.

Herrixkak edo auzoak agertzen badira, **hazten** nola joan diren behatuko dugu (auzo/herri zaharren **ertzetan** eraikinak gehituz, aurretik zeuden guneeetako “**hutsuneak**” betez, auzo **berriak** sortuz, etab.). Hazkuntza nola eman den ikusteko oso erabilgarria da XX. mendeko bigarren erdialdeko **aireko argazkien** konparaketa. Argazkiak kontsultatzea erraza da **Gipuzkoan**: <http://b5m.gipuzkoa.net/web5000/eu/argazkiak/aireko-argazkiak/> estekan tokiaren izena idatzi, eta 1954tik hona toki zehatz horren urte ezberdinetako aireko argazkiak alderatzea posible da saguarekin klik eginez. **Bizkaiko** kasuan, txosten hau idazteko garaian 2006tik honako argazkiak soilik aurkitu ditugu kontsultatzeko moduan http://www.bizkaia.net/home2/Temas/DetalleTema.asp?Tem_Codigo=2099 estekan. Eraikinen **zaharberritzei** begiratzea ondo dago ere, horrelako obrek paisaiari ekarritako aldakez ohartzeko.

Aipatu ditugun alderdiei buruzko adibide batzuk ikusiko ditugu segidan.



Gipuzkoako Datu Espazialen Azpiegituraren Web orrian 1954tik honako aireko argazkiak konparatzean erraz ikusten da Baliarrain nola hazi den, garai bateko errepidea mantenduz, eta elizaren inguruko eraikin multzo txikiaren inguruan eraikinak gehituz, auzo txiki baten tamaina izatetik herria osatu arte. Egilea: Miren Askasibar



Tokiko eta baserria eraiki zen garaiko ezaugarriak mantenduz egindako zaharberritzearen adibidea. Egilea: Miren Askasibar



Landa eremuko herrietan eraikinek batzuetan hirietakoak diren tipologiak hartzen dituzte, eta honek badu eragina herrien itxuraldatzean denboran zehar. Egilea: Miren Askasibar

Gizakiak egindako bestelako elementuak (azpiegiturak)

Eraikinez gain, gizakiak beste hainbat **azpiegitura** jartzen ditu landa eremuan (errepideak, trenbideak, hormigoizko eraikuntzak, industriak, harrobiak, antenak, parke eolikoak, elektrizitatearen sareak, zabortegiak, etab.). Fitxaren atal honetan jasoko da ea zein azpiegitura antzematen diren (**ikusi** edota **entzuten** direlako, nahiz **usaintzen** direlako), baita azpiegiturok paisaiarekin bat egiten ote duten ala ez. Egia da azken hau, **integrazioaren** auzia, ez dela baloratzen erraza. Azpiegitura jakin bat paisaian ongi integratzen dela iruditzen bazaigu, bat egite horren arrazoiak zerrendatzean erraztu egingo zaigu gure iritzia argudiatzea. Beste pertsona batekin integrazio-maila eztabaidatzeak laguntzen du ere, elkarren arrazoiak entzuteak ideiak argitzen laguntzen baitu.

Azpiegitura batzuen adibideak jasotzen ditugu jarraian.



Ikusten ez diren arren, eraikinen artean doazen errepidea eta trenbidea oso presente daude hiriko eta landako paisaiak konbinatzen dituen zonalde honetan. Bestetik, mendiaren maldako landa paisaiak duen egitura aberatsak, heskai eta zuhaitzi ugariekin, asko laguntzen du tontoretik gertu dagoen harrobia paisaian integratzen, baita malda zeharkatzen duten elektrizitatearen sareek paisaiarekin bat egin dezaten laguntzen ere. Egilea: Miren Askasibar



Azpiegiturek landa paisaiarekin bat egiteko eragozpenak maiz eskala kontua dira. Irudian, kolorearen erabileraren bidez paisaian integratzeko saiakera egiten den arren, azpiegituraren tamaina izugarria da inguruko elementuekin konparatuz. Egilea: Miren Askasibar

Elementu historikoak

Batzuetan, eraikin eta azpiegiturez gain, **elementu historikoak** daude landa paisaian, edo eraikin eta azpiegitura batzuk duten **balioagatik** elementu historiko gisa izendatu dira. Udalerria edo eskualdearen kultura nahiz historiari buruzko argitalpenetan, turismoari zuzendutako argitalpenetan, edo udalen araudian erraza izaten da elementu historikoei buruzko informazioa aurkitzea.

Fitxaren atal honetan landa paisaian ikusgai dauden elementu historikoen berri jasoko da (garai bateko lursailen mugak, mugarriak, bide zaharrak, aztarna arkeologikoak edo prehistorikoak, garai bateko karobiak, errota, etab.). Azken batean, tokiko historiaren lekukorik ba ote dagoen jakitea interesatzen da, **tokiko historia** "kontakutako" diguten elementuak bilatuko ditugu. Batzuetan, gerta daiteke ondarearen ikuspegitik baliorik ez dutelako babesturik ez egotea, baina bertakoen artean ezagunak izatea (garai batean herriko batzarrak egiten ziren zuhaitzak, adibidez). Interesgarria izango da elementuen **kontserbazio-egoera** jasotzea, etorkizunari begira ekintzak proposatzen lagundu baitezake.

Jarraian adibide batzuk ikusiko ditugu.



Landa eremuan ugariak dira aztarna prehistorikoak, hala nola, argazkiko trikuharria. Egilea: Miren Askasibar



Batzuetan, aztarnak ez dira hain antzinakoak, baina tokiaren historia kontatzen laguntzen dute berdin-berdin. Irudian, XIX. mendearen bukaeran eta XX. mendearen hasieran Triano eta Galdameseko mendietan izandako meatzaritzaren aztarnak paisaian. Egilea: Miren Askasibar



Oroitarrak eta mugarriak ugariak dira landa paisaian. Egilea: Miren Askasibar

Sentipenak, loturak eta asoziazioak

Fitxaren azken atala **subjektiboena** da, dudarik gabe. Agian norbaitek pentsa dezake besteei baino garrantzia gutxiago duela, baina ez da horrela. Eskualdeko biztanleen haien paisaiekiko duten **pertzepzioa** ezagutzeko ezinbestekoa da atal hau. Gainera, pertsonalena izanda, askoz ere zailagoa da beste norbaiten iritziarekin ordezkatzeko; agian eskualdetik kanpoko norbaitek fitxa betez gero, lehen bederatzita ataletan antzeko gauzak jasoko lituzke, baina hamargarren honetan ezer gutxi esan ahal izango luke **bizi** izan ez duen paisaiari buruz.

Atal honetan aztergai den paisaiak zer sentiarazten digun jasoko dugu. Sentipen horiek azaleratzen errazteko, hainbat proposamen ditugu.

Paisaia aztertzen denean, baita fitxa betetzen denean ere, denbora pixka bat hartuko da paisaiak norberarengan sortzen dituen **sentipen** eta **sentsazioak** identifikatzeko. Zer etortzen zaigu burura paisaia begiratzean? Agian bada **artelanen** bat (abestia, idazlanaren pasartea, bertsoa, margolana, argazkia, etab.) sentitzen dugun hori ongi azaltzen duena, eta fitxan jaso dezakegu horren erreferentzia. Horrela beste norbaiten hitzez edo lanaz baliatuz gaituzke paisaiak sentiarazten diguna azaltzeko.

Atal honetan aztertzen diren gaien inguruan paisaiek izan ditzaketen hainbat ezaugarri proposatzen dizkizugu fitxan, eta **ezaugarri** bakoitza deskribatzeko lau **adjektibo**, aztertutako paisaiari hobekien egokitzen zaizkien aukeratzeko.

Adibidez, paisaiaren **eskalar** dagokionean, aztertutako paisaia bailara txikia bada, eskala goxoa izango da, eta goi-mendietako larre zabaletako paisaia aztertu bada, aldiz, eskala panoramikoa izango da.

Aniztasunari dagokionean, elementu gutxi eta haien artean berdintsuak dituen paisaia uniforme izango da, eta osagai desberdin asko baditu, konplexua izango da, ordea.

Ehunduraren kontzeptua ulertzeko harea fineko hondartza bat eta harribilez estalitako hondartza bat konparatzean pentsa dezakegu; lehenengoak ehundura fina izango du, eta bigarrenak pikortsua. Paisaiak ere badu ehundura; adibidez, larre batek ehundura fina izango du sagasti batekin alderatuz.

Koloreen dibertsitatea ere balora daiteke; izan ere, badira hainbat paisaia non kolore bakar bat nagusitzen den (aurreko adibideko larrea, adibidez), eta oso koloretsuak diren paisaiak.

Oreka eta **proporazioari** dagokionez, batzuetan paisaiaren osagaiak harmoniaz konbinatzen direla iruditzen zaigu, eta beste batzuetan inolako ordenarik ez dutelako itxura kaotikoa dute.

Paisaiek **mugimenduaren sentsazioa** transmititzen dute ere; ur-salto biziak dituen bailara gorabeheratsua irudituko zaigun artean, batere mugitzen ez den zekale sail zabala duen paisaia barea irudituko zaigu.

Paisaiak adierazten duen **segurtasun** maila garrantzitsua da ere; amildegi handia duen tokia arriskutsua izango da batzuen ustez, eta baserri ugari eta zoko ezkuturik ez duen paisaia eroso izango da.

Azkenik, **lasaitasuna** eta bakardadearen arabera paisaiak zalapartatsuak izango dira jendez eta soinu beteta badaude, edo urrutikoak inolako azpiegiturarik edo gizakirik sumatzen ez bada inguruan.

Atal honetan ikusmena ez diren **zentzumenei** kasu egitea proposatzen da ere. Izan ere, paisaia gehienbat bistaren bidez hautematen badugu ere, beste zentzumenek badute garrantzia. Pentsa, bestela, zabortegia ikusi ez arren haren kiratsa iristen den paisaian oinez ibiltzea eta usain hori gabe paraje berean egotearen arteko desberdintasunean, edo behatoki batetik bista bikainak ikusten egotean autoen soinua entzutea eta ez entzutearen arteko aldean. Beraz, **usaimena**, **entzumena**, **ukimena** eta **dastamenaren** bidez jasotzen diren sentsazioak bilduko dira ere, baita usain, soinu eta zapora horiek burura ekartzen dituzte **oroitzapen** eta sentipenak ere. Maiz, paisaia bat gustuko dugula iruditzen zaigu konturatu gabe usain edo soinu batek oroitzapen gozoak ekartzen dizkigulako.


Asoziazioekin jarraituz, paisaiak norberarentzat duen zentzuaren oinarri dira. Hau da, paisaiak beste **garai**, beste **pertsona**, beste **tokiekin** lotzen gaitu, eta **lotura** horiek galtzen badira, paisaiak **zentzua** galtzen du, arrotz sentiarazten gaitu. Badira erabat **pertsonalak** diren asoziazioak, norberak izandako esperientzia zehatzei lotutakoak (amonarekin sendabelarrak biltzera joaten nintzen tokia), eta badira **taldearenak** diren asoziazioak (herriko hurrek bizikletaz ibiltzen ikasten genueneko tokia). Horregatik, atal honen barruan aztergai den paisaiari lotutako **gertakizun historikoak** (udalerrri edo eskualde mailakoak), arbasoei gertatutako **pasadizoak**, nahiz norberaren adin-tarte ezberdinei lotutako **oroitzapenak** jasoko dira, eta horien ondorioz paisaiak sortzen dituen **emozioak**.

Azkenik, paisaiarekiko loturen artean bada mota berezi bat: lotura **espiritual** edo **erlijiosoarena**. Ermitak kokatzen diren tokiek, adibidez, pertsona askorentzat lotura edo zentzu erlijiosoak duten paisaiak osatzen dituzte. Zentzu zabalagoan, badira beste hainbat toki esanahi espiritualak dutenak, nolabaiteko **magikotasuna** transmititzen dutenak. Aztergai den paisaiak izaera hori badu, horrela jasoko da fitxan, ezaugarri espiritual edo erlijiosoak ematen dizkieten elementuak zentzuk diren azalduz.

Azaldutako gaien inguruko irudi batzuk jasoko ditugu jarraian, aurreko atalekin egin dugun moduan.



Soriako Calatañazorren Errekonkista garaian mairu eta kristauen arteko bataila izan omen zen tokian badira Erdi Aroko gazteluaren aztarnak. Horrez gain, gazteluaren oinarriko lurretan garapen urbanistikorik edo azpiegiturarik ez egoteak asko laguntzen du paisaiaren lotura historikoa mantentzen, erraza baita lautadan alde bien arteko borroka imajinatzea. Egilea: Miren Askasibar



Paisaiaren eskala panoramikoa izaten da tontorretan. Egilea: Miren Askasibar




Zelaien ehundura fina basoen ehundura pikortsuarekin konbinatzen duen landa paisaia. Egilea: Miren Askasibar



Larreak, basoak, zelaiak, baserriak eta errepideak modu harmoniatsuan lotzen dira landa paisaia honetan, orekaren sententzia transmitituz. Egilea: Miren Askasibar



Mugimendua adierazten duen paisaia dinamikoa dugu hau, segurtasunari dagokionean agian batzuentzat arriskutsua izango dena. Egilea: Miren Askasibar



Egun lotura erlijiosoa duten paisaietako batzuk aurretik zentzu espiritualak zutelako aukeratuak izan ziren antzinako basilizak eraikitzeke. Egilea: Miren Askasibar

Informazio osagarria eta behaketari buruzko datuak

Fitxaren amaieran tokia dago aurreko ataletan txertatu ahal izan ez diren **gogoetak** idazteko. Horrez gain, proiekturako erabilgarriak izango diren hainbat **datu** eskatzen dira. Proiektuaren emaitzen erabilera posibleetako bat eskualdeko landa paisaiei lotutako turismoa sustatzea denez, helburu hori gogoan izanda fitxa bakoitza betetzen duen pertsonaren iritzia eskatzen da egindako ibilbidearen inguruan, ibilbide hori egin nahi duen edozein pertsonarentzat erabilgarri izango delako.

Bestetik, proiektuaren txostenean fitxak jasoko direnez, horien **egileei** buruzko oinarrizko datuak eskatzen dira ere, garrantzitsua iruditzen zaigulako proiektuan parte hartu duten pertsonen lanaren aitortza egitea.

2.1.3. MOLDATUTAKO FITXA NOLA ERABILI DEN

Idealki, paisaiaren azterketarako metodologia ulertzeko egun bateko ikastaro praktikoa egokia litzateke, fitxa nola bete eztabaidatu ondoren PAISAIako teknikariek in ibilbide bat eginez fitxaren atalak betetzeko aukera emango lukeelako. Praktikan, aldiz, oso zail iruditu zaigu proiektuaren berri zehatzik izan gabe egun oso bat eta bigarren saio bat ospatzeko bezain besteko denbora proiektuari emateko prest zegoen jendea aurkitzea.

Horregatik, erdibideko irtenbidea bilatu da, eta **lehenengo saioan** paisaiaren inguruko kontzeptua adostu eta fitxa nola bete aztertu dira. Beraz, lehenengo saioa nahiko teorikoa izan da, PAISAIako teknikarien azalpenak jasotzera bideratua gehienbat. Lehenengo saioa eta bigarrenaren artean **bi aste** oso utzi dira partaideek nahi adina fitxa bete ahal izateko.

Bigarren saioa eztabaida saioa izan da, protagonismoa partaideen esku egon delarik. Bertan, partaide bakoitzak aztertutako paisaiaren berri eman du, eskualdeko baserri-paisaien **ezaugarriak** adostu dira, paisaia horiek etorkizunari begira dituzten **erronkak** eztabaidatu dira, eta proiektuaren bigarren fasean **ekintzak** proposatzeko ospatuko den hirugarren saioari nolabaiteko sarrera egin zaio, ekintzak burutzeko bide berrien inguruan **hausnarketa** eginez.

Beraz, esan daiteke **lehenengo saioa trebakuntza** saioa izan dela, eta **bigarrena partaidetza** saioa, tartean ariketa pertsonalerako tartea utziz. Bigarren saioaren ondoren aste batzuetako epea zabaldu da fitxak osatzeko, baita fitxa berriak egiteko ere.

2.1.4. PARTE-HARTZAILEEK AZTERTUTAKO PAISAIEN KOKAPEN ESPAZIALA

Saioetan eta ariketa pertsonalean landutako gaiez gain, interesgarri jotzen genuen eskualdean egindako lana proiektuan parte hartu duten pertsonak aztertutako paisaiek hartzen duten **azaleraren** adierazpen objektiboarekin osatzea. Beste modu batera esanda, egoki ikusten genuen fitxetan bildutako informazio subjektiboa objektiboa den informazioarekin osatzea, **fitxa** betetako partaide bakoitzak aztertutako paisaiak **espazioan kokatuz**. Hortaz, gure helburua ondokoa zen: fitxa betetako pertsona bakoitzak ikusi duen paisaia noraino hedatzen den plano batean adieraztea (ez bakarrik egindako ibilbidea, baizik eta bertatik ikusten den lurraldea ere).

Helburu hori lortzeko oso aproposak dira Informazio Geografikoko Sistemak (IGSK, gaztelaniazko SIG edo ingelesezko GIS akronimoekin ere ezagutzen direnak), ordenagailuan **pertsona bakoitzak egindako ibilbidetik ikus daitekeen lurraldearen zatia** zehazki mugatzea ahalbidetzen dutelako. Horretarako, beharrezkoa da partaide bakoitzak egin duen ibilbidea zehaztasun osoz planoan kokatzea, eta parte-hartzaile askoren kasuan ezinezkoa izan zaigu hori egitea. Ondorioz, ez da posible izan eskualdean betetako fitxa guztiek zehazki aztertu duten zonaldea adieraztea.

Hala ere, **adibide** gisa Tolosaldean egindako fitxen artean bat aukeratu dugu azterketa horiek zer nolako itxura izango zuten azaltzeko. Emaizta grafikoa eranskinak jasotzen dituen argitalpeneko **1 Mapan** ikus daiteke.

Kokapen espazialaren azterketa egiteko, PAISAIAk egindako beste lan baten **metodologia** bera jarraitu da (Paisaia SL, 2006). Analisi horretan, IGS tresna baten laguntzaz, parte-hartzaileak egindako ibilbidetik edo aukeratutako behatokitik lurraldeko zein puntu diren ikusgarri aztertu da. Azterketa honetarako beharrezko elementuak hauek dira:

- MDT-a
- Behaketa puntuak
- Finkatutako aldagai eta baldintzak

MDT-a, lurralde baten altitude banaketa adierazten duen geruza da. Horren bidez, azterketako eremuaren puntu bakoitzak nolako altuera duen definituta gelditzen da. Gure azterketarako, 2009ko 5x5 metroko bereizmeneko MDT-a erabili da. MDT hau, "GeoEuskadi" Euskadiko Datu Espazialen Azpiegituraren web atariaren bidez lortu da (Eusko Jaurlaritzak, 2011a). Geruza horretan lurzorua biluzik ageri da, hau da, ez da eraikin edo bestelako elementuen altuera kontutan hartu. Beraz, gure behaketa puntuek izango duten oztopo bakarra lurrazalaren topografia izango da.

Behaketa puntuak lortzeko, parte-hartzaileak aukeratutako ibilbide edo behatokia hartu da kontuan. Ibilbideen kasuan, elementu linealak direnez, behaketa puntuak lortzeko ibilbidearen ardatzean zehar **100 metro** bakoitzeko puntu bat sortu beharko litzateke. Behatokiaren kasuan, berriz, elementu puntualak direnez, puntu hori bera erabiliko litzateke analisia egiteko.

Azterketa egin ahal izateko, sortutako puntuei zenbait **aldagai** eta baldintza definitu behar zaizkie:

- Behaketa puntuen altuera
- Ikusmen-angelua (horizontala eta bertikala)
- Distantzia maximoa

Behaketa puntuen **altuerak** behatzailearen begiak lurzorutik zein altueratan aurkitzen diren adierazi behar du. Oinez egindako ibilbideen behaketa puntuei 1,65 metroko altuera zehaztuko litzazkie (pertsona baten begien batez besteko altuera). Autoz egindako ibilbideetan, berriz, behaketa puntuek 1,2 metroko altuera hartuko lukete (autoz bidaiatzen duen pertsona baten begien batez besteko altuera).

Ikusmen-angeluari dagokionez, angelu horizontala eta bertikala desberdinu ditugu. Angelu **horizontalaren** mugak ezartzerako orduan, ibilbidea oinez edo autoz egin den kontutan hartuko da. Oinezkoen kasuan, angelu horizontal osoa aukeratuko genuke (0° eta 360° artean). Autoz eginiko ibilbideetan, berriz, angelu horizontalaren muga autoaren abiaduraren arabera izango da, eta azken hori errepide-motak finkatuko du (abiadura maximoa behintzat). Horrenbestez, literaturaren arabera (Lucas, 1991, or. 276), 100-120 km orduko abiadura daukan auto batetik ikusmen-angelua 40°-koa izango da; 70-80 km orduko abiadurarekin 65°-koa; eta 40-50 km orduko abiadurarekin 100°-koa.

Behatokiaren kasuan, angelu horizontala 180°-tan mugatuko litzateke, behatzaileak begirada zuzentzen duen noranzkoa kontutan hartuta.

Angelu **bertikalari** dagokionez, aurreko kasuan bezala, oinez eta autoz egindako ibilbideak desberdindu ditugu. Oinezkoen kasuan, angelu bertikala osoa izango litzateke (-90° eta 90° bitartean). Autoz eginiko ibilbideetan, angelu bertikala 0° eta 65° bitartean finkatuko da.

Objektu bat ikusi ahal izateko **distantzia maximoa** bere altueraren arabera da. Egindako beste ikerketa batzuen arabera (MacFarlane, Haggett, Fuller, Dunsford, & Carlisle, 2004, or. 111), 50 metroko elementu bat 20 kilometroko erradio batean ikus daiteke. 20

metroko elementu bat berriz, 6 kilometroko erradio batean izango da ikusgarri. Gure azterketaren kasuan, aldagai hau erabilitako MDT-ak baldintzatuta agertu zaigu. Lehen aipatu dugun moduan, erabili dugun MDT-ak ez ditu lurrazala ez den bestelako elementuen altuerak kontutan hartzen. Hori dela eta, behaketa puntu guztietan elementuak hautemateko 6 kilometroko distantzia maximoa ezarri da.

Azkenik, adibide bezala hartutako fitxaren azterketa egin da. Elkar-ikusgarritasunaren analisiak ibilbidean zehar sortutako puntu bakoitzetik inguruko lurraldean ikus daitezkeen puntuak identifikatzen ditu. Gainera, azterketak zehaztu dezake ibilbidetik ikus daitezkeen zonaldearen puntu bakoitza ibilbideko zenbat puntutatik den ikusgai. Horregatik 1 Mapan eremuaren zonalde batzuk ibilbideko puntu bat eta zazpi punturen artean dagoen kopuru batetik ikus daitezke, eta beste batzuk, aldiz, ibilbideko 37-63 kopuruaren tartean dauden puntuetatik ikus daitezke. Hau da, azterketak ahalbidetu egiten digu ibilbidearen zati txiki batetik ikus daitezkeen paisaia eta ibilbide gehienez zehar ikusiko dena diskriminatzea.

Modu horretan, fitxan agertzen diren elementu eta sentipenak lurraldearen zein eremuri dagozkion islatu ahal izango da irudi baten bidez. Eskualde guztiko fitxetan aztertutako paisaien kokapen espaziala egin ahal izan balitz, mapa batean guztiek hartutako eremua adierazi ahal izango zen ere, begiratu bakarrean eskualdearen zein alderdi analizatu diren ikusteko.

2.2. Proiektuaren fase honetan emandako urratsak

Paisaien identifikazioa eskualde bakoitzeko eragile eta herritarrekin landu aurretik hainbat urrats eman dira. Lehenik eta behin, PAISAIK prestatutako oinarritzko inprimaki bat gida bezala hartuta, GOIMENek eskualde mailan proiektuari begira ekarpen mamitsuak egin zitzaizkion **eragileak** eta **pertsonak identifikatu** ditu. Identifikatutako eragileen artean eskualdeko udal bakoitzeko ordezkari bat behintzat izan da, udalek parte har zezaten nahi baitzen.

Bestetik, Landa Garapen Elkartearekin egindako bileretan, parte-hartze saioen deialdiak zabaltzeko biderik egokienak zein parte-hartzea lantzeko, eskualdean aurretik egon diren parte-hartze ekimenak eta dinamikak aztertu dira, eta deialdiak eta proiektuaren berri emateko hauek erabiltzeko aukeren inguruan hausnartu da. Honen harira, herri desberdinetan parte-hartze prozesuak burutu direla ikusi da, baina orokorrean momentuan dinamikarik martxan ez dagoenez, bide hau ez erabiltzeko erabakia hartu da. Hortaz, aipatutako inprimakian zehaztutako eragile zein pertsonen gonbidapena posta elektronikoz eta telefonoz egin zaie.

Horrez gain, eskualde bakoitzean herritarrek gehien erabiltzen dituzten **komunikabideak** identifikatu dira (GOITB telebista, Segura irratia, Goiberri aldizkaria, Goierriko hitza aldizkaria, Diario Vasco egunkaria, Iratigoikoetxea bloga, ha2a web ataria eta Ametsez beteriko mundu bat bloga). Eskualdeko komunikabideei proiektuaren berri ematen duen prentsa oharra helarazi zaie, baita saioen deialdiak eta saioak burutu ondorengo oharra ere. Hau guztiaz gain, proiektuaren berri emateko elkarrizketak burutu dira hainbat komunikabidetan. Beraz, eskualdeko komunikabideak ere inplikatu dira proiektuaren berri zabaltzen, eta oso eskertzekoa izan da haien laguntza ekimenaren oihartzuna zabaltzeko.

Saioen deialdiak herriz herri zabaltzeko udalen laguntza eskatu da (ohiko tokietan triptiko eta kartelak jartzeko eta izan zitzaizkion posta elektronikoko taldeei zabaltzeko), baita udal ordezkariak saioetara gonbidatu ere. Gainera, proiektuan interesa izan zezaketen eragileak (lehen sektoreko ekoizleak, turismoari eta aisiari lotutako jardueren ekonomikoaren ordezkariak, kultur eta natur ondarearen kontserbaziorako elkarteak, landa eremuan burutzen diren kirolen elkarteak, herritarren elkarte eta taldeak, etab.) gonbidatu dira posta elektronikoz, eta hau ez zutenei telefono deien bidez.

Beraz, deialdia burutu aurretik, triptikoak, kartelak eta prentsa oharrak prestatu dira Landa Garapen Elkartearen laguntzaz. Horrez gain, GOIMEN Landa Garapen Elkartearekin saioetarako **materiala** prestatu da (eskualdeko landa-paisaien inguruko informazioa, eskualdeko ibilbideen mapak eta abar). Bestetik, PAISAIK saioetan erabiltzeko aurkezpenak, paisaiaren behaketarako fitxa eta fitxaren adibide praktikoa prestatu ditu.

Azaldu bezala, parte-hartzea **eskualdeko bi saioen** bidez bideratu da, hurrengo atalean hauetan landutakoa zehazki azaltzen den bezala. Dena den, prestatutako **materiala** saioetan bertan azaldu eta banatzeaz gain, GOIMENen **web** atarian eskuratzeko moduan jarri dira ere, eta saioetan parte hartu dutenei zein deialdia luzatu zaienei posta elektronikoz helarazi zaie. Bi saioen artean **hogeita bat eguneko epea** utzi da, partaideek burutu beharreko ariketa egin ahal izan dezaten, ariketa hori baita lanaren mamia.

Fase honi bukaera emateko, saioetara bertaratutako paisaiaren behaketa **fitxak** zein etorri ez direnenak posta elektronikoz **jaso**, landu eta **aztertu** egin dira. Azkenik, fase honetan landutakoaren emaitzak aurkeztutako **txosten honetan** jaso ditugu. Txostenaren lehen zirriborroa PAISAIK prestatu du, eta saioetan parte hartutako pertsona guztiei helarazi zaie haien ekarpenak eta zuzenketak jasotzeko. Horrela, behin betiko txostena itxi da, eta lanen hurrengo faseari ekin zaio, aztertutako eskualdeko paisaietan ekintzak proposatzearan ingurukoa.

2.3. Eskualdean ospatutako parte-hartze saio irekien datu orokorrak

Aurreko atalean aipatu den bezala, Goierri bi saio burutu dira, 2012ko azaroaren 28an eta abenduaren 19an **Goizanen** (Zaldibia). Lehenengo saioan **hemezortzi** pertsonak hartu dute parte, bigarren saioan, aldiz, **hamazazpik**.



Lehen parte-hartze saioa Goizanen. Egilea: Ainara Flores

Lehenengo saioa proiektuaren azalpen labur batekin hasi da, bertaratutakoak kokatzeko helburuarekin. Jarraian, partaide guztien artean **paisaiaren kontzeptua** landu da, eta paisaiaren inguruko kontzeptu hori Europako Paisaiaren Hitzarmenak («The European Landscape Convention», d. g.) proposatzen duen definizioarekin alderatu da, biek bat egiten dutela agerian utziz. Ondoren,

eskualdeko paisaiari buruzko **datu orokor** batzuk eman dira, partaide bakoitzak egin beharreko ariketa pertsonalerako erabilgarri suertatuko direnak. Saioaren hurrengo atalean paisaiaren behaketarako PAISAIK diseinatutako **fitxa** betetzeko **argibideak** eman dira. Azalpen horien bukaeran, partaide bakoitzak aztertuko duen paisaia **aukeratu** du, eta mapa batean gutxi gora-behera kokatu du.

Bigarren saioan, aldiz, egindako lana **komunean jarri** da eta ondorio orokor batzuk atera dira eskualdeko landa-paisaien balioen eta etorkizunaren inguruan. Hasteko, hiru taldetan banatuta, partaide bakoitzak aztertutako paisaia **aurkeztu** du, eta fitxan jasotako alderdi nabarmenenak azaldu ditu, behatutako paisaiak bere ikuspuntutik dituen balioak azpimarratuz. Azalpen horien inguruan sortutako **eztabaidak** agerian utzi du bakoitzak balio desberdinak ikusten dituela paisaian, hau da, lurraldearen zati bera behatu arren, pertsona bakoitzak paisaia desberdina ikusten duela, bakoitzak bere esperientzien galbahetik iragazten duelako begiek ikusten duten hori. Hori horrela izanda ere, taldeak eskualdeko baserri-paisaien **ezaugarri nabarmenen** inguruan eztabaidatu du, guztien artean antzemandako balioak batera jarritz.

Ondoren, eskualdeko baserri-paisaiek aurrean dituzten **erronkak** identifikatzeari ekin zaio. Horretarako, 2025 muga gisa jarrita, parte-hartzaileek irudika dezaketen ikuspegi positiboena eta negatiboena deskribatu dira, bakoitzaren hiru ezaugarri izendatuz. Ikuspegi positiboena baserri-paisaien potentzialak eta aukerak agerian utziko dituzte, eta ikuspegi negatiboena, aldiz, baserri-paisaiek dituzten mehatxu eta arriskuak.

Saio hauetan sortutako eztabaiden eta emaitzen berri dokumentu honen hurrengo atalean ematen dugu, orain arte metodologia eta urratsak besterik ez baititugu azaldu.

3. ESKUALDEKO LANDA-PAISAIAREN EZAUGARRI OROKORRAK

Txostenaren atal honetan **lehen saioan** azaldutako informazioa bildu eta zabaldu da, **fitxaren** atalen izenburuei jarraituz. Horrela, proiektuan zehar bildutako fitxen edukiak hobeto uler daitezke, eta etorkizunean eskualdeko paisaien azterketa berriak egiteko oinarritzko informazioa jaso da.

3.1. Egungo landa-paisaiei buruzko hainbat datu

3.1.1. GEOLOGIA ETA ERLIEBEA

Goierri altitude ertaina duten muino, mendigune eta bailara estuz osatua dago. **Erliebe** malkartsua du, izan ere, lurraldearen %80ak %30eko aldapa gainditzen du. Eskualdea mendiguneen artean agertzen diren bailara estuetan antolatua dago eta kasu batzuetan haranak bata bestetik isolaturik gelditzen dira. Goierriko lurraldearen eremurik handiena Bizkaiko antiklinorioaren ekialdean kokatzen da.

Eskualdea **hego-ekialdetik** Aralar-Lizarrusti (1400 m ingurura iristen diren Txindoki, Uarrain, Balerdi eta Ganbo) eta Aizkorri-Altzania (1500 m ingurura iristen diren Arbelaitz, Atxuri, Aketegi eta Aizkorri) mendiguneek mugatzen dute; **mendebaldetik** aldiz, 900 m inguru dituzten mendiek (Gorostiaga, Arrola edota Irimo) eta **iparraldetik** 1000 m inguru dituztenak (Murumendiren kasua). Eskualdea egituratzen ipar-hegoalde norabidean Aztio-Mariñamendi-Aitzleor, Atxu-Arantzamendi eta Aral mendizerraren tontor batzuk (Ursuaran, Agauntza eta Amondarain) agertzen dira.

Mendigunez gain, Urola zein Oria **ibaiek** eta hauen adarrek ere garrantzi nabaria dute Goierriko egituraketan. Bi hauen ibilguak Arranoaitz-Otaño-Aizleku-Tapalata-Zugarramurdi mendiguneak banatzen ditu. Ibaien adarrek sortzen dituzten haranak lehen aipatu bezala estuak dira eta honek beraien erabilera mugatzen du.

Eskualdeko **geologian**, kareharri jurasiko eta urgoniarrak dira nagusi, ondorioz karst egiturak agertuz. Aralarren, Altzanian eta Aizkorri mendiguneetan horiek dira aurkitzen diren materialak eta duten morfologia karstikoa dela eta, lur azpiko uren sistema garrantzitsuak garatu dira hauen azpian. Horrez gain, erosioaren eraginak, erliebe malkartsuak, glaziarren ondorioz sortutako morfologiak, edota aurkitzen diren lapiazak, dolinak, kobazuloak, etab.-ek ingurugiro eta paisaiari balio garrantzitsua ematen diote.

Iparaldean agertzen diren mendien morfologia, aldiz, leunagoa da. Hauetan hareharria, buztinak eta konglomeratu albense-zeno-manenseak dira nagusi. Hala ere, mendi hauetako garaianetan kareharria nagusitzen da berriz ere. Eskualdearen iparraldea Bizkaiko sinklinorioaren barruan sartzen da, bertan flysch formazioa nagusi da eta tarteka sumendi harriak aurki daitezke («Gipuzkoako eskualdeak», d. g.).

Goierriko haranen ezaugarriek, mendi hegaletako lurrak **ezegonkorrak** izatea eragiten du. Ezaugarri hauek basoen urritzea, aldapa gogorak, litologia eta klima euritsua dira hain zuzen ere. Faktore hauek uholde arriskuak sortzen dituzte ere, haran estuak izanda drainatze ahalmena urria baitute (Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, 2009).

3.1.2. KLIMA ETA URAREN ERAGINA PAISAIAN

Eskualdeko **klima**, Euskal Autonomia Erkidegoko isurialde atlantikoan aurkitzen den berbera da, hots, klima epel hezea edo atlantikoa. Tenperaturei dagokionez epela da eta batzuetan 14°C-koa da. Ozeano Atlantikoak eragin nabarmena du, hortaz, gaueko eta eguneko tenperatura-bitarteak edota uda eta negukoak ez dira oso nabarmenak.

Prezipitazioaren aldetik oso euritsua da, urteko batez besteko prezipitazioa 1200-2000 mm artean egonik. Euri-erregimen hori mendikateen orientazioak baldintzatzen du, eta bai itsasotik hurbil egoteak ere. Izan ere, lurraldea zeharkatzen duten aire masak mendikateekin topo egiterakoan euriteak sortzen baititu (Euskalmet, 2005).

Bi faktore hauen ondorioz, hau da, orografia malkartsu eta plubiositate handia dela eta, **ibai** ugari sortzen dira eskualdean, hauek haran txikiak sortuz eta eskualdea egituratuz. Haranetako klima oso hezea eta epela da, eta bertan udako lehorteak ia ez da antzematen.

Lehen aipatu bezala eskualdeko ibairik nagusienak Oria eta Urola dira, biek igarobide naturalen funtzioa betetzen dute eta Orion eta Zumaian itsasoratzen dira. Dena den, ibai hauek eraldatuak izan dira herri-gune inguruetan eta ondorioz ekosistemen andeatzea ekarri du (Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, 2009).

3.1.3. LURZORUAREN ERABILERAK

Goierriko lurren %2a egoitza eta jarduera ekonomikoetara zuzendua dago eta beste %2 azpiegiturek hartzen dute. Beraz, eskualdearen lur eremu nagusia **landa-eremuak** osatzen du, lurraldearen %95a hain zuzen ere. Eskualdeko lurzoruen %73 inguru **basogintzarako** erabiltzen da (honen %55 inguru koniferoz estalita dago, %1 eukaliptoz

eta gainontzeko %44a hostozabalez). Nekazaritza eta abeltzaintzarako aldiz lurren %19a erabiltzen da eta sastrakek %3 hartzen dute (Eusko Jaurlaritza, 2008). Azkenik, lurren %4a erabilera antzua duen lurzoru gisa sailkatua dago (eustat, 2011a).

Bestalde, Goierriko azaleraren %25 inguru **babes bereziko eremu** izendatu da, %4 ingurugiro hobekuntzarako lurzoru gisa sailkatua dago eta %3 uren babes eremu gisa («Udalplan 2011», d. g.).

Eskualdeko landa-eremutzat har daitekeen portzentajearen barnean, ingurugiro hobekuntzarako lurzoru gisa, uren babes eremurako, erabilera antzuko lurzorutzat eta erauzketarako sailkatutako lurzoruak hartzen duen azalera kontutan hartzen ez badugu, esan dezakegu, eskualdeko azaleraren **%63a behintzat lehenengo sektorearekin** erlazionatutako aktibitateek kudeatzen dutela («Udalplan 2011», d. g.).

3.1.4. LEHEN SEKTOREA ESKUALDEAN

Gaur egun, basogintza, nekazaritza eta abeltzaintza azpisektoreek eskualdearen **lanpostuen %2** sortzen dute gutxi gora behera, Gipuzkoako batez besteko tasaren gainetik dago beraz (Gipuzkoan %1a sortzen dute) (eustat, 2010). Dena den, urtez urte gutxiago dira sektore honetan lan egiten dutenak eta gehiago industrian edo hirugarren sektorean egiten dutenak.

Azken hamarkadetan, nekazaritzaren errentagarritasuna mantentzeko produkzioaren **intentsifikazioa** eman da. Ondorioz, garai bateko baserri eredia (10-20 abelburu zituen) desagertuz doa. Horren adibide garbia, azken 15 urteetan Gipuzkoan 2000 ukuilu gutxiago daudela da, hau da, zeudenen %31 gutxiago. Gainera, esne-behien sektorea, inbertsio eta lan-lotura handiagoa eskatzen duenez, neurri batean ordezkaturik izan da ardiak edo larre-behiak jarri dituzten baserriarekin. Horrela, abereak mantentzen dituzten baserrietan oso ohikoa bihurtu da larre-behiak izatea (581 ukuilu), eta esne-behiak aldiz horretarako aproposak diren lur eremuetara mugatu dira (Lazkao, Olaberria edo Idiazabal, esaterako).

Bestalde, intentsifikazio maila altuak, eskulan urritasuna eta baserriko lan baldintzen gogortzea dela eta, lehenengo sektorean aritzen zirenetako asko industria edo hirugarren sektoreko lan munduan barneratzea ekarri du. Ondorioz, badira ere nekazaritza edo abeltzaintza utzi dutenak eta lurri errentagarritasuna ateratzeko asmoz baso landaketak jarri dituztenak, landaketa hauek normalean **pinudiak** izanik (Goimen, 2002). Horrez gain, errentagarriak ez diren hainbat lan utzi dira ere, hala nola, landare-hesien eta landa-bideen zainketa.

Dedikazioari dagokionean, 90. hamarkadan baserri bizi zirenen kopurua %38 jaitsi da eta urtetik urtera beherago doa. Gainera, ez dago ia belaunaldi aldaketarik. Hau, sektorearen errentagarritasun falta, lan baldintzak, balorazio sozial ezak eta garapenerako estrategien aplikazio maila motelaren ondorioztat hartzen da.

Aipatu diren Goierriko lehenengo sektoreak dituen **factore kritikoez** gain, ondokoak ere identifikatu dira: nekazaritzarako lur eskasia, eraldaketa eta komertzializazio faseei aurre egiteko zailtasunak, jarduera eta eredu produzitzaile berrietara egokitzeko zailtasunak, gehiegizko espezializazioa, kanpo hornitzaileekiko menpekotasuna, baserriaren dibertsifikazioa ahalbidetzen duten azpiegituren gabezia, diru-laguntzekiko menpekotasuna eta erosleentzako bertako produktuekiko inplikazio eskasa.

Dena den, **aldeko factoreak** ere baditu, hala nola, baserriaren bokazioa, merkatuaren hurbiltasun geografikoa, azokak antolatzeko ohitura, artzaintzaren jarrera aktiboa eta transformazio prozesuen garapena, baserri gehienak jabegoan egotea, baserria mantendu beharrezko kontzientzia izatea sektorean, udalen inplikazioaren hastapenak, tradizio kulturalaren erreferentzia izatea, kalitatezko produktuen balorazio soziala, sektorearen eragina ingurumenaren zaintzan edo esku lana kontratatzeke joera handituz doala (Goimen, 2002).

3.1.5. LANDAREDIA

Goierri, kareharria agertzen den mendiguneetako **landaredi potentziala** pagadi azidofilo eta kaltzikola dira, hegoaldeko mendietan hariztia eta baso mistoa, eta ibaiertzetan, aldiz, haltzadi eta artadi kantauriarra (Eptisa Cinsa, 2010).

Aralar, Altzania, Urkila eta Aizkorri, kareharria agertzen den eskualdeko mendietan agertzen den landaredia batez ere **larreak** eta **pagadiak** dira. 600 metrotik behera, ordea, **hariztiak** aurkitzen dira pinudiekin tartekatutako eta behe haranetan, **pinudiak** eta **belardiak** dira nagusi («Gipuzkoako eskualdeak», s. f.).

Eskualdeko mendi garaienetan ez bezala, **haranetan** baso masak pixka bat hazi diren arren, ez da ia landaredi autoktonorik gelditzen. Ibar landarediari dagokionez, Oria eta Urolako iturburuetan eta goi ibilguan ez du ia giza presiorik jasan eta erreka txikiagoko ibar basoek ere ez (Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, 2009).

Beraz, Goierri, baso formazio ugariak **koniferoenak** dira basogintzarako erabilitako azaleraren %55a hartuz (hauen artean ugariena intsigni pinua da, eta eukalipto ere ageri da, nahiz eta oso modu bakanean). Lurren %43a bertako zuhaitz **hostozabalek** hartzen dute eta %2a aloktonoak diren baso hostozabalek. Bertako basoen artean hedatuenak

pagadiak dira eta ondotik baso mistoak. Dena den, erkameztiak, artadiak, gaztainadiak eta hariztiak ere aurki daitezke (Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, 2005).

3.1.6. POPULATZE-EREDUA ETA ERAIKUNTZA TRADIZIONALAREN EZAUGARRIAK

Populazioaren gehiengoa bailara hondoetan modu linealean kokatzen diren herri-guneetan biltzen da eta hauen artean **bi nukleo nagusi** bereiz daitezke: alde batetik, Beasain, Ordizia eta Lazkaoko herriek osatzen dutena eta, bestetik, Zumarraga, Urretxuk eta Legazpik osatzen dutena. Bi nukleo hauetan eskualdeko **populazioaren %80a** biltzen da. Azken hamarkadetakoko garapen ekonomikoa dela eta, bi nukleo nagusi hauen populazioaren dentsitate tasak modu nabarmenean igo dira (batez ere Zumarraga eta Urretxu inguruan) eta herri-guneak eratzun eredu handitzen ari dira (Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, 2009).

Gainontzeko populazioa **landa eremuan** bizi da (populazioaren %20); bertan aurki daitezken baserriek herri-gunearekiko antolakuntza eredu sakabanatua jarraitzen dute (Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, 2009). Bestalde, esan beharra dago landa-asentamenduak ugariak direla eskualdean, eta landa izaera nabarmenena dutenak Aizkorriren magalean eta Aralarko Parke Naturalaren inguruan kokatzen direnak dira (Goimen, 2002).

Goierriko **populazio tasan** fluktuazio nabarmenak egon dira. Hala ere, azken urteetan **biztanleen kopurua hazi** da eskualdean (%5 inguru). Igoera hau herri gehienetan nabarmena izan da, Olaberria eta Zumarragan izan ezik, hauetan hazkuntza tasak ez baitu %1a gainditu. Dena den, **landa eremuetan hazkuntza tasa negatiboa** izan da duela bost urte arte, beherakada nabarmenenak emanez Olaberrian, Itsasondon, Mutiloan, Ataunen eta Legorretan. Hala ere, lehen aipatu bezala, hauetan ere hazkuntza tasa positiboa izan da azken bost urteetan. Egoera hau eman ez den herri bakarra Gaintza izan da, honetan oraindik ere tasa negatiboa baita, bost urte hauetan populazioaren %4 inguru galdu delarik (eustat, 2011b).

Populazioa hazi arren, oraindik ere landa-eremuetatik hiriguneetarako **migratorako** joera dagoela antzematen da. Horrez gain, eskualde osoan populazioa **zahartze prozesuan** dago, eta eskualdeko tasa Gipuzkoakoarekin parekatua dagoen arren, landa-eremuetan altuagoa da, hau da, Alzaga, Arama, Gaintza, Itsasondo, Legorreta, Zaldibia, Idiazabal, Mutiloa, Segura, Zegama eta Zerainen (Goimen, 2002).

Eraikuntza ereduari dagokionez, gaur egun Goierriin ezagutzen den **baserri** edota eraikuntza tradizionalaren ereduaren aurretik beste batzuk izan ziren. Erdi aroan, esaterako

kanposantu eta baseliza inguruetan egindako zurezko txabolak izaten ziren bizileku, eta hauek hainbat aldiz hautsi eta berregiten ziren.

Gerora, XVI-XVII. mendeetan, zurezko eta harrizko materiala erabiliz egindako baserriak agertzen hasi ziren. Hauek, adreilu eta harlangaitzez betetako bilbadurazko saretak ageri ziren fatxadak zituzten. Etxebizitza hauek ez zuten barne paretarik, eta ohikoa zen upategia eta sagardoa egiteko dolareak izatea (Txelu Angoitia, d. g.).

Baserri edo eraikuntza tradizionalaren **ereduari** dagokionez, gaur egungo baserri eredu XVIII-XIX. mendean sortu zela esan daiteke. Honen material nagusia hareharria edo kareharria zen. Hala ere, harlana, haritz egurra eta teilak ere erabiltzen ziren. Ekialdera begira eraikitzen ziren eta bi edo hiru solairu izan ohi zituzten. Aurreko erdialdean familia bizi zen, atzealdean, suhesi batez banaturik korta eta sabaia kokatzen ziren (Txelu Angoitia, d. g.). Beste ezaugarri adierazgarriak, arkuak, bihitegi eta egurrezko tailak dira, hauek familiaren baliabide ekonomikoen erakusle gisa hartzen ziren (Ezquiaga Arquitectura Sociedad y Territorio S.L., 2002; Santana & Otero, 1993).

XVIII. eta XIX. mendeetan, jabeek baserri zaharrak zatitan banatzeko joera hartu zuten, bi etxebizitza sortuz batetik. Honen adierazle, maiz baserri baten alde bat konponduta eta bestea zaharkitua ikus daitekeela. Aldi berean, mende hauetan, zurak protagonismoa galdu zuen.

Aipatutakoaz gain, **bost baserri eredu** aurki daitezke, garaian garaiko egoerak zirela eta (Santana & Otero, 1993). Lehena, **berpizkunde garaiko** baserriek osatzen dute. Hauek, lau paretak harrizkoak dituzte eta beraien egitura dela eta antzinako dorretxeekin nahastu izan dira maiz. Baserri hauek ez dute ezkaratzik, ezta aterperik ere, eta leiho oso gutxi zituzten.

Bigarrena, **zutoizko zurajea** zuen baserri eredu da. Hauek, fatxadaren zurajearen zutoiak agerian dituzte. Horrez gain, beraien eraikuntza eta egurrezko zutoiak zirela eta garaiera altuagoa har zezaketen. Baserri mota hauetan, besteetan ez bezala, ez da pieza kurbaturik agertzen.

Hirugarren lekuan, **zurezko baserriak** daude. Hauetan, fatxada nagusiko zati bat egurrarekin itxita aurkitzen da. Ezkaratza dute eta atzeko eta alboko paretak harlanekoak dira.

Laugarrenak, **arkupedun ezkaratzeko** baserriak ditugu. Hauen jabeak nekazari dirudunak izaten ziren, eta arkuak honen erakusle izaten ziren. Baserri eredu hau, Iparraldeko hargintza ofizioaren garapenarekin lotuta dago eta garaiera altuagoa har zezakeen.

Azkenik, **ezkaratzik gabeko baserriak** aurkitzen dira. Hauek XIX. mendekoak dira. Materialaren kalitatea xumeagoa izan ohi zen. Leiho handiak dituzte eta tximiniazko sukaldea.

3.1.7. AZPIEGITURAK ESKUALDEAN

Eskualdearen orografia dela eta, herri-guneak eta azpiegitura gehienak **haran hondoetan** kokatzen dira **modu linealean**. Komunikabideei dagokionez, **N-I errepidea** eskualdeko eta Gipuzkoako komunikazio ardatz nagusienetako bat da, eta Oria haranetik igarotzen da. Urola inguruan aldiz, **G-631** da errepide nagusia.

Trenbideak ere garrantzi handia izan du eskualdearen egituratzean; Oriako haranetik sartzen da eta Urolan barrena Urretxu eta Zumarragara heltzen da, eta azkenik Irungo bidean Beasain eta Ordizia zeharkatzen ditu («Gipuzkoako eskualdeak», d. g.).

Eskualdea zeharkatzen duten **argindar sareak**, **gasbideak** eta **telekomunikaziorako sareak** aurkitzen dira (hauetariko asko estrategikoak dira Gipuzkoa mailan).

Azkenik, **urarekin** erlazio naturiko azpiegituren artean, saneamendu kolektoreak, araztegiak, ur biltegiak eta ur hornidurarako erabiltzen diren iturburuak topatzen dira (Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, 2009).

3.1.8. AZTARNA HISTORIKOAK LANDA-PAISAIETAN

Aralar eta Aizkorriko mendiguneetan **aztarna arkeologiko ugari** daude, eta bertan dolmenak, monolitoak, tumuluak, cromlech, kobazuloetan aurkitzen diren aztarnategiak zein erromatarren garaiko aztarnak (Auzagatzelu edo San Adriango galtzada) aurki daitezke (Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, 2009). Horrez gain, Goierri Gipuzkoan dagoen gune garrantzitsuenetarikoa da trikuharri kopuruari dagokionez, Joxean Mujika arkeologoaren arabera.

Bestalde, **Erdi Aroko aztarnak** ere aurki daitezke eskualdean, hala nola, dorretxeak, jauregiak, burdinolak, harresiak, errotak, zubiak eta abar. Eskualdean honen adibide garrantzitsuak dira Igartzako Erdi Aroko gune arkitektonikoa, Erdi Aroan sortutako Segura (Gipuzkoako Foru Aldundia, d. g.), edo erromatar garaiko meatze-ustiapenen arrastoak Ataunen, Idiazabalen eta Lazkaon.

Azkeneko aipamena **antzinako trenbideen** ibilbideei dagokie, hauek oraindik ere bertan baitiraute bide berde bihurtuta kasu batzuetan, baita XX. mendeko **meategien** aztarnei ere (M. Imaz, 2012).

3.2. Landa-paisaiaren eboluzio historikoan eragin duten faktoreak

Lehenengo sektoreak historian zehar jasan dituen aldaketak izan dute eragin gehien landa-eremuko paisaian. Goierri betidanik artzaintzarekin lotutako eskualdea izan da. Antzinaroan, artzaintza transhumantea zen nagusi eta urteetan zehar artzaintza izan zen biztanleen ogibide nagusietako bat. Erdi Aroan, abere ohikoena ardia zen oraindik ere, honen esnea, esnearen deribatuak eta artilea zirela eta. Dena den, idiak ere ohikoak ziren eta behiak ere aurkitzen ziren, nahiz eta hauek urriagoak izan mantentze gastuak zirela eta. Horrez gain, burdinolen aktibitatea garrantzitsua izan zen eskualdean ere.

Garai hartan, familiek ogibideak uztartzen zituzten, hau da, abeltzaintzari, nekazaritzari eta herri-aprobetxamenduari esker, familiako ekonomiak bizirik irauteko beharrezko produktuak lortzen zituzten. Halaber, batzuetan, unitate familiarreko kide batzuk denboraldi baterako Nafarroara edo Errioxara emigratzen zuten mahatsa edo zereala biltzera. Tokian ekoizten ez ziren osagaien hornikuntzaz arduratzen ziren pertsonak ere baziren (ardoa, olio, pataarra etab abar).

XV. mendearen amaieran eta, batez ere, **XVI. mendean**, Goierri gorakada sozial eta ekonomiko handia izan zuen. Honek, alde batetik, egurrezko baserriak harrizko baserriekin aldatzea ekarri zuen, lehen aipatu bezala. Bestetik, ordea, gorakada honek populazioaren igoera ekarri zuen eta ondorioz baita **ogiaren eskaria** ere. Beraz, ordura arte landa eremuak ziren lurretan, garia gehiago ereiten hasi zen. Garai horretan sagardoa baserrien ekoizpen nagusietako bat zen eta, beraz, baserri gehienek zituzten sagarrondoak beraien lurretan.

Garai hartan, beraz, baserriaren ekonomiari oso lotuak zeuden industriak bizkortu ziren, **errotak** esaterako. Horrez gain, **oihalgintza** eta **olak** ere indar ekonomiko garrantzitsuak ziren bere garaian, baita olek behar zituzten materialak lortzeko meategiak eta ikazkin lanak ere. Honek paisaian mosaiko bat sortuko luke, larreak, fruta-arbolak, soroak, baratzeak, burdinolentzako egurra ateratzeko baso hostozabal mugarratuak eta abar.

Dena den, olen, gariaren eta artilearen merkataritzaren gainbeherak, behe-noblezia landa-eremuetako baserrietara itzularazi zuen, eskualdean **landaratze prozesu** bat emanez.

Gara hartan iritsi zen Ameriketako artoa, "**artatxiki**" deitua. Hau segituan laborantzako oinarrietan sartu zen eta izugarri hedatu zen eskualdean. Dena den, kanpo merkaturik ez zegoenez oraindik, baserriak autokontsumorako eredu hertsia hartu zuen.

Ondoren, frantsesen aurkako gerren ondorioz sortutako kalteak ordaintzeko, udalek lursailak saldu zituzten hauek jabe aberatsen eskuetan geldituz, **desamortizazio** prozesuan. Hau, maiorazkoak izan zituen ondorioekin batera, gaur egun beste lurralde batzuekin alderatuta Euskal Autonomi Erkidegoan dagoen lur publiko eskasaren eragileetako bat da.

XIX. mendean, Goierriko aldaketen eragile nagusienetako bat sortu zen, **burdinaren eraldaketa industria modernoa** hain zuzen ere. Trenbide sarearen hedapenarekin, aurrerapen teknologikoak eta merkatu berrietara egokitu beharrak eragindako bultzadapean, Gipuzkoako lehen burdingintza modernoa sortu zen Beasainen. Lehen lantegi honek, burdingintzarako joera nabarmena zuen, egur-ikatzeko labe garaiekin. Joera honek bat egin zuen XX. mendean lantegia behin betiko bereiziko zuenarekin, hots, trenbiderako gaien eraikuntzarekin.

Poliki-poliki, lantegi horren hedaketari eta trenbidearen garrantziari esker, hazkunde ekonomikoa eta gizarte bizitzaren dinamizazioa sortu ziren Goierriin, herriko bizitzaren ikuspegi guztietan hezurmamituko zena («Beasaingo Udala», d. g.).

XX. mendearen erdialdean industrializazioaren mailarik gorena iritsi zen Goierriira, eta honek baserri asko hustea ekarri zuen. Ondorioz, lehen sektoreak behera egin zuen industrian lan egiten hasi ziren baserritarren bizi-baldintzen aldaketa eta denbora faltaren ondorio. Dena den, baserritar askok esku-lan eta denbora gutxiren truke lurrei etekin ekonomikoa bat ateratzen jarraitzeko helburuarekin hasiera batean garia eta patata ereiteari utzi zioten eta ondoren baita artoari ere, eta horren truke **negutegiak** eta **koniferoak** landatu zituzten beraien lurretan. Koniferoen formulak oraindik ere jarraitzen du, eta denbora pasa ahala areagotzen joan da (Txelu Angoitia, d. g.).

Azken 50 urteei dagokienez, aipatu behar da **herri-guneek** ez dutela orokorrean aldaketa nabarmenik erakutsi, nahiz eta batzuk beste batzuk baino gehiago hazi diren, gehienbat **komunikazio sarea** gertu zeukatenean. Horrez gain, landa eremuan **bidexka** ugari aurki zitezkeen, baita gurdibideak eta andabideak ere; gaur egun, ordea, bide horietako askok garai bateko garrantzi eta erabilera galdu dute, eta desagertzen joan dira (Kultur Saila, 2011). Azkeneko urteetan, Goierriko lehen sektoreak behera egiten jarraitu du, gaur egun oso gutxi izanik dedikazio osoa ustiapenari bideratua duten baserriak. Baserri mistoa, hau da, lehenengo sektoreko jardueraz gain beste aktibitate bat daukan baserria, berriz, ugaria da oraindik, baina hauetan dedikazioa gero eta txikiagoa da ere (Goimen, 2002).

4. ESKUALDEKO LANDA-PAISAIEN BALIO NABARMENAK IDENTIFIKATZEKO SAIOEN EMAITZAK

Metodologiaren atalean aipatu den bezala, landa paisaia esanguratsuenen balioak identifikatzeko **saio praktikoak** burutu dira. **Lehenengo saioan**, paisaiaren inguruko kontzeptu orokorrak landu eta fitxari buruzko argibideak eman dira. Ondoren, parte-hartzaile bakoitzak norberarentzat esanguratsu den paisaia aukeratu, eta lehen azaldutako behaketa **fitxaren** laguntzaz aukeratutako guneen analisia egin du, paisaiaren **balio** eta **zentzua** aztertzeke.

Beraz, txostenaren hasieran esan den bezala, proiektu honetan ez da eskualdeko paisaiaren azterketa integrala burutu, baizik eta eskualdetik proiektuan parte hartu duten eragileentzat garrantzitsuenak eta esanguratsuenak diren paisaiak soilik. Horri guztiari behaketa **eskualdeko eragileek** egin dutela gehitu behar zaio; horrela, **eskualdeko ikuspegitik** egindako azterketa bat izan dela bermatzen baita.

Bildutako paisaiaren behaketa fitxa guztiak eranskinak biltzen dituen argitalpenean jasota daude, eta atal honetan fitxetan biltzen diren datuen **sinthesia** egingo dugu.

4.1. Proiektuaren fase honetan eskualdean aztertutako landa paisaiak

Ondoren, Goierri aztertu diren **hamar** landa-paisaien behaketa **fitxetan** oinarritutako azalpen txiki bat aurkezten dugu paisaia bakoitzerako.

4.1.1. LEGORRETAKO PAISAIA

Fitxa honek Legorretako Zubiaurre auzotik Legorreta-zahar auzora doan ibilbidetik behatzen den paisaia jasotzen du. Bildutako datuen arabera, inguru honen **izaeraren erantzule nagusiak** landaredia, azpiegiturak eta paisaiak sortutako sentimenduak dira. Dena den, ura, erliebea eta eraikuntza eredu paisaia honen elementu nabarmen gisa identifikatu dira ere.

Landarediari dagokionez, bi mota nagusitzen dira inguruan: alde batetik, intxaurre eta sagarrondoak dituzten belardiak eta, bestetik, zuhaixkez osatutako basoak zein pinudiak. Lehenengoek, urteko sasoi ezberdinak direla eta, aldaketak erakusten dituzte. Bigarrenak, ordea, gero eta baso ilunagoak bihurtzen doaz urteak igaro ahala.

Aztertutako paisaian **nekazaritza** eta **abeltzaintza** ia desagertu dira, eta horren ondorioz belardietan landatutako fruta-arbolak edo pinudiak ugari dira. Bestalde, nahiz

inguruetan aztertzeko ez den ikusten, basa-animalien (orkatzen eta basurdeen) aleak edo euren arrastoak aurki daitezke. Hala ere, duela urte gutxi batzuk arte bertan lurra landu egiten zen. 30. hamarkadaren inguruan laborantza eta fruta-arbolak nagusi ziren bertan, baina ondoren nekazaritzak pisua galdu eta abeltzaintzak hartu zuen honen lekua, eta gaur egun, azken honek ere pisua galdu du.



Legorretako paisaia. Egilea: Agurtzane Allur.

Azpiegiturei dagokienean, egindako ibilbidean zehar errepidea, bidegorria, autobidea, trenbidea, ur araztegia, argindar sarea, abiadura handiko trenaren obrak eta paper fabrika zaharra ikusi, entzun, zein usaindu daitezke. Beraz, gizakiak eraikitako azpiegiturak pisu handia hartzen dute paisaian, honen izaera erabat eraginez. Egindako ibilbidea behatzailearen etxebizitzan bukatzen da, tokiko eraikuntza ezaugarriak mantentzen dituen baserria, hain zuzen ere.

Bestalde, hautatutakoa paisaia **malkartsua** da. Bertan **urak** duen presentzia esanguratsua da, euri ugari egiten duenean gune batzuk lokaztu egiten baitira, eta egindako bidetik Ori aibaia ikus baitaiteke. Horrez gain, Legorreta Goierriko zokoan kokatua dagoela esan daiteke; ondorioz, behe-lainoa maiz izaten da uda eta udaberrian, uraren presentzia areagotuz.


Azkenik, paisaiak behatzailearengan sortutako **sentimenduak** kontrajarriak direla esan beharra dago. Izan ere, alde batetik poza sentiarazten dio belardi eta fruta-arbolengatik inguruak baina, beste aldetik, paper fabrikak itxi izanak tristura eragiten dio, nahiz eta hau martxan zegoenean sortzen zizkion sentimenduak negatiboak izan. Gainera, behatzailea paraje hauetan hazi eta hezia izan da, baita bere arbasoak ere. Beraz lotura berezia du honekiko eta bertan lan egiteko izan dituzten arazo eta buruhausteek sortutako sentimenduak bizitzen ditu berriz ere bertan. Izan ere, etxean behiak eta soroak izatetik belardiak izatera pasa ziren, geroago nekazaritza eta abeltzaintza errentagarriak ez zirenez hauek utzi eta fruta-arbolak landatu zituzten, lan gutxien ematen zuen irtenbidea bilatuz. Gaur egun, inguru honek lasaitu eta biziberritu egiten du behatzailea, gainera, bertako lurak ematen

duena miretsi egiten du, nahiz eta haurtzaroan kontrako sentimenduak zituen, baserria ez baitzegoen modan garai hartan.

4.1.2. ITSASAGA IBILBIDEKO PAISAIA

Paisaia hau, Itsasondoko Itsasaga ibilbidetik hauteman daiteken inguruak osatzen du. Bertan, harriak, landarediak, aztarna historikoak eta paisaiak sortutako sentimenduak dira **ezaugarri nabarmenenak**. Hala ere, behatzaileak burututako azterketaren arabera, paisaiaren elementu ezberdinen pisua nahiko orekatua da.

Egindako ibilbidea antzinako **arbel harrobien ingurutik** igarotzen da. Hori dela eta, harri mota honen presentzia esanguratsua da paisaiara kolore grisak ekarriz. Arbela harrobi zulo inguruetan ikusgai egoteaz gain, bertako eraikinetan (borda, oilategi,



Txindokiren ikuspegia Itsasagatik. Egilea: Nikolas Zeberio.

etxola, harresi, galtzada edota zenbait etxeetako teilatuetan) ere antzematen da. Horrez gain, harrobi hauek dira hain zuzen ere inguruko **aztarna historiko** nabarmenetako batzuk, Otamendi eta Itsasaga baserrietako armarriekin batera. Gainera, azken hau dorretxea izan omen zen eta Itsasondoren izena bertatik datorrela diote zenbaitzuek. Aldi berean, baserri honen ondoan baseliza bat zegoela esaten da, eta bertan aurki daitezkeen gurutze eta ondoko lursailaren izena (Ermitaldea) dela eta, hala izan zitekeela pentsa daiteke.

Landarediari dagokionez, paisaiaren azalera handiena hartzen du. Honen baitan belardiak, sastrakadiak, pagadiak, hariztiak eta pinudiak azaltzen dira tartekaturik, nahiz eta azken hauek belardiak zirenetan ugaritzen joan direnez nagusituz joan diren. Aurkitzen den

landarediak lerro formak sortzen ditu inguruan, eta baso mota ezberdinak direla eta urtaroez sortutako aldaketek zuhaitzi mota bat bestetik erraz ezberdintzea ahalbidetzen dute. Horrez gain, udan eta udazkenean artalde handi bat egon ohi da paraje hauetan. Arrunta da ere behor, asto, behi eta ahuntz buru bakan batzuk ikustea, hauen funtzio nagusia etxe inguruak txukun mantentzea izanik, ziur aski.

Azkenik, behaketa fitxan adierazi bezala, paisaiak behatzailearengan **sentimendu** nahasiak sortzen ditu, hala nola, poza, tristura, haserre eta beldurra. Sentsazio guzti hauek, lekuak izan duen biziarekin erlazionaturik dago, izan ere, harrobietako lan baldintzak zirela eta bertako langile asko oso gazte hil ziren, tartean bere familia-kideak zirenak ere. Gainera, ingurua bere haurtzaroko bizipenekin loturik dago, honek pisu gehiago atxikiz parajeari. Horrez gain, paisaia hau benetako artelan ikaragarria iruditzen zaio aztertzaileari, eta artearekin jarraituz, aipatu beharra dago Itsasondo Xabier Zeberio bertsolariaren sorterrria dela ere. Bestalde, bertan antzeman daitezkeen bestelako elementuak, hezetasuna, azienden zintzarri hotsak zein Iturriaundiko uraren freskotasuna dira.

4.1.3. LAZKAOMENDIKO PAISAIA

Paisaia honen behaketa Ordizia-Lazkaomendi-Zaldibia ibilbidetik egin da, Ordiziako Altamira auzotik hain zuzen ere.

Paisaia honen **elementu nagusiak** erliebea, landaredia eta paisaiak sortutako sentimenduak dira, nahiz eta urak eta lehenengo sektoreak ekarpen nabarmena egiten dioten paisaiaren izaerari.

Paraje honetan kontraste nabariak sortzen dira **erliebeak** eta material geologikoak direla eta. Izan ere, Aralar eta Aizkorriren pareta bertikal harkaitzsuek forma geometrikoak, kolore ilun eta hotzak



Altamira auzoko paisaia. Egilea: Igor Zeberio.

dakartzate paisaiara eta Lazkaomendirenak, aldiz, formak leunagoak eta kolore bero eta biziagokoak dira. Altamira auzoko erliebea gorabeheratsua da, eta bertan agertzen den sakonuneak hau bitan banatzen du (Itxurreneko aldea eta Pipasekoa). Bertan aurki daitezkeen eraikinak mendi gainetan kokatzen dira, batez ere, nahiz eta maldetan eraikitako baserriak topa daitezken ere.

Bestalde, nabarmena da Oria, Estanda eta Amundarain **ibaien** presentzia, eta hauen inguruan kokatutako Beasain, Ordizia, Lazkao eta Zaldibiako herriak. Gainera, erreka hauek hornitzen errekasto ugari azaltzen dira inguruan. Horrez gain, Aralar eta Aizkorrin ematen diren elur prezipitazioek eta eurite ugariak uraren presentzia areagotzen dute, baita inguruak duen berde kolore bizia eragin ere.

Landaredia hautatutako paisaiaren oinarritzko elementua da. Belardiak, sastrakadiak eta basoak agertzen dira tartekaturik eta bakoitzak hartzen duen azalera besteenarekin nahiko orekatua dago. Ohikoena basoak eta sastrakadiak hurbil aurkitzea da, nahiz eta belardi batzuetan sastraka orban txikiak azaltzen diren.

Lehen sektorearen azpisektore indartsuena abeltzaintza da, arrunta izanik abelburuak belardietan ikustea (ardiak, behorrak, behiak edo ahuntzak). Aztergunean azaltzen diren ustiategiak tamaina handikoak dira, eta esne zein haragia ekoiztea helburu dutenak aurki daitezke. Nekazaritza, aldiz, etxe inguruan eta autokontsumora bideratutako ortu txikiak mugatzen da, etxerako behar ez dena inguruko azoketara eramaten delarik.

Paisaiak sortutako **sentimenduei** dagokionez, behatzaileak izan dezakeen estresa arintzen duten lasaitasuna eta naturaren handitasuna nabarmentzen dira. Aldi berean, sentimendu hauek hurbil eta urruneko sentsazio bezala jasotzen ditu aztertzaileak. Ibilbidean zehar txorien kantuak, euriak eragindako hezetasun eta abereen simaur usaina antzeman daitezke, honek guztiak alaitasuna zein barneko bakea sortarazten du, eta naturaren parte sentiarazi. Paisaiaren gainaldetik ikusten diren Aizkorri eta Txindokiren pareta harkaiztsuek, aldiz, txiki izatearen sentimendua eragin dezakete. Bestalde, behatzaileak haurtzaroarekin eta goxotasunarekin erlazionatzen du auzoa eta ibilbidea. Hala ere, kezkak sortzen zaizkio paisaian aurki daitezkeen mugari eta bide zaharren egoera dela eta, bere ustez hauek zaindu ezean betirako gal baitaitezke. Hau guztiaz gain, esan beharra dago auzo hau oso ospetsua egin zela Lazkao Txiki bertsoariak kontatutako pasarte ugari bertan gertatutakoak direlako; hala ere, behatzaileak paisaia Mikel Laboaren "Gure bazterrak" abestiarekin erlazionatzen du.

4.1.4. ARRIARANGO PAISAIA

Bildutako datuak Beasaingo Arriaran auzotik antzeman daitezkeen paisaiarenak dira. Auzoa Beasaingo birika berdea bezala izenda daiteke eta, ondorioz, bertako herritar askorentzako pasealeku nagusia da. Behatzaileen arabera, landaredia eta paisaiak sortutako sentimenduak dira inguruko **elementu nagusienak**, nahiz eta urak, erliebeak, populatze ereduak eta azpiegiturek ere eragin nabarmena izan honetan.

Landarediari dagokionez, egindako ibilbidean zehar sastrakadia, belardia eta pinudiak ikus daitezke. Hala ere, azken hauek dira azalera gehien hartzen dutenak eta bigarrenen presentzia normalean azidenei loturik dago. Hala ere, lehen soroek estaltzen zituzten gaur egun pinudiek zein belardiek hartzen dituzten lursailtako batzuk. Bestalde, bi landare formazio hauen arteko mugek lerro zuzenak dakartzate paisaiara.



Arriaran auzuneko paisaia. Egilea: Mikel Mendizabal.

Uraren presentzia ingurua zeharkatzen duen erreka, urtegiak eta zelaiaren berdetasunak uzten dute agerian. Gainera, auzoko baserriek euren ur biltegi propioak dituzte, eta bertako urtegia Goierriko herri handienen baliabidea da. Horrez gain, bailarak ipar-hegoalde norabidea dauka eta honek, zein goizean askotan sortzen den behe-lainoak, are nabarmenago bihurtzen du elementu honek paisaian hartzen duen pisua.

Erliebeari dagokionez, esan daiteke paisaiaren forma nagusienak lurrari dagozkiola eta hauek harmoniaz nahasten direla. Eraikin gehienak gunee lauetan kokatzen dira, bailara hondeetan, hain zuzen ere. Hala ere, mendi hegoaldean eraikitako baserriak aurkitzen dira ere, nahiz eta hauetako gehienak hutsik egon.

Bertan ikus daitezkeen **eraikinak** bi garaietakoak dira: alde batetik, tokiko materialak eta eraikuntza ereduak mantendu dituztenak daude eta, bestetik, 60ko hamarkadaren inguruan eraikitakoak, harmonia handirik mantendu gabe eraikitakoak. Auzoko **populazioan**

emandako beste fenomeno bat, baserritarren herriratzea eta belaunaldi gazteen hirietarako migrazioa izan dira; ondorioz, gaur egun auzoaren erdigunea ere husten ari da.

Aipatutako urtegiak gain, momentuan obran dauden abiadura handiko trenarentzako **azpiegiturak** antzematen dira paisaiaren hegoaldean, behe-rago Sasietako Mankomunitateak kudeatzen duen zabortegia dago, eta urtegitik gertu meategi eta arbel fabrika bana. Esan daiteke urtegia eta zabortegia ingurura integratuagoak daudela aipatutako garraiobidearentzat eraikitzen ari diren zubia baino, azken honek izugarritzko inpaktua sortzen baitu paisaian, baita meategiak eta fabrikak ere.

Azkenik, paisaiak sortutako **sentimenduei** dagokionez, behatzailearengan sentsazio kontrajarriak sortzen ditu aztertutako paisaiak (itxia vs. irekia, zaharra vs. berria, alai vs. tristea, lasaia vs. zaratatsua eta abar). Bestalde, bertan belar berriaren zein lokatzaren usainak antzeman daitezke, baita hego-haizeak jotzen duenean Sasietako zabortegiko kiratsa ere. Entzumenaz, aldiz, zarata nabarmentzen da, nahiz eta oraindik ere leku lasai gisa har daitezkeen. Aldi berean, behatzailea bertakoa da sortzez eta inguruak amuarrainak eskuz hartzen zituzteneko garaiak oroitarazten dizkio, baita pinazi zein Errezil sagarren zaporeak burura ekarri ere. Aztertzailearen jaioleku izateak, pertsona honen pertzepzioan eragiten duen magikotasun berezia ematen dio paisaiari. Gainera, lekuan tenplarioen eraikin bat omen zegoen, baita ermita zein eliza bat ere, eta guzti hauek poste eta txirriekin eraikiak izan ziren bertako materialak erabiliz.

4.1.5. AIZPEA AUZOKO PAISAIA

Zeraingo Aizpea auzotik behatutako paisaiaren datuak biltzen ditu fitxa honek. Hauen arabera, erliebea eta landaredia dira inguru honen **elementu nagusiak**, nahiz eta lehenengo sektoreak, populatze ereduak, azpiegiturek eta elementu historikoek pisu nabarmena hartzen duten ere.

Paisaiaren forma nagusienak **erliebeak** sortzen ditu baita zeru eta lurrazalaren arteko mugak ere. Orokorrean, forma hauek borobilduak eta leunak dira, Aizkorriko tontor harkaitzsuak sortzen dituenak salbuespenak izanik (kontrasteak sortuz paisaian, bai formetan zein kolorean). Bestalde, Aizperreka igarotzen da ingurutik eta toponimo ezberdinak agertzen dira honekin erlazioz.

Erliebeak garrantzia izan arren, **landarediak** estaltzen du inguruaren azalerarik handiena. Honen baitan zuhaitzak eta zelaiak dira nagusi, nahiz lehendabizikoak diren ugariago. Aizpea mendian landare formazio ezberdinen arteko mugek oso forma irregularrak dakartzate paisaiara, eta Oamendikoek, aldiz, forma zuzenak, bertan pinudiak nagusitzen baitira. Horrez gain, batez ere azken mendi honetan ugaritzen dira abeltzaintzarako erabiltzen diren

lurrak, nahiz eta baso landaketak nagusi izaten jarraitzen duten. Aipatzekoa da azken urteetan Zeraingo herria bertako hostozabalen azalera berreskuratzeko ahaleginetan dabilela, bertako espezieekin landaketak eginez.

Populatze-ereduari dagokionez, esan beharra dago aurkitzen diren eraikin bakanak hegaletan eraikitakoak direla, eta hauek lekuan zegoen garai bateko industria zein paisaian emandako ustiatzarekin erlazioz daude. Hau da, bertan labeak eta Aizpitta etxeak aurki daitezke. Hauekin batera lehenengo trenbide zaharra zena ere antzeman daiteke eta nahiz eta behaketa egin den lekutik ez ikusi, garai batean argi indarra sortzeko erabiltzen zen errota dago auzoan, inguruko **elementu historikoen** multzoa osatuz. Esan beharra dago Zeraingo eta inguruko lurraldearentzat paraje hauek oso garrantzitsuak izan zirela aurreko garaietan, bertatik burdin minerala ateratzen baitzen.



Aizpea auzoko paisaia. Egilea: Miren Makatzaga eta Maite Sagaseta.

Azkenik, paisaiak sortutako **sentimenduek** hartzen duten pisua baxua da behatzailearen ustez. Dena den, paraje honek lasaitasun sentsazioa transmititzen duela adierazten du, eta Oamendiko gaina ikusteak Goierriko landa-paisaiak gogorarazten dizkio aipatutako sentsazioa areagotuz. Paisaiak lehen bertan biziko zen egoera zein bizimodua imajinatzen darama behatzailea. Bestalde, labeak lehenengo aldiz behatzeak bisitariengan zurrara sortarazi ohi duela aipatzen du.

4.1.6. SAN MIGEL BASELIZAREN INGURUKO PAISAIA

Fitxa honek Legazpiko Telleriarte auzoan dagoen San Migel elizaren ingurutik antzeman daitezkeen paisaiaren behaketa datuak biltzen ditu. Honen arabera, bertako **elementu nagusienak** erliebea, landaredia, lehenengo sektorea, populatze ereduak, azpiegitura eta elementu historikoak dira, nahiz eta paisaiak sortutako sentimenduek ere pisu nabarmena hartzen duten paisaian.

Baseliza Korosti mendiko hego magalaren behealdean kokatzen da, izen bereko errearen ahurraren ondoan. **Erliebearn** konfigurazioa dela eta, baselizatik bailararen ikuspegi osoa lortzen da. Bertatik Mirandaola eta Urola ibaiaren alboan kokatutako baserriak (mendi hegal zein bailara hondoan eraikitakoak) ere beha daitezke. Oro har, mendiek paisaiara dakartzaten formak borobilak dira, nahiz eta Aizkorriko gailur harkaitzsuak forma zuzenak sortzen dituen, kontraste nabariak eraginez, bai forma, zein kolorearen aldetik. Mendietako aldapak arinago egiteko garai batean egindako harrizko terrazak beha daitezke oraindik ere, eta baselizaren inguruan kokatzen diren belardiak sesbra kurbek antolatua direla esan daiteke.

Landarediarekin jarraituz, aipatutako belardietan fruta-arbolak daudela aipatu behar



San Migel baselizaren inguruko paisaia. Egilea: Mikel Alberdi.

da, eta zati txiki bat soro bihurtu dela. Bertan ardiak eta zaldiak ikus daitezke, nahiz eta hauek izatearen helburu bakarra lurra txukun mantentzea den. Inguruan bertako zuhaitz hostogalkorrek osatzen duten baso txiki bat dago. Gainera, lursailen artean zuhaitz eta zuhaixkak kokatzen dira ilaran, heskaiak sortuz. Hala ere, aztertutako paisaian pinudia da azalera gehien hartzen duen landaredi mota; hauek belardiak ordezkatzeko joan dira poliki-poliki, eta gaur egun hauetako batzuen oihanpean sastraka garatzen ari dela beha daiteke.

Beraz, basogintza da **lehen sektorearen** barruan azpisektore indartsuena, nahiz eta paraje hauetan negutegiak, baserri ondoko baratzak eta animaliak babesteko etxolak ere aurki daitezkeen.

Eraikitze ereduari dagokionez, bi mota aurki daitezke: alde batetik, bertako ezaugarriak eta paisaiarekiko eskala mantenduz eraikitako eraikinak eta, bestetik, industrialdean eraikitakoak, hauek ez baitituzte bertako materialik erabili, eta ez dituzte tokiko ezaugarriak eta paisaiarekiko eskala mantendu.

Azpiegiturei dagokienez, baselizatik Legazpi eta Oñati lotzen dituen errepidea, trenbidea, industria, Lenbur-en eraikina, Mirandaolako parkea, hutsik dagoen

hormigoizko txabola bat eta eraikitzen ari diren negutegi bat ikusten dira, baita hauetako batzuk sortzen dituzten zaratak antzeman ere. Eraikin guzti hauek ez dira ingurura ongi integratzen eta inpaktu nabarmena sortzen dute paisaia ikusmenaren bidez hautematean.

Hala ere, badaude beste azpiegitura batzuk paisaian ongi integratu eta **azterna historikotzat** hartzen direnak, hala nola, San Migel baseliza, Legazpiko lehenengo eliza izan zena eta egoera onean mantendu dena. Horrez gain, antzinako garaietan ura bideratzeko eraiki ziren harrizko kanalak antzematen dira, nahiz eta hauen egoera egokia ez izan. Aztarnen artean lehen aipatutako harrizko terrazak aurkitzen dira, baita harrizko hesiak, Mirandaolako multzoa eta parkea, baita baselizaren izen bereko baserriko karobia ere. Gainera, gune hau historikoki auzokoen bilgune izan da eta mugarririk da bertako herritarrentzat. Honi guztiari Euskal Herriko baselizak ospakizun paganoak egiten ziren lekuetan eraiki zirela esaten dela gehitu behar zaio, beraz, gune hau baseliza eraiki baino lehenago ere paisaiaren mugarririk izan zitekeenaren aukera badago.

Azkenik, **sentsazio** eta **sentipenei** buruzko atalean aztergunea leku goxo, eguzkitsu, epel eta atsegin bezala definitu du behatzaileak, nahiz eta errepideak eta industrialdeak sortutako zaratak bertara iristen diren. Bestalde, paisaia honek aztertzaileari haurtzaroko bizipenak oroitarazten dizkio, hori dela eta lotura berezia sortuz inguruarekiko. Bestalde, aipatu behar da herrian ematen ari den urbanizazio prozesua bertaraino iristeak pertsona hau kezkatu egiten duela.

4.1.7. TXIRRIBISOTO IBILBIDETIK BEHA DAITEKEEN PAISAIA

Ibilbide hau Aramako Artxoa baserritik abiatuta, Baso Beltz eta Goiko-Etxebarri baserritik igaro ondoren Artxoa baserrira berriz iristen da. Bertatik antzematen den paisaiaren azterketa datuen arabera, lehenengo sektorea eta azpiegiturak dira bertako **elementu nagusiak**, nahiz eta klimak, urak, landareak eta elementu historikoen eragin nabarmena duten ere.

Artxoa baserria muino batean kokatzen da eta bertan haizearen eragina nabarmena izateak gunea haize toki bezala definitzeraz darama. Ibilbidean aurrera eginda **uraren** presentzia areagotzen da, azaltzen den putzua, erreka eta handiagoa den erreka bat dela eta.

Landarediari dagokionez, belardiak topatzen dira bidearen hasieran, ondorioz **lehen sektoreko** jardueren artean abeltzaintzaren jarduna nabarmenena izanik. Gerora basoan barneratzen da ibilbidea, horrela abeltzaintzaren lekukoa basogintzak hartuz.

Azpiegiturei dagokionez, argindar sareak aurki daitezke Artxoa baserriaren inguruan. Hala ere, industria, trenbidea eta errepideak ikusi eta antzeman daitezke bide osoan zehar. **Eraikuntzen** aldetik, azaltzen diren bi baserriak dira aipagarrienak eta hauek bertako

materialak dituzte, eta tokiko eraikitze eredua jarraitu dute ere. Goiko-Etxebarri baserriaren ondoan karobi bat dago eta ibilbidean zehar mugarriak zein bide zaharrak topatzen dira. Azkeneko hiru elementu hauek inguruko **aztarna historikotzat** hartzen dira.

Azkenik, esan beharra dago, behatzaileak paisaiak sortutako **sentimenduei** emandako pisua baxua izan dela. Hala ere, aztertzaileari haurtzaroko oroitzapenak dakartzkio burura eta bere arbasoekin lotzen du parajea. Horrez gain, lekuan baso usaina antzeman daiteke, baita haize eta uso pasek sortutako soinuak ere.

4.1.8. IRIMO INGURUKO PAISAIA

Behatutako paisaia Urretxutik Irimorantz begiratuta antzeman daitekeena da. Bertan erliebea, landaredia eta lehenengo sektorea dira **elementu nagusienak**, nahiz eta klimak, urak, populatze ereduak, elementu historikoeak eta inguruak sortutako sentimenduek garrantzi nabarmena duten ere.

Goierriko **klimak** ezaugarritzen du ingurua. Hau da, negu luze, hotz eta elurtsuak izan ohi dira eta udak epelak eta beroaldi bakar batzuekin. Udaberriak, aldiz, motzak dira eta udazkenak koloretsuak. Ipar-ekialdeko haizea da nagusi eta bertako landarediak adierazten duen bezala gogor astintzen du. **Uraren** presentzia ere begi bistakoa da paraje hauetan,



Irimo eta Urretxuko ikuspegia. Iturria: Jose Luis Garmendia.

Irimoren bizkarrean Deba eta Urola ibai arroak kokatzen baitira, eta inguruan metal-ura isurtzen duten iturriak aurkitzen dira.

Errekekin batera, **erliebe** aldapatsu eta borobilak egituratzen du paisaia. Atze-oihala osatzen mendi tontorren pareta bertikalak azaltzen dira, Irimo mendiaren magala lehenengo planoan geldituz. Herria bailararen sakonunetik mendi honen magalerantz hazi da. Esan beharra dago Urretxu bere garaian hiribildu gisa sortu zela eta ondoren mendebalderantz doan Legazpiko galtzada eta ibai ertzari jarraituz garatzen joan dela. Bergarara doan bidearen inguruan, aldiz, baselizak, jauregiak eta baserriak eraiki ziren eta 60ko hamarkadan, ordea, material berriekin egindako etxebizitzak. Hori dela eta, bi **eraikin** mota bereiz daitezke herriko lurretan: garai batean bertako materialekin altxatu ziren eraikuntza tradizionalak, eta garai berriagoetan eraikitakoak.

Landarediak paisaiaren gehiengoa estaltzen du eta honen baitan zelaiak eta basoak dira nagusi. Goialdean bigarrenak azaltzen dira (pinudia izanik ugari), behe aldean belardiak, eta erdialdean biak tartekatuta egiten dira. Urtaroek hauen baitan sortzen dituzten aldaketek, inguru ezberdinak sortzen dituzten koloreen trantsizioak direla eta. Horrez gain, nahiz eta soro gehienak zelai bihurtu diren, oraindik ere hauetako batzuk azaltzen dira, baita baratzak ere baserrien inguruan. Hori dela eta, **lehen sektoreko** hiru azpisektoreek sortutako paisaia dela esan daiteke.

Elementu historikoei dagokienez, Bergara, Azkoitia eta Legazpiko galtzaden elkargunea zela aipatu beharra dago. Horrez gain, Urretxu hiribildu izatea, bertatik igarotzen den Frantziako Errege Bidea, aurki daitezkeen eliza, jauregi zein elur zuloak, edo Santa Barbarak gordetzen duen historia, bertan aurki daitezkeen aztarna historikoen lagin bat baino ez dira. Hori dela eta, inguruan elementu hauek hartzen duten pisua agerikoa da.

Azkenik, esan beharra dago paisaia honek bizitzarekin lotura duten hiru **sentsazio** mota ezberdin dakarzkia burura behatzaileei. Alde batetik, atzeko mendiek eragindako muga, mundu zabal ezezaguna, atzerria eta beldurraren sentimenduak sortzen dizkiete. Bestetik, naturaren edertasuna, bizitzaren sakontasuna zein honek dakarren ardura, bakea, lasaitasuna, ilusioa eta ingurua euren sentitzearen sentsazioak sortzen dizkie. Azkenik, kaleko bizia, harremanak, familia, bizipoza eta bizitzaren zailtasuna dakarzkie burura. Horrez gain, haurrak zirenez gero miretsi izan dute Irimok sortzen zuen paisaia, nahiz eta gaur egun hau erabat aldatu den, eta horrek pena pixka bat ere sortarazten dien.

4.1.9. EZKIO-ITSASO BEHEKO HARANAREN PAISAIA

Behaketa honek Ezkio-Itsasoko beheko haranean hauteman daitezkeen paisaiaren ezaugarriak biltzen ditu.

Inguru honetan **azpiegitura** ezberdinen eragina oso nabarmena da, eta paraje honen izaera erabat baldintzatzen du. Bertan, abiadura handiko trenaren obrak, autobidea, argindarreko posteak, zentralak, industria poligonoak eta abar beha daitezke. Gainera, argindarraren talkek eragindako zarata bortitzak datozkio behatzaileari burura eta sentimendu beldurgarria sortzen zutela adierazten du. Bestalde, aukeratutako ingurunean kea antzeman daiteke, baita metal usaina ere. Honekin loturik, aipatu behar da Euskadiko inguru kutsatuenetariko bat bezala izendatua izan dela, aztertzaileak azaltzen duenaren arabera. Beraz, inguru hau gune kaotiko gisa definitu da, azpiegitura bat bestearen gainetik eraiki denaren sentsazioa ematen baitu, inolako ordenarik jarraitu gabe. Hori dela eta, gizakiok naturan aldaketak eragiteko dugun gaitasunaz ohartarazteko bakarrik gomendatuko luke ingurua bisitatzera behatzaileak.

Bestalde, badaude paisaiaren **bestelako elementu aipagarri batzuk** ere, hala nola, maiz egoten den behe-lainoa, errekaen presentzia edo antzeman daitekeen hezetasuna, edo landaredia. Azken honi dagokionez, basoak estaltzen du azalera gehiena, nahiz eta belardiak ere topatzen diren. Duela gutxi hesi biziak berreskuratzen hasi dira inguru honetan.

Azkenik, hautatutako paisaian azaltzen diren **elementu historikoei** aipu txiki bat egin zaio. Izan ere, bertan burdinolak zein errotak aurki daitezke. Hala ere, berriki errota bat bota eta gurutze bat mugitu egin dute abiadura handiko trenaren obrak direla eta. Beraz, paisaia hau Ezkio-Itsasoko **puntu beltz** gisa defini zitekeen behatzailearen iritziz.

4.1.10. ZUMARRAGAKO BELOKI BIDETIK HAUTEMANDAKO PAISAIA

Paisaia hau, Zumarragako Beloki mendiaren ingurutik igarotzen den ibilbidetik aztertu da. Bidean zehar eskalaren (ikuspegi mugatu eta goxoa zein panoramikoak tartekatzen dira) eta paisaia motaren aldaketak antzeman daitezke. Inguruan kokatzen den Antio baselizatik gertu interpretazio gune bat eraikitzen ari dira eta bertan ibilbide honi buruzko panelak jarriko dira. Jasotako datuen arabera, paisaiaren izaeran **eragin nagusia** duten elementuak erliebea, landaredia eta lehenengo sektorea dira. Hala ere, klimak eta urak, populatze ereduak, elementu historiak eta paisaiak sortutako sentimenduek pisu nabarmena dute eremuaren nortasunean.

Ibilbidea Beloki mendiaren magalean dago eta **uraren** presentzia euriarekin erlazionatua dago, menditik behera sortzen diren ur arrapaladak direla eta. Gainera, ingurua haizetsua eta lainotsua da, honek paisaiaren izaeran eragin nabarmena izanik.

Erliebeak forma borobildu eta leunak ditu oro har eta Irimo, Aizkorri, Aralar, Ezkio-Itsasoko bailara eta Izazpi-Oleta mendi lerroaren presentzia nabarmentzen dira. Mendi lerro

honen magalean kokatzen dira eremuaren nortasunaren parte diren baserri gehienak. Inguru honetako **landarediaren** artean belardiak, sastrakak eta basoak azaltzen dira. Zuhaitzen gehiengoak pinudi landaketak dira, nahiz eta hostozabalak ere tarteka agertu. Belardiak mendi magaletako baserri ondoetan antolatzen dira. Sastrakak, aldiz, mendien goialdean hedatzen dira.


Zumarragako herria Urola ibaiaren ertzean kokatzen da, eta bertatik landa-eremura eta honetatik mendi alderantz paisaia nola aldatzen den antzeman daiteke. Lehen aipatu bezala, landa-eremuan baserriak azaltzen dira, eta horien inguruan zelaia eta soroak. Gorantz joan ahala basoen presentzia nabarmena egiten da, Beloki ibilbidearen gehiengoan zuhaitz eta zelaien artean igaroz.

Bidea altuera garaia gotara bidea heltzen den heinean, sastrakek hartu dituzten belardiak areagotuz doaz.

Eraikinei dagokionez, tipologia tradizionala mantentzen dute oro har, nahiz eta kasu batzuetan abeltzaintzarekin edo beste lanbide batzuekin erlazionatutako tipologia ezberdina duten eraikuntza berriak eraiki diren.

Horrez gain, **aztarna arkeologikoen** presentzia ere azpimarragarria da, Izazpi-Oleta mendilerroan katalogatutako monumentu megalitikoak baitaude, eta Beloki mendiaren atzean, erromatarren garaiko hilobi bat. Horrez gain, inguruko mendietan aztarna arkeologiko gehiago daude, eta aipatutako Antioko baseliza ere aipatu beharra dago, garrantzi estetiko eta historiko nabarmena duena.

Azkenik, paisaiak behatzailearengan sortutako **sentimenduen** artean landa-eremuak sortutako lasaitasuna dago. Zumarragako inguru hau aztertu duen pertsonak herriko bizimodu azkarretik, zaratatik eta kutsaduratik aldentzen duela adierazten du. Gainera, ibilbidea herritik hurbil dago, denbora gutxian bertan egoteko aukera izanik. Horrez gain,



Beloki ibilbidetik beha daitekeen paisaia. Egilea: Bitor Areizaga.

naturarekin erlazioatutako usaiak antzeman daitezke ibilbidean, eta honek guztiak behatzailearengan haurtzaroko oroitzapenak eta askatasunaren sentsazioa sortzen ditu.

4.1.11. PARTAIDETZAREN BIDEZ OSATUTAKO FITXEN EDUKIEN ANALISIA

Lehenik eta behin, behaketa ezberdinetatik lortutako datuak alderatuz, esan daiteke Goierri aztertu diren landa-paisaietan pisu edo garrantzi gehien hartzen duten elementuak **erliebea** eta **landaredia** direla. Beraz, eskualdeko landa-paisaien izaera mendigune eta bailara sakonek ezaugarritzen dute, baita atze-oihala osatzen agertzen diren mendien gailurrek ere.

Orokorrean, **orografiak** forma leun eta borobilak dakartzat ingurura, nahiz eta tarteka agertzen diren mendi harkaitzuenak zorrotzak eta geometrikoagoak izan, hauek azaltzen direnean kontraste nabariak sortuz inguruan.

Landarediari dagokionez, honek paisaiaren azalera handiena hartzen du eta honen baitan belardiak zein pinudiak dira nagusi, hauen mugek forma zuzenak sortuz. Nahiz eta bien presentzia nahiko orekatua dela esan daitekeen, baso landaketek lur zati handiagoa estaltzen dute; ondorioz, urtaroen aldaketak ez dira gehiegi antzematen inguruko landaretzan. Hala ere, belardi eta pinudiez gain, hostozabalen basoak, sastrakadiak, fruta-arbolak, baratzeak zein soroak agertzen dira.

Bi elementu hauei oso gertutik, lehenengo sektoreak eta paisaiak sortutako sentimenduek inguruan hartzen duten garrantziak jarraitzen diete. **Lehenengo sektorearen** alor indartuena basogintza da, horren adibide pinudiek estaltzen duten azalera izanik. Dena den, belardiak mantentzen dituzten azienden presentziak abeltzaintzaren azpisektorearen jarduna agerian uzten du. Azken honen baitan, egoera ezberdinak topa daitezke; izan ere, gunee batzuetan azienda bakan batzuk baino ez dira azaltzen baserri ingurua txukun mantentzeko helburuarekin eta beste gunee batzuetan, aldiz, abelburu kopuru handiagoak azaltzen dira, hauen helburua ekoizkina lortzea izanik. Lehen aipatu bezala, nekazaritzaren aztarna batzuk ere badaude eskualdean, baratzeak normalean etxe inguruetara mugatuz.

Bestalde, aurreko ataletan azaldu bezala, paisaiak sortutako **sentimenak** asko eta anitzak dira. Behin baino gehiagotan azaldu da poza, tristura, haurtzaroko bizipenen oroitzapena edo behatzaileen arbasoen bizimodua imajinatzea eragiten duela paisaiak. Gainera, lasaitasuna transmititzen die behatzaileei; zentzu horretan, hiriak zein egunerokotasunak sortutako estresa arintzeko tresna bezala definitu da ere.

Ondoren, bigarren plano batean, baina pisu nabarmenarekin oraindik ere, **klima** eta ura, **azpiegiturak** eta **elementu historikoak** aurkitzen dira. Lehenengoaren baitan, Goierri aurki daitezken erreka zein erreka ugariak dira, baita lainoa eta hezetasuna

ere. Bigarrenaren kasuan, hau da, paisaian agertzen diren gizakiak egindako egiturak, gisa askotarikoak dira, behatzaileek argindar sareak, trenbideak, abiadura handiko trenaren obrak, errepideak eta urari loturiko egiturak maiz aipatuz. Ondare historikoaren barnean baserriak, karobiak, galtzadak eta mugarriak dira gehien aipatutakoak, nahiz eta eskualdean eman zen mineralen erauzketarekin erlazioaturiko azpiegiturak ere agertzen diren.

Azkenik, esan beharra dago aztertutako paisaien gehiengoak **ehundura** pikorduna ageri dutela. Aldi berean, aniztasuna eta kolore ugarien presentzia gailendu da. Aukeratutako paisaia gehienek ikuspegia zabala da, eta bertan lasaitasuna eta segurtasuna dira nagusi.

4.2. Partaidetza saioetan identifikatutako balio eta ezaugarriak

Lehenago aipatu den moduan, eskualdeko bigarren partaidetza saioan proiektuan parte hartu duten pertsonak, osatu dituzten **fitxetan** oinarrituz, informazioa elkartrukatu dute bakoitzak aztertutako paisaien inguruan, guztien artean bildutako informaziotik abiatuta eskualdeko landa-paisaien **balioak** identifikatu eta adostu dituzte, lehen sektoreak paisaia horiei egindako ekarpenaren inguruan **hausnartu** dute, eta eskualdeko baserri-paisaiak inguruko eskualdeetakoetatik desberdintzen dituzten **ezaugarriak** identifikatu dituzte. Etabaida horien guztien berri ematen da atal honetan.

4.2.1. ESKUALDEKO LANDA-PAISAIEN BALIO NABARMENENAK

Eskualdearen paisaiaren zatirik handiena **landa-paisaia** da, eta berau gainontzeko eskualdeetakoetatik bereizten duten **elementu nabarmenenak** lehenengo sektoreak egindako lanarekin, honek landutako landarediak sortutako paisaiekin, lurraren emankortasuna zein honekiko dagoen loturarekin, harriek (marga pizarrosoa) eta erliebeak paisaiari ematen dioten nortasunarekin, elementu ezberdinek sortutako kontrasteekin, natur baliabideekin, landa-paisaiek gordetzen duten historiarekin, eskualdeko kultura eta hizkuntzarekin, zein paisaiak eragindako sentimenduekin erlazioatu dira.

Erliebe aldapatsua dela eta, eskualdeko lurra lantzeko erosoak eta aproposenak ez izan arren, batez ere nekazaritzarako (nahiz eta lur emankortzat hartzen diren), **baserriarrek lanerako prestutasuna** eta **lurrarekiko lotura** zein ardura erakusten dute. Aldi berean sentimendu hori transmititu diote ondorengo belaunaldiei. Gainera, hauen jardunari esker landa-eremuaren elementu garrantzitsu diren baso, soro zein belardiak landu eta txukun mantentzen dira eta guzti honek, nortasun handiko paisaia du emaitzat. Honek adibide adierazgarria **San Adrian** da, Goierriko eta Gipuzkoako landa-paisaia atlantikoaren atari dena. Beraz, **lehenengo sektoreak egindako lana** eskualdeko

balio nabaria da. Hori dela eta, hau aintzat hartzea eta laguntza zein bultzada bat ematea ezinbestekoa dela uste da.

Bestalde, **erliebeak** eta **harrien** binomioak sortzen duen paisaia ikusgarria da, honek izaera berezia emanez bertako paisaiari. Aralar, Aizkorri zein Txindoki hain gertuko dira oharkabean pasatzen direla bertakoentzat, baina ukaezina da eskualdeko paisaietan duten pisua. Era berean, Urola zein Oria bailarak banatzen dituzten gunek ere azpimarragarriak dira.

Aipatutakok bi elementuok, hots, landa-lurrak eta harriek, **kontraste nabaria** sortzen dute beraien forma zein koloreetan. Honek ere landa-paisaien izaeran eragin berezia sortzen du eta ondorioz balio nabarmen bezala identifikatu da.

Harriei dagokienez, hauek eskualdean izateak garai bateko eraikuntzen izaeran eragina izan du. Gainera, gaur egun bordak lehengo eraikitze ezaugarriak mantenduz berreskuratzen ari dira, eta beraz, bertako harria izateak ekimen hau posible egiten du.

Honi guztiari landa-eremuak eta bertako biztanleak **historiaren** eta bertan eman diren aldaketen **gordailu** direla gehitu behar zaio (landa-lurren erabileran aldaketa nola eman zen, honen arrazoiak, eta abar). Hauek, azken finean, **ezagutzaren** alderdi bat jasotzen dute, eta hau modu oso positiboan baloratzen da. Honek, aldi berean bestelako ekimenak ahalbidetzen ditu, hala nola, GPSen bidez mugarri guztien kokalekua biltzeko ekimena, edo elkarte ezberdinek jakintza hori bildu eta ondoko belaunaldiei helarazteko egiten ari den lana.

Goierriko beste balio nabarmen bat **natur baliabideak** eta **natur gunek** dira. Alde batetik, uraren presentzia eta baliabide bezala erabili ahal izatea oso garrantzitsua hartzen da. Bestetik, Aizkorri eta Aralar Parke Naturalak, Oriaren zati bat Garrantzi Komunitarioko Leku izendatua izatea edo Murumendi Natur Parkea izendatzeko ekimena egon izana eskualdeak naturaren ikuspegitik duen garrantzia agerian uzten du.

Azkenik, **euskal kultura** eta **euskara** bera eskualdeko landa-paisaien elementu nabarizatzen identifikatu da, baita eskualdeko toponimoak eta hauen ezagutza ere.

4.2.2. LEHEN SEKTOREAK ESKUALDEKO PAISAI EI EGINDAKO EKARPENARI BURUZKO GOGOETA

Arestian esan bezala, Goierriko paisaiaren gehiengoa landa-eremua da eta lehenengo sektoreak historian zehar egindako lanak zein gaur egun burutzen duenak sortu eta mantendu dituzte eskualdean ezagutzen diren landa-paisaiak, baita lurraiekiko egon den lotura ere. Aldi berean, honek paisaiak sortzen diren kontrasteak mantentzea ahalbidetzen

du (erliebea eta landaredi motak sortzen dituztenak, hain zuzen). Beraz, eskualdeko paisaiari **nortasuna** ematen dioten parajeen gehiengoa **lehenengo sektorean** eta honetan jardun dutenen bizimoduaren ondorio dira. Paisaia hauek zein bertako biztanleak historiaren gordailu izanik, atxikitako balioa gehitu egiten zaio inguruari.

Horrez gain, bertan bizi direnentzako zein bisita egitera datozenentzat, lehenengo sektoreak sortutako elementu hauek guztiek inguru atsegin eta lasai bat sortzen duten bitartean, naturarekin berriz ere konektatzeko aukera ematen dute. Beraz, esan daiteke, baserrien aktibitateak gainontzeko eskualdeko biztanleentzat, landa-eremuan bizi direnentzat zein kanpotarrentzat garrantzitsua den balioa sortzen dutela, **nortasuna duen paisaia atsegin eta naturala**, hain zuzen ere.

Dena den, lehen sektorearen funtzioa edo paisaiari egiten dion ekarpena gero eta ageriagoan gelditzen ari den arren, oraindik ez da **aintzat hartzen**, eta bai kalean zein baserriarren artean ere, lehenengo sektoreko lana gutxieteko joera dago. Beraz, arazo horri buelta ematea ezinbesteko ikusten da.

Aldi berean, lehenengo sektorearen egoera ikusita, beronek sortzen dituen onurak nolabait aintzat hartu, eta baserriarren aktibitatea sustatzeko moduak egokitu beharko liriateke. Baserriarrek sortzen dituzten baliabide, ondasun eta zerbitzuek gizarte osoarentzat onura sortzeaz gain, eurek ere **bizimodu duina** eta **etekina** atera dezaten lortu beharra dago, beraz. Honekin batera, gogoan izan behar da **turismorako** garatzen ari diren baliabideetako batzuk lehenengo sektoreak sortzen dituen paisaietan oinarritzen direla, baina hauen jarduera desagertuz gero, paisaia ere galduko da eta, ondorioz, **baliabide** zenak hori izateari utziko dio.

4.2.3. ESKUALDEKO LANDA PAISAI AK INGURUKO ESKUALDEETATIK DESBERDINTZEN DITUZTEN EZAUGARRIAK

Goierriko landa-paisaiak inguruko eskualdeetatik desberdintzen dituzten ezaugarri gehienak eskualdean **balio nabarmen** gisa identifikatu diren elementuak dira: lehenengo sektorea, elementu ezberdinen kolore eta kontrastea, erliebea, harriak, historia, sentimenduak, kultura, hizkuntza eta abar, hauek baitira eskualdeko landa-paisaiak duen izaeraren erantzule nagusiak.

Bi isurialdeen mugan egoteak ere nortasun berezia ematen dio lurraldeari. Bi eskualdeen artean barrera ezartzen duen orografia dela eta, malda handiak agertzen dira isurialdea aldatu eta Goierri sartzean. Gainera, oso deigarria da malda gogor horietako askotan oraindik ere dagoen zelaien presentzia, adibidez, Etxegarate jaisterakoan Ursuarango maldetan ikusten den moduan.

Bestalde, Goierriin, urteetan zehar **lurra lantzeko hainbat ohitura eta praktika** mantendu dira, hala nola lursailen mugetan azekiak eta lubakiak egitea. Teknika hauen biziraupenak Goierriko paisaia beste eskualde batzuetatik desberdintzen du.

Aldi berean, **herrien tamaina txikia** zein jarraitutako **erakitze eredu**a eta **materialak** ere ezaugarri bereizgarriak dira. Bailara hondoak herri handienek, industrialdeek eta azpiegiturek hartzen dituztenez, landa-paisaia mendixka borobilduetan nagusitzen da. Bertan kokatutako ikusleari, erliebe malkartsuak haran hondoetan eman den hazkuntza ezkututzen dio, begi-bistan honek sor zezakeen inpaktua txikituz. Hala ere, esan beharra dago, gaur egun, pinudien hedapenak zertxobait oztopatzen duela landa-paisaiaren jarraikortasunaren hautematea.

Horrez gain, lehen azaldutako **elementu** edo **gune zehatzek** ere Goierriko paisaiaren nortasunean pisu nabarmena dute, hala nola, San Adrian, Aizkorri, Txindoki, Aralar, Oamendi, Murumendi, eta Ori zehar Urola bailarak.

Beraz, elementu hauek guztien multzoak beste eskualdeetako landa-paisaiaz bereizten duen izaera propioa ematen dio Goierriko landa-paisaiari.

4.3. Eskualdeko landa-paisaiaren isla artean

Partaidetza saioen bidez azaleratutako informazio baliotsua osatzeko asmoz, PAISAIATik beste ekintza batzuk burutu ditugu, kasu honetan partaidetza zuzena eskatu ez dutenak. Horrela, eskualdeko paisaiaren artean duten isla aztertu dugu, oso azaletik izan bada ere. Paisaiaren artean nola lantzen diren aztertzeko asko lagun dezake behaketa fitxetako sentipenen atalean jasotzen diren alderdiak aberasteko. Izan ere, artearen helburuetako bat **emozioak islatu eta piztea** da eta, ondorioz, ospea irabazten duten artistek paisaiak lantzen dituztenean horien balioak jasotzen dituzte beraien lanetan. Hortaz, eskualdeko landa-paisaiaren garrantzia eta esanahia aztertzeko beste modu bat paisaia horiek artean izan duten isla aztertea da.

Goierriin, bertako landa paisaiak erakusten dituzten artelan ugari eta estilo ezberdinetakoak aurkitzen dira. Atal honetan, eskualdeko landa-paisaia artean duen isla aztertzeko eskualdeko paisaiak lantzen dituzten **hamar lan** aurkeztuko dira. Hauen artean, artelan batek proiektuan paisaia esanguratsu bezala identifikatu den ingurua hartzen du gai bezala (Urretxu herria eta Irimo mendia, hain zuzen ere), beste lau lanek eskualdeko balio garrantzitsu bezala identifikatu diren beste hiru elementu (Txindoki, Aralar eta Murumendi) eta gainontzeko lauek proiektuaren baitan identifikatu ez diren lekuak islatzen dituzte. Eskualdeko paisaietan oinarritutako lanak aurkitzeak, Goierriko landa-paisaia inspirazio

iturria izan dela adierazten du, eta dituen balioak agerian uzten ditu. Aurrerago azalduko den bezala, artelan bakoitzean paisaia modu ezberdinean antzeman daiteke, eta paisaia bera modu ezberdinetan tratatua izan da.



"Vista general (Urretxu)" D.G. Egilea: Indalecio Ojanguren. Iturria: <http://www.guregipuzkoa.net/>

Artelanez **sentsazioak** transmititzea dute helburu maiz. Paisaiari buruzko artelanetan artistak paisaia hauteman duen moduan islatzen du, beretzat nabarmenenak diren alderdiak azpimarratuz, hau da, hautematen duen paisaiaren interpretazio bat eginez. Horrela, bi artistak artelan diferenteak egingo dituzte paisaia beraren gainean.

Aurkeztutako **margo** zein **argazkietan**, hots, irudiz osatutako artelanetan, paisaiaren zati bat antzeman dezakegu ikusmenaren bidez, baina paisaiako beste hainbat elementu hauteman gabe geratzen dira (entzumen, ukimen, usaimen zein dastamenaren bidez jasotzen direnak). **Olerkietan** maiz sentimendua da nabarmentzen den elementua, eta honek paisaiak norbanakoarengan duen lotura eta esanahia ere isla dezake. Gainera, paisaia bere osotasunean aurkeztu beharrean, norbanakoarentzat paisaiaren elementu esanguratsuenak direnak aurkezten ditu. Kasu honetan ere hainbat elementu eta



"Udazken koloretan" 2010. Egilea: Fuensanta R. Urien. Iturria: <http://fuentxu.blogspot.com.es/2010/12/udazken-koloretan-en-los-colores-del.html>

zenez zuzen bidez jasotako bestelako ezaugarriak hauteman gabe gera daitezke artistak hitzetan islatzen ez baditu.

Lehen esan bezala, "Vista general (Urretxu)" lanean, proiektuan eskualdeko landa-paisaia esanguratsu bezala identifikatutako paisaia azaltzen da, Urretxuko herriak eta Irimo mendiak osatzen dutena, hain zuzen ere. Jarraian, artelanean islatutakoa zonalde horri buruzko fitxan jasotakoarekin alderatuko da.

Argazkian, esan bezala, Urretxuko herria eta Irimo mendia azaltzen dira. Bertan, erliebea, landaredia eta lehenengo sektorea har daitezke elementu nagusi gisa, baita populatze-eredua ere. Erliebeak forma borobilduak dakartza paisaiara, kontrasteak sortuz bailararen eremu laua eta Irimo mendiaren aldapan artean. Gainera, lehenengo sektoreak mantendutako landarediak eta populatze ereduak sortzen dituzten orbanek kontraste hori areagotzen dute. Izan ere, mendian basoa da nagusi, eta maldak leuntzen hasi ahala belardiak eta soroak azaltzen dira. Lehenengo sektorea elementu nagusi gisa identifikatzera landaredi motak eraman du; izan ere, sastrakarik gabeko

zenez zuzen bidez jasotako bestelako ezaugarriak hauteman gabe gera daitezke artistak hitzetan islatzen ez baditu.


Lehen esan bezala, "Vista general (Urretxu)" lanean, proiektuan eskualdeko landa-paisaia esanguratsu bezala identifikatutako paisaia azaltzen da, Urretxuko herriak eta Irimo mendiak osatzen dutena, hain zuzen ere. Jarraian, artelanean islatutakoa zonalde horri buruzko fitxan jasotakoarekin alderatuko da.

Argazkian, esan bezala, Urretxuko herria eta Irimo mendia azaltzen dira. Bertan, erliebea, landaredia eta lehenengo sektorea har daitezke elementu nagusi gisa, baita populatze-eredua ere. Erliebeak forma borobilduak dakartza paisaiara, kontrasteak sortuz bailararen eremu laua eta Irimo mendiaren aldapan artean. Gainera, lehenengo sektoreak mantendutako landarediak eta populatze ereduak sortzen dituzten orbanek kontraste hori areagotzen dute. Izan ere, mendian basoa da nagusi, eta maldak leuntzen hasi ahala belardiak eta soroak azaltzen dira. Lehenengo sektorea elementu nagusi gisa identifikatzera landaredi motak eraman du; izan ere, sastrakarik gabeko

gain, klima, ura, elementu historikoak eta paisaiak sortzen dituen sentimenduak pisuzko ezaugarri bezala identifikatu dituzte. Honek, paisaia baten ezagutzak edo paisaiaren azterketa lekuan burutzeak elementuen pertzepzioan eragin dezakeela agerian uzten du (hala nola neguaren luzetasuna, argazkian antzeman ezin diren iturrien presentzia edo elementu historikoen ezagutza).

Ondoren aztertuko diren artelanei dagokionez, lehen esan bezala, ez dute bat egiten fitxetan bildutako guneekin, baina bai, ordea, saioetan identifikatu diren eskualdeko balio garrantzitsuko paisaiekin. Beraz, lan hauetan eskualdeko ezaugarri bereizgarri gisa identifikatutako elementuak islatzen diren aztertu egin da.

"**Udazken koloretan**" lanari dagokionez, eskualdeko balio bezala hartu den zonalde bat islatzen du, **Txindoki** eta haren inguruak, hain zuzen ere. Margolaneko paisaian, landaredia har daiteke elementu garrantzitsuen bezala, nahiz eta **erliebea** eta **harriak** ere nabarmenak diren. Maila apalago batean, baina paisaiaren izaeran eragina duten elementuak, populatze ereduak, lehenengo sektorea eta klima dira. Horrez gain, fitxen analisisan nahiz parte hartze saioetan aipatu diren **kontrasteetako** batzuk islatzen dira obra honetan, hots, mendi harkaitzuen eta landarediaren koloreen artean sortutakoa, edo erliebeak orokorrean dituen forma leunak eta harrizko paretatik bertikalek sortzen dituzten forma zorrotzen artekoak. **Urtaroek** paisaiari ekartzen dioten aldaketa nabarmena islatu da margolanean eta, horrekin batera, udazkenak eragiten dituen sentazioak ere. **Naturaren** elementuak nagusitzen dira paisaian, partaidetza saioetan adierazi den moduan. Beraz, artelan honetan Goierriko landa-paisaiaren izaeraren erantzule diren elementu garrantzitsu batzuen isla biltzen dela egiazta daiteke.



Txindokiko inguruak islatzen dituen margolana, D.G. Egilea: Jesús López Zulueta. Iturria: <http://www.zulueta.info/galeria/>

Antzeko ikuspuntua aukeratu du **Jesús López Zulueta** bere margolanean, mendi hau eskualdeko paisaian sekulako **mugarria** dela agerian utziz.

"**Txindoki'ko muturrean**" olerkia, Txindokiri erreferentzia egiten dioten beste lan bat da. Honetan, erliebearen, klimaren, uraren, lehenengo sektorearen, populatze ereduaren eta elementu historikoen garrantzia agerian gelditzen da. Landaredia, aldiz, ez da aipatzen,

"Aralar'tik", 1934. Egilea: Pillipa. Iturria: <http://www.hemeroketa.com/cgi-bin/orria.pl?arg=amayur&zein=19340105>

Arkaitz baten gañian *Begira nintzanean*
Aralarren negoan *Aberi-irudia*
Ta ortze zabalian *Nion nire barnean*
Lañoa igez ziyogan *ijAgur Euzko errea!!*

Zuaintzetan txoria *Nire gogo illuna*
Arranoa egalez *Lezien antzekua*
Alai ludi guztia *Mikel Gotzon Deuna*
Ni berriz negarrez *Ikusi ta dijun*

An odei beltz artean *Bat nai degu izan*
Koblari bat kantari *Zure egalen azpian*
Mikel donen aurrean *Bat Jaungoikoagan*
Aberre gaxuari *Bat gure Aberrian*

Gure biotzetan otz *Euzkadiren erdian*
Begitan negarra *Zoude Mikel deuna*
Galdu dugulakoz *Euzkotarren artian*
Euzko Lege-zarra *Bei zara kutuna*

Euzko erri maitean *Euzkotarrak orain*
Danok banakatuik *Aralar mendira*
Gure etsaien artean *Egazkinak bezain*
Gu gaude loturik *Laster joaten dira.*

banan islatzen dute; Aralar eta Murumendi, hain zuzen ere. Bietan sentimendua da nabarmen, bai euskal sentimendua, lege zaharren galerarekiko tristura, Aralar mendiari zaion begirunea zein Murumendiko damaren inguruko kondairak sortutakoa. Bestalde, lehenengoan harriak eta klimaren elementuak aipatzen dira, eta bigarrean, aldiz, landaredia, erliebea eta mitologia. "Aralar'tik" olerkian, "Txindoki'ko muturrean" gertatzen den bezalaxe, erlijioaren pisua oso nabarmena da, baina "Murumendi'ko damea"n, aldiz, mitologiak hartuko du erlijioaren tokia. Beraz, obra hauetan, eskualdeko elementu esanguratsuen artean kokatutako batzuk islatuak gelditzen dira ere.

Olerkiek, paisaiek sortutako edo paisaiei lotutako **sentimenduak** agerian uzten dituzte lehen esan bezala, aldi berean pisu nabarmena hartuz. Oso nabarmena da olerkietan mendiak euskal nortasunaren gordailu gisa ikusten direla, **euskal kulturaren iturri** bezala. Euskal kulturaren oso hedatua egon da, eta horrela jarraitzen du izaten, euskal

aurreko lanetan ez bezala. Gainera, olerki honetan harrizko artzain txabolei aipamena egiten zaie, saioetan identifikatu den balio batekin erlazionatu daitekeelarik, hau da, eskualdeko harrien presentziak hauek erazte ahalbidetzen duela hain zuzen ere, eta beraz txabolak eraikitzea. Bestetik, olerki honetan agerian geratzen da, proiektu honetan azaldu dugun bezala, guztion bistan jarri nahi diren elementuak **mendi tontorretan** jarri ohi direla, nolabait ere gizakiaren munduan agintzen dutela irudikatzen. Paisaiaren **esanahi erlijiosoa** erabat nagusitzen deneko olerkia dugu hau, naturaren eta gizakiaren ekintzak eta erlijioa lotuko dituzten metafora ugari erabiliz.

"Aralar'tik" eta "Murumendi'ko damea" olerkiek, eskualdeko balio gisa identifikatu diren beste paisaia

nortasunaren jatorria **mendi**ekin lotzea, eta mendikoak diren bizimoduak, bereziki artzaintzarekin (Askasibar Bereziartua, 1999, or. 12-13).

Mendia misterioarekin eta arriskuarekin lotua izan dela ere ikus daiteke, bereziki azken olerkian, galdutako paradisuarekin, eta naturak gobernatutako munduarekin ere.

Aipatzeko gelditzen diren **beste lau lanek** ez dute bat egiten fitxetan bildutako guneekin, ezta eskualdeko balio gisa identifikatutako guneekin ere. Baina, aurrekoekin egin den bezala, hauetan Goierriko landa-paisaien ezaugarri nabarmenenak islatzen ote diren aztertu da.

Lau lanetan lehenengo sektorea, eraikuntza eredua eta landarediaren presentziak garrantzitsua dira. "Paisaje Vasco de la zona Gipuzcoana del Goierri", "Vista parcial (Gabiria)" eta "Ataun (Gipuzcua). Vista parcial" lanetan, **zelaia** eta **basoak** ikus daitezke, islatutako paisaiaren azalera handiena hartuz, eta ondorioz **lehenengo sektorearen jarduna** nabaria izanik. Bestalde, hiru lan hauetan, **erliebeak** paisaian hartzen duen pisua nabarmena da. Hortaz, lau lan hauek, eskualdeko landa-paisaien elementu bereizgarri gehienak islatzen dituzte.

Beraz, esan daiteke, aurkeztutako artelanetan

"Txindoki'ko muturrean", 1934. Egilea: L. Iturria: <http://www.hemeroketa.com/cgi-bin/orria.pl?arg=eldia&zein=19340831>

Txindoki mutur *Mendi egaletan* *Ta erriak zaintzen*
ontatik ditut *laño tartean* *artzaiak bere*
mendi ederrak ikusten *arrizko artzai txabola,* *artaldearen antzean*
Beraidi beti *ta mendi goian* *laister Gurutz bat*
ezin aspertuz *gurutz donea* *jarriko degu*
egoten naiz begiratzen *matasuna dariola.* *Txindoki ko goyenean.*

Basetxe txuri *An bean etxe*
ta alaiak, an or, *pila bat, gainka,*
muño ta ibar zab?eran *Eliz nagusi ondoan,*
an or, larrean *umeak egon*
etzanda dauden *oi diran eran*
arkume txurien eran. *bere amaren alboan.*



"Ataun (Guipuzcua). Vista parcial", 1955. Egilea: Indalecio Ojangueren. Iturria: <http://www.guregipuzkoa.net/>

"Murumendi'ko damaea" 1935, Egilea: Lotsati. Iturria: <http://www.hemeroketa.com/cgi-bin/orria.pl?arg=eldia&zein=19351113>

Sasiak zapalduz
Mendiruntz ninjoalarik,
Errekak jauzkatuz,
Muñoak irabazirik,
Erori nintzan beñ
Murumendi'ñ gaxorik.
Zeudela nere begiak zoraturik.
Zeru mendi,
Mendi zelai ikusirik,
Aditu non soñu bat.
Aruntz nere sentsuak bihurturik
Ikusi nun maitagarri bat:
Zidarrezko soinekoz jantzirik
Ta urrezko ulediz
Ta arinki ankak erabilliz
Nereganatuz zetorkidalarik.
Etzanda luzerik
Negoelarik
Idarge ta gaxorik
Maiteki esku leunetan
Artu nindun
Ta egaka leizera
Eraman nindun.
¡Leize arren edertasuna!!
¡Eta arren edertasuna!!
Iñun ikusi ez det izan,

Ez egiz, ez ametsez,
Ez munduan,
Ez inperuan,
Ez jauregian,
Eguzkizkoa bera baizikan!!
¡Ain eder zan!!
¡Ain eder zan!!
Leizea Eguzkia bazan
Damaea Illargia zan!!
Damaea Illargia zan!!
Zeruan nengoelarik edo egiz edo ametsez
Ta bere esku leunaren biguintasunez
lurtzirik eztiki nere uledia
Loak neraman illunduz begia.

Esnatu nintzanean
Oyu egin nuan
Oyu egin nuan
¿Nun zaude ene Damaea?
Bañan iñork erantzun etzidan...
Iñork erantzun etzidan...
Ta tristerik ninjoan,
Tristerik etxeruntz ninjoan,
Tristerik... tristerik...
Makilla eskuan.

Murumendi'ko Damaea,
¡Bai! Murumendiko Damaea,
Zein gustora,
Zein gustora,
Zurekin ezkonduko nintzaken...
Zurekin,
Murumendi'ko Damaea!!

Ta zein ederki!
Ta zein ederki!
Leizean biziko nintzaken,
Zurekin,
Murumendi'ko Damaea!!

Zein poliki berriz,!
¡Zein poliki berriz!
Egaka ibilliko nintzaken
Zurekin,
Murumendi'ko Damaea!!



"Goierri", D.G Egilea: Jose Manuel Alares. Iturria: egilearen webgunea



"Vista parcial (Gabiria)" 1960, Egilea: Indalecio Ojanguren. Iturria: <http://www.guregipuzkoa.net/photo/2182>



"Paisaje Vasco de la zona Gipuzcoana del Goierri" 2013, Egilea: Fuensanta Urien.

Goierriko paisaiaren izaerari ekarpena egiten dioten elementu nagusienak islatzen direla, hau da, harriak, erliebea, landaredia eta honekin erlazionaturik dagoen lehenengo sektorea, populatze eredia, euskal kultura, paisaiak sortutako sentimenduak eta elementu ezberdinek sortutako kontrasteak. Dena den, lan hauetan uraren presentzia ez da islatu, ezta elementu historikoak ere, eta hau saioetan eskualdeko ezaugarri bereizgarri bezala identifikatu dira. Hala eta guztiz ere, atal honen hasieran esan bezala, bertan landa-paisaiek artean izan dezaketen isla aztertzeke arte lanen lagin txiki bat baino ez da hartu, hots, lagin handiagoa hartuz gero elementu hauek ere islatzeko probabilitatea egon liteke. Horrez gain, hautematean dagoen subjektibotasunak zein aztertutako guneen ezagutza mailak paisaiaren antzematean eragina izan dezakeela ere ikusi da.

Azkenik, azaldutako guztiari gehitu behar zaio landa paisaia **arterako inspirazio iturria** izateak atxikitzen dioten balioa ere.

4.4. Eskualdeko landa-paisaien isla turismoari buruzko materialetan

Atal honetan, eskualdeko landa-paisaiek turismoan duten trataera eta garrantzia aztertu da hainbat mailatan (Euskal Autonomia Erkidegoa, Gipuzkoa eta eskualdeko mailan). Horretarako, eskala bakoitzean Web atari bana aztertu da baita papereko euskarrian argitaratutako hainbat material ere.

Euskadi goza ezazu! EAE mailako turismoko Web atarian lehenengo orrian eta azpi atal bakoitzaren orrialde nagusian agertu diren argazkien %10ean lehenengo sektoreak sortutako paisaiak hartzen du nagusitasuna. Dena den, argazkien beste %11a batean lehenengo sektoreak kudeatzen dituzten paisaiak agertzen dira bigarren planoan. Horrez gain, beste %3an lehengo sektoreko produktuak azaltzen dira. Argazki hauen artean, eskualdeko promozioa egiteko baliorik aipatuenak Aizkorri, Txindoki, Idiazabal gazta eta Ordiziako azoka izan dira.

Bestalde, Web atarian azaltzen diren proposamen gomendagarrienen eskaintzaren artean %59ak paisaiarekin zerikusia dute bertan adierazten denaren arabera. Ekimen guztien %23ak soilik dute erlazioa landa-eremuarekin eta lehenengo sektorearekin. Top esperientzia hauen artean bost garatzen dira Goierri (Ordiziako azoka, Baserriko bizimodua, Idiazabal lurraldea, Sagardoaren kultura eta Txotx garaia ekimenak), eta guztiek dute landa-eremuarekin nolabaiteko erlazioa, batez ere lehenengo sektoreko produktuekin. Bestalde, paisaiarekin erlazioa izan arren, lehenengo sektorearekin zerikusirik ez duten turismorako ekimenak promozionatzeko erabiltzen diren argazkien artean, lehenengo sektoreak kudeatzen dituzten paisaiak argazki guztien %12an agertzen dira.

Azaldutako web atariak gain, **EAE mailako sei liburuxka** aztertu dira: "Euskadi" (Basquetour, 2011), "Hiri ihesaldiak" (Basquetour, 2012b), "Natura aktiboa" (Basquetour, 2012c), "Iparreko Donejakue bideak" (Eusko Jaurlaritza, 2011b), "Gastronomia eta enoturismoa" (Basquetour, 2012a) eta "Turismo irisgarria, EUSKADIn, oporrak guztiz guztiantzat dira" (Eusko Jaurlaritza, d. g.).

Lehenengoan, hau da, **Euskadi** izena duenean, agertzen diren irudietatik %13 inguru landa-eremuan ateratako paisaiak dira, eta beste %4an paisaiak ez agertu arren lehenengo sektoreari espresuki erreferentzia egiten zaio. Hauen artean, %60an lehenengo sektoreak landutako paisaia elementu nagusia da eta %40an elementu nagusia beste bat izan arren, eremu zabala hartzen du paisaiak. Dena den, agertzen diren irudi guztien %11an lehenengo sektoreak kudeatutako paisaia ageri da bigarren planoan, eta %5ean baserriko produktuak aurkezten dira. Bestalde, liburuxkak dituen 33 orrialdeetatik landa-eremuari bat eskaintzen zaio, eta bertan lehenengo sektoreak landutako paisaiak, baserriak eta produktuen irudiak

azaltzen dira (nahiz eta azken hauek ugariak izan). Eskualdeari dagokionean, Goierri sustatzeko erabilitako balioak Aizkorri, Txindoki eta Idiazabal gazta izan dira.

Bigarrenean, hots, **hiri ihesaldien** liburuxkan agertzen diren irudien %5a landa paisaiak dira. Hauetan lehenengo sektoreak sortutako paisaiak hartzen du azalera gehien, nahiz eta elementu nagusia beste bat izan askotan. Bestalde, beste %3an bigarren planoan lehenengo sektoreak landutako paisaiak azaltzen dira. Azkenik, liburuxka honen irudien %4ak lehenengo sektoreko produktuei erreferentzia egien dio. Liburuxka honetan Idiazabal gazta



Idiazabalgo gazta, Iturria: "Goierri bertan duzu" Web ataria

eta Aizkorri-Aratz zein Aralar parke naturalak dira eskualdeko promozio turistikoa egiteko erabiltzen diren balioak.

Gastronomia eta enoturismoaren

liburuxkan aurkezten diren irudien %11 landa-paisaienak dira. Bestalde, irudien %42ak lehenengo sektorearen produktuak azaltzen ditu. Liburuxka

honetan berriz ere Idiazabal gazta aipatzen da, Goierriko turismoa sustatzeko baliorik erabiliena izanik, nahiz eta Ordiziako azoka, Ogiaren txokoa, D'elikatuz eta Artzain eguna ere azaltzen diren.

Natura aktiboa liburuxkako argazkien %42ak landa- paisaiak dira. Horien artean erdiek dute lehenengo sektoreak landutako paisaiak elementu nagusi gisa. Horrez gain, irudi guztien artean %25ek bigarren planoan lehenengo sektoreak landutako paisaiak agertzen dituzte, eta %2an honen produktuei erreferentzia egiten zaio. Liburuxka honetan eskualdeko paisaien parte diren elementuen artean Aralar, Txindoki, Aizkorri, hiru tenpluen ibilbidea eta Mutiloa-Ormaiztegi bidea agertzen dira.



Aizkorri mendilerroa. Iturria: "Goierri bertan duzu" Web ataria

Donejakue bideen liburuxkaren orrialdeetatik %21a Euskal Autonomia Erkidegoan zehar doan zatiari eskaintzen zaio. Orrialde hauetan agertzen diren irudien artean %33a landa-paisaian ateratako argazkiak dira. Ereku horietan ateratako argazkien artean %39an lehenengo sektoreak sortutako paisaiak azalera gehien hartzen du edo elementu nagusia da. Bestalde, orrialde horietan agertzen diren irudi guztien %14an lehenengo sektoreak sortutako paisaiak bigarren planoan agertzen dira. Liburuxka honetan Txindoki, Aizkorriko San Adriango tunela, Zeraingo karobiak, Ormaiztegiaren trenaren zubia eta hainbat herri (Beasain, Olaberria, Idiazabal, Segura, Ezkio-Itxaso, Mutilloa eta Zegama) aipatzen dira. Hala eta guztiz ere, esan beharra dago liburuxka honetan ez dagoela lehenengo sektoreak ekoiztutako produktuei erreferentzia egiten dion irudirik.

Turismo irisgarriaren liburuxkari dagokionez, lehenik eta behin landa-paisaien isla aztertu eta neurtzerakoan ikonoen irudiak ez direla aintzat hartu aipatu behar da. Liburuxka honetan azaltzen diren irudien %9ak landa-paisaiak dira. Bestalde, aztertu diren irudi guztien artean %4an lehenengo sektorearen lanari erreferentzia egiten zaio eta %7an

sektore honek sortutako paisaiak beha daitezke bigarren planoan. Horrez gain, irudien %3ak lehenengo sektorearen produktuak agerrarazi dituzte. Dena den, Euskal Autonomia Erkidegoa liburuxka honetan ere ez zaio Goierriari erreferentziarik egiten.

EAE mailako materialaz gain, Gipuzkoakoa ere aztertu da. **Gipuzkoako Foru Aldundiko Turismoko Web atariaren** sarreran eta azpi atalen orrialde nagusietan agertu diren argazkien %16ak lehenengo sektoreak sortutako paisaiak azaltzen dituzte, nahiz eta horietatik %34an soilik agertzen diren irudiko gai nagusi bezala, batzuetan paisaia osoak islatu beharrean elementu zehatzak bilduz. Dena den, argazkien beste %14an lehenengo sektoreak kudeatzen dituzten paisaiak agertzen dira bigarren planoan. Horrez gain, irudien beste %1ean lehenengo sektoreko produktuak azaltzen dira. Beraz, Gipuzkoan turismoa sustatzeko helburua duen Web atari honetan erabiltzen diren argazkien %49an lehenengo sektorearen presentzia dago, batzuetan modu nabarmenean, eta beste batzuetan bigarren planoan.

Eskualde honen sustapena egiteko **gehien erabilitako argazkiak** Aizkorrikoak, Ordiziako azokakoak eta Zeraingoak izan dira, hau da, txosten honetan jaso denaren arabera partaidetzaren bidez identifikatutako paisaiaren balio nagusietako batzuk jasotzen dira bildutako materialetan. Horrez gain, hirutan behintzat azaldu direnak Idiazabal gazta, D'elikatuz, Mirandaola eta San Adriango tunela dira. Azken hau eta Zeraingo Aizpeako meatzeak xarma duten lekuen artean azaltzen dira ere. Gainera, meategi hauek Gipuzkoako hamar guneez osatutako ikusien artean daude. Eskualdeari egotzen zaizkion ezaugarri bereizgarriak ondare monumentalak zein megalitikoak, duen naturaren edertasuna, baserrien ugaritasuna, eta mendi berde eta gailur harkaitztsuek osatutako paisaiak dira.

Horrez gain, **aisialdia** eta **naturaren** aldetik interesgarriak diren Gipuzkoako **guneen gida** aztertu da (Gómez Piñeiro et al., 1999). Bertan agertzen diren irudien %20a landa-eremukoak dira, eta horien %84an lehenengo sektoreak sortutako paisaia elementu nagusia da. Bestalde, irudien %13an lehenengo sektoreak landutako paisaiak ageri dira bigarren planoan eta %3a baserrien irudiak dira. Eskualdeko



Zeraingo meategiak, Iturria: "Goierri bertan duzu" turismo Web ataria

sustapenari dagokionez, Segura, Orendain, Altzania, Aralar, Beunda, Ataun, Mirandaola eta Oiangu aipatzen dira.

"**Gipuzkoan 6 ibilbide basoan**" (Agirre Iraeta, 2005) liburuxkan aurkezten diren irudien %67ak lehenengo sektoreak kudeatzen dituen paisaiak dira. Horrez gain, esan beharra dago, liburuxka honetan Gipuzkoa osoko sei ibilbide esanguratsu biltzen direla, eta horien artean bat Goierrin kokatzen dela, Urkillaga-Lareoko urtegia-Lizarrusti hain zuzen ere. Bertan azpimarratzen diren balioak paisaia, basoak (artadiak, pagadiak zein baso mistoak) eta antzinako trenbidean egindako tunelak dira.

Eskualde mailan, bi web atari erabili dira analisi hau egiteko. Alde batetik "**Goierri bertan duzu**"

turismo ataria aztertu da. Bertan agertzen diren irudien %46 landa-eremuak dira. %18an lehenengo sektoreak sortutako paisaiak azaltzen dira lehenengo planoan eta %28an bigarren planoan. Horrez gain, %16a lehenengo sektorearen produktuei erreferentzia egiten dieten irudiak dira. Bestalde, maiztasun gehienarekin Aizkorri, Txindoki, Aralar, Idiazabal gazta eta ondare historikoa azaldu dira, web atariaren sarreran agertzen diren argazki nagusiak hauenak izanik. Halaber, eskualdean gehien azpimarratzen den balioa landa giroa da.

Eskualde mailan aztertutako beste web ataria, "**Urola Garaia**" turismo ataria izan da. Honetan, irudien %35ean lehenengo sektoreak sortutako paisaiak azaltzen dira, nahiz eta soilik %11an agertzen diren hauek lehenengo planoan. Horrez gain, web atariko argazki guztien %2k lehenengo sektoreko produktuak erakusten dituzte. Eskualde honen sustapena egiteko gehien erabilitako argazkiak Antioko baseliza, Mirandaola, Ogiaren museoa eta bestelako ondare monumental zein historikoarenak izan dira.



Txindoki. Iturria: "Goierri bertan duzu" Web ataria

Azkenik, paperezko euskarrian dauden turismoko materialaren artean "**Goierri bertan duzu**" eta "**Urola Garaia, 10. urteurrena**" eskualdeko turismo liburuxkak aztertu dira. Lehenengoan agertzen diren irudien %37an landa-eremua azaltzen da lehenengo edo bigarren planoan. Lehenengo sektoreak sortutako paisaiak azalera gehiena hartzen du %17etan eta %20an lehenengo sektoreak sortutako paisaiak bigarren planoan agertzen dira. Liburuxka honen argazkien beste %20etan lehenengo sektorearen produktuak agertzen dira. Bestalde, Idiazabal gazta da baliorik aipatuena, nahiz eta Aralar, Aizkorri, ondare historikoa eta Txindoki behin baino gehiagotan azaltzen diren.

Bigarren liburuxkan, irudien %16ak lehenengo sektoreak sortutako paisaiak azaltzen ditu lehen planoan, eta %19ak bigarrean. Sektore honen produktuei, ordea, argazkien %14ak egiten die erreferentzia. Eskualdeko sustapena egiteko gehien erabilitako balioak Idiazabal gazta, ardiak azaltzen diren paisaiak, baserria, natur eskola eta ondare historikoa dira.

4.5. Eskualdeko landa-paisaiek aurrean dituzten erronkak

Bigarren partaidetza saioan landutako beste alderdi bat eskualdeko **landa paisaien etorkizunaren** inguruko eztabaida izan da. Horren harira, lehenengo sektoreak izan dezakeen ibilbidea eta horrek sor ditzakeen ondorioak ere aztertu dira. Ariketa honen helburua etorkizunera begira eskualdean nahi den landa paisaiaren inguruan hausnartzea da, eta hori lortu ahal izateko eman beharreko pausuetan pentsatzen hastea.

Epe ertainean eskualdeko landa paisaiek aurrean izango dituzten **erronkak** identifikatzeko, **bi ariketa** burutu dira: 2025 erreferentzia bezala hartuta, imajina daitekeen panoramarik negatiboena eta positiboena irudikatzea, eta bakoitzaren hiru ezaugarri adieraztea. Jarraian, gai hauen inguruko eztabaidaren emaitzak biltzen ditugu.

4.5.1. EPE ERTAINEAN EMAN LITEKEEN IKUSPEGIRIK NEGATIBOENA

2025 jomuga gisa hartuta eskualdeko landa paisaiarentzat irudika daitekeen ikuspegirik negatiboenean ondokoak emango lirateke: **bizimoduaren** aldaketa, **balio** zein **ezagutzaren** galera, eta lehenengo sektorearen **errentagarritasun** eskasa.

Baserriak uztearen ondorioz, eskualdeko biztanle gehienak **kaletar** bihurtuko lirateke, jada errealitate den zerbait. Ondorioz, aurreko garaietan **naturarekiko** zeuden **harremana** eta lotura galduko lirateke; landa-paisaia galduko litzateke, eta ez hori bakarrik, bizitzeko modu jakin bat eta horri lotutako ezagutza eta kultura osoa baizik. Baserrian aritzeak lurraren, elikagaien eta ingurunearen ezagutza eta haiekiko ardura zein

errespetua sortzen zituen. Gaur egun, ordea, lehenengo sektorean dabiltzanak oso gutxi dira honek pairatu duen errentagarritasun galera eta eskatzen duen lotura dela eta. Beraz, gutxiago dira orain lurra lantzeak sortzen zuen ezagutza, kultura eta balioak mantentzen dituzten pertsonak. Hau guztiagatik, eta lehenengo sektorean belaunaldi berriak sortzen ez badira edo aipatutako gutzia transmititzen ez bada, galdu egingo litzatekeela aurreikusten da. Honen adierazle bezala ikus daitezke egun azokak izaera sinbolikoa hartu izana, eta etxean ekoizitako produkturik saltzen duenik ia ez egotea.

Honekin erlazionaturik, landa-eremua **lo-leku** bihurtuko litzateke ikuspegi okerreanean, hots, etxera lo egiteko baino itzultzen ez diren biztanleak ugaritzea. Honek bertako herritarren arteko **harremana** eta **herriko giroa** galtzea suposatuko luke.

Bestetik, lehenengo sektorearen jardueraren jaitzierak landa-paisaien mantenuan ere eragina izango luke. Hortaz, etorkizunean **sasiek** hartutako belardi zein basoak eta itxitako oinezko bideak aurkituko liratekeela uste da. Honen atzean legokeen arrazoia baserriko lanek **errentagarritasun minimorik ez** izateagatik bertan behera utziak izatea egongo litzateke, baita gizartean **ikuspegi erabat ekonomizista** gailendu izana ere.

Bestalde, landa lur azalera handia **jabe askoren** eskuetan egongo litzateke. Lursail bakoitza bere jabearen helburuei jarraituz kudeatzen jarraituko litzateke. Hori dela eta, zailago bihurtuko litzateke ingurunearentzat egokiagoak izan daitezken kudeaketak aintzat hartzea, edo paisaiaren kalitatea hobetzea.

Azkenik, etorkizunerako irudikatutako ikuspegi negatiboan beste bi fenomeno gehiago egongo lirateke. Alde batetik, egindako **azpiegitura** guztiak eta dagoen **gehiegizko hormigoia** mantenduko lirateke. Bestetik, egiten den **uraren erabilera okerra** hobetzeko neurriak hartuko ez balitz, horrela izaten jarraituko du, norberak bereari kasu eginez soilik ingurukoengan sortzen dituen kalteetan erreparatu gabe.

4.5.2. EPE ERTAINEAN IRUDIKA LITEKEEN IKUSPEGIRIK POSITIBOENA

2025 erreferentzia bezala hartuta parte-hartzaileek pentsa dezaketen ikuspegi positiboena irudikatzean, landa-eremuan bizi diren **baserritarrak lurak ematen duenetik biziko** lirateke modu duinean. Horrela, eskualdeko lehen sektorea mantendu eta areagotuko litzateke, eta baserriar profesionalak bertan biziko lirateke, baldintza duin eta orekatuak lortuz aldi berean. Honekin batera, lurak errentagarritasuna berreskuratuko ahala, lurarekiko harremana berreskuratuko egingo litzateke.

Bestalde, gaur egun bizi den krisialdiak ondorio positibo bezala **gazteak** berriro **baserrira** bueltatzea ekarriko luke, lehen sektorea gaztetuz eta indarberrituz. Fenomeno

honen ondorioz, bertako landa-paisaiak mantendu (garbi kontserbatutako baso, etxe inguru zein belardiak) eta utzitako lursailak berreskuratuko lirateke.

Landa-paisaiak mantentzeko lan egiten duten pertsonak **saritzea** egoki ikusiko litzateke eta, horrela, baserrietako inguruak txukun mantentzen dituztenei zergak kobratu beharrean, haiei **ordaindu** egingo litzateke gizarte osoaren onurarako egindako lanaren truke. Honez gain, norberaren **aisialdiko denboran** landa-paisaiak mantentzeko eta **txukuntzeko** ohiturari eutsiko litzateke baserria eduki baina kalean lan egiten dutenen artean. Ez hori bakarrik, ohitura hori zabaldu egingo litzateke, eta eskualdeko herritarrek gustuko jarduera bezala egingo lukete, adibidez, **auzolanean**.

Bestalde, gizartea **kontsumo eredu burujabe** eta arduratsu batetara iritsiko litzateke. Bertako produktuak kontsumitzeko kontzientzia hedatuko litzateke eta, horrela, haragia, barazkiak eta baserriko bestelako produktuen zuzeneko salmenta areagotuko litzateke (etorkizun batean lehenengo sektoreak azken urteetan hormigoiak merkatuan utzi duen hutsunea beteko luke). Honekin loturik, **baserriarren lana eta produktuak** aintzat hartuko lirateke, baita lehenengo sektoreari **errentagarritasuna** itzuli, **lurrekiko lotura** berreskuratuko eta bertako landa-paisaien mantenua bermatzeko kontzientzia garatu ere. Beraz, pertsonak sentsibilizatuagoak egongo lirateke eta paisaia baloratzearekin batera, honen mantenua bermatzeko kanon ekonomiko bat ordaintzeko prest egongo lirateke, adibidez.

Honekin guztiarekin erlazionaturik, **soroek** eta **bertako basoek** azalera berreskuratuko lukete (lehenengo landa-paisaiekin antzekotasuna berreskuratuz), beti ere hauen **ustiaketa errentagarria** izanik (horretarako basoen merkaturatzea bultzatuko duten aukera berriak sortuko lirateke, biomasa kasu). Ondorioz, paisaia atseginagoa eta alaiagoa izango litzateke, landaredia mota honek kolore aldaketa gehiago ekarriko bailituzke ingurura. Turismoa erakartzeko erabiltzen diren paisaiaren elementuak aipatutako horietatik dira, hain zuzen ere (hostozabalen baso, soroak, bertako arrazetako abereak eta abar), eta ez gaur egun ohikoak direnak; beraz, elementu horiek berreskuratzearen garrantzia oraindik ageriago gelditzen da. Hori lortzeko, lur jabe ezberdinen artean **helburu eta lan ildo komunak** adostuko lirateke lurak kudeatzeko, denek norabide berean lan egingo lukete inguruko baldintzak kontuan hartuz, eta ez bakoitzak bere aldetik bereari soilik erreparatuz.

Ikuspegi positiboenean emango litzatekeen beste egoera bat herri zein eskualdeen **burujabetza** estrategiak martxan jartzea da. Zentzu horretan, Tones-en, Irlandako herri batean, burujabe izateko nahiarekin azterketak garatu dituzte. Horretarako, dituzten baliabideen zerrenda egin dute, eta burujabeak izateko beharrezkoak dituzten baliabideenak. Modu honetan, beharrezkoak diren eta ez dituzten gaiak ondoko herriekin

trukeak eginez lortzen dituzte. Horrelako estrategiak herri zein eskualde mailan burutuko lirateke Goierrin ere.

Azkenik, **gizartea kontzientziatuagoa** egongo litzateke, bai balio zein ardurei dagokienez. Horretarako, gazte belaunaldi berriak eta haurrak sentsibilizatuko lirateke. Izan ere, gaur egun haurrek elikagaiak nondik datozen ez dakite eta ondorioz ez daukate ardurarik ez errespeturik lehenengo sektorearekiko zein lurrarekiko. Hau, ingurunearekin eman den deskonexio azkarraren ondorio da. Balio berri horiek lortzeko, ezinbestekoa litzateke **hezkuntzak balioen transmisioa** bermatzea. Balioen artean, lurrarekiko zein ingurunearekiko ezagutzaren, edo ardura eta kontsumo ereduaren garrantziaz gain, trukearen kontzeptua zein toponimiaren ezagutza iraunaraztea ere aipatu dira. Gizarteak etengabe aldatzen doan paisaiaren aldaketak onartu eta barneratuko lituzke, eskualdea aldaketetara egokituz.

5. BASERRI-PAISAIEN BALIOEN IDENTIFIKAZIOARI BURUZKO ONDORIOAK

Fase honetan burutu diren Goierriko bi saioen **balorazioa positiboa** izan da jasotako **ekarpenei** eta parte-hartzaileen **inplikazioari** dagokienez. Etorritakoen **kopurua** esperotakoaren barruan egon da. Gainera, jendeak saioetan modu aktiboan parte hartu du, eta parte-hartzea arina egin zaiola eta gustura egon dela esan daiteke.

Dena den, aipatu beharra dago Landa Garapen Elkartearen bidez identifikatutako eragileez gain ez dela saioetara askoz ere jende gehiago etorri. Hau udalen bidez egindako deialdiak uste baino eragin gutxiago izan duelako izan daiteke. Bestalde, nahiz eta saioetan udal ordezkari batzuk egon, ez dira udalerrri guztietakoak bertaratu. Beraz, azpimarratu behar da proiektu honen **emaitzek ez dituztela eskualde osoko iritzi eta sentsibilitateak bilduko**, ezta eskualdeko landa paisaiaren balio guztiak ere. Hala ere, argi dago hemen jaso direnak badirela paisaiaren balio, eta agian eskualdeko biztanle asko ados egongo direla hemen bildutakoekin.

Udal ordezkarienez gain, ikusi da lehenengo saioan parte hartu dutenetako batzuk ez dutela behaketa fitxarik bete, baina orokorrean bi saioetara bertaratutako kopuruak antzekoak izan direla.

Metodologiarekin jarraituz, esan beharra dago **hamar** izan direla jasotako paisaiaren behaketa **fitxak**, eta kopuru hau modu onean baloratu dela. Behaketa **fitxa betetzeko** orduan, aldiz, ordenagailuz betetzeko formatua eraginkorra izan dela ikusi da. Edukiari dagokionez, orokorrean arazorik sortu ez bada ere, kezka bat azaleratu da hizkuntza dela eta, baina orokorrean fitxaren erabilerari buruzko balorazio positiboa izan da. Urtaroen arabera paisaiaren elementuek hartutako pisua alda daitekeela aipatu da ere, eta horrek konplexuago egiten du fitxa betetzea.

Aztertutako **paisaiaren elementu garrantzitsuenei** dagokienez, behaketa fitxetan paisaian pisu gehien duten balioak **erliebea** eta **landaredia** izan dira, eta jarraian **lehenengo sektorea** eta paisaiak eragiten dituen **sentimenduak**. Bigarren mailan klima zein ura, azpiegiturak eta elementu historikoak daude. Bigarren saio praktikoan balio nabarmenak zehazterakoan azpiegiturak ez dira aipatu eta fitxetan azaldutako elementuez gain, **lurraren** emankortasuna zein honekiko biztanleek duten lotura, **harrien** presentzia, elementu ezberdinek sortutako **kontrasteak**, **natur baliabideak** eta eskualdeko **kultura** eta **hizkuntza** aipatu dira. **Turismoko materialetan** gehien erabilitako elementuak, mendiak (batez ere tontor harkaitzsuak dituztenak), elementu historikoa, natur-guneak, kultura eta lehenengo sektorearen produktuak zein paisaiak izan dira. Beraz, elementu guzti hauek eta beren arteko elkarrekintzak Goierriko paisaian ikur

nagusiak eta balio bereizgarriak direla esan daiteke, eta jada hauetako batzuen balioa agerian geratu da turismoko materialetan.

Aipatutako elementuen artean, erliebea, klima edo uraren presentzia gizakiak eralda ditzakeen arren, Goierriko paisaiei duten **izaera** ematen dieten ezaugarriak **naturaren eraginez** sortuak izan dira. Hori dela eta, horien mantenurako errespetua eta babesaz gain ez da besterik behar. Aldiz, Goierriin ezagutzen den ondare historikoaren zati handi bat, populatze eredia, landa-eremuko harreman motak, landaredia, edo eskualdean ekoitzitako produktuak, **lehenengo sektoreari** guztiz lotuak egon dira eta neurri batean oraindik ere horri lotuak daude. Orain arte, lehenengo sektoreari ez zaiola landa paisaien balioak gordetzeko egiten duen lana aitortu, eta are gutxiago jendartearen kaleratu. Gainera, orokorrean ez dago prestutasunik lehenengo sektoreari errentagarritasuna itzultzeko baldin eta horretarako norberaren gain eragina duten erabaki zein konpromisoak hartu behar badira. Beraz, gizartearen (bai kaletarraren zein lehenengo sektorean inplikaturako eragileen) **sentsibilizazioa** ezinbestekoa dela ikusten da.

Bestalde, **turismoko materialetan** landa-paisaiei emandako trataeran ere horien balioa agerian gelditu da. Egindako azterketaren arabera, landa-paisaiaren isla eskualdeko eskalara hurbiltzearekin batera pixka bat handitzen doa, baina nabarmenena turismo-motaren arabera ematen den trataeraren aldaketa da. **Turismo aktiboarekin** edo **naturarekin** erlazioan oinarritutako materialetan baserri-paisaien presentzia gehiago nabarmentzen da beste turismo motei zuzendutakoekin alderatuz gero. Bestalde, aipatu behar da lehenengo sektoreak sortzen dituen **larreak** erabiltzen direla gehien bat paisaia mota hauek sustatzeko, eta sarritan **abereak** edo **baserriak** azaltzen direla. Maizen erabilitako eskualdeko elementuak Aizkorri, Txindoki, Idiazabal gazta, ondare monumentala zein historikoa, natur-guneak eta kultura dira, lehen esan bezala.

Landa-paisaien balioen adibideetako bat **artelanetan isla** izatea da. Gainera, txostenean azaldu den bezala, proiektuan parte hartu dutenen artean hautatutako paisaietako batzuk artelanetan islatuak daude; horrek pertsona ezberdinen inspirazio iturri izan direla esan nahi du eta, beraz, garrantzia eman diotela. Horrez gain, aztertutako artelanetan paisaian bertan betetako fitxan zein saioetan identifikatu diren eskualdeko paisaien elementu nagusi eta bereizgarriak islatzen direla ikusi da. Gainera, lanetan urtaroen aldaketak paisaiara dakartzaten aldaketak ere islatzen direla behatu da, baita paisaiek norbanakoarengan sortzen dituzten sentimendu eta lotura ere. Ondorioz, pentsa daiteke eskualdeko paisaiak aldatzen jarraituz gero, eta artistak paisaietan oinarritzen jarraituz gero, aldaketa hauek ere artelanetan islatu egingo direla.

Saioetan landa-paisaiaren **etorkizunaz** aritu denean, lehenengo sektoreari dagozkion kezka atera dira, baita bizimoduaren aldaketan eta balio eta ezagutzen galerari buruzkoak

ere. Izan ere, etorkizuneko landa paisaian modu negatiboan eragin dezakeen faktore nagusia **lehenengo sektorearen gainbehera** da, lursailen erabilerak bertan behera uztea ekarri lukeena, baita baserriak eta auzoak hustea ere. Horrez gain, landa-eremuan jatorria ez duten pertsonak bertara bizitzera etorri eta integratzen ez badira, inguruan, auzo-ohituretan, pertsonen baliotan eta landa-eremuko biztanleen erlazioatzeko moduan eragina izango duela pentsatzen da. Honi aipatutako beste kezka gehitu beharra zaizkio, izan ere, Goierriko biztanle gehienak kaletar bihurtu direla esan daiteke eta ondorioz, lurra, natura zein elikagaiekiko ezagutza eta lotura galtzen ari dira. Ondorioz, lehenengo sektoreari errentagarritasuna itzul diezaioketen ekintzak garatzea ezinbesteko ikusten da, baita landa-eremuko gazteek bertan etxebizitzak eskuratzeko, biztanle berrien kontzientzian eragiteko eta landa-harreman zein ohiturak mantentzeko ekintzak ere.

Ildo berean, lehenengo sektorean dihardutenak paisaiaren eragile nagusienetakoak izanik, euren lana errekonozitzeaz gain, ezinbestekoa da haien **iritziak** aintzat hartzea landa-paisaian eragiten duten edozein ekimen edo proiektu abian jartzerakoan. Aldi berean, paisaia hauek **balioan jartzerakoan** modu orekatuan eta errespetuzko jarrerarekin egin behar dela azpimarratu da, batez ere gaizki antolatutako turismoak ondorio oso txarrak ekar baititzake ingurura.

Beste arazoetako bat, **lurraren jabetzaren zatikatzea** da. Izan ere, lursail bakoitzak kudeaketa helburu ezberdina jarraitu dezake, inolako koordinaziorik gertatu gabe. Hori dela eta, jabeen arteko kudeaketarako ildo komun bat ezartzea garrantzitsua dela uste da. Modu horretan, paisaia eraldatzea eta honen lantzea zein kostu ekonomikoak gutxitzea errazagoa izango litzateke.

Laburbilduz, argi dago hainbat arlotan landa-eremuak duen **balioa**, hala nola, turismoaren sustapenean, edo artean, nortasuna duen inguru atsegin eta lasaia izanik jendearentzat hartzen duen garrantzian, eskualdeko herritarren nortasunean eta sustraietan duten pisuan, eta abar. Dena den, esan bezala, gutxitan onartu zaizkio landa eremuari bete izan dituen funtzioak, eta are gutxiago paisaia hauek lantzen dituzten arduradunei. Dena den, landa paisaiek funtzio zehatzak betetzen dituzten bitartean, bertan hautematen diren **arazo nagusienak** landa-auzoen inguruaren mantenua bermatuko duen belaunaldi gazteen txanda hartzea, lehenengo sektorearen errentagarritasun falta, landa-eremuko biztanleen balioen aldaketak eta azpiegiturak paisaian zein inguruan sor ditzaketan eraldaketak dira. Hortaz, kezka hauei irtenbidea eman diezaioketen jarduera eta jarrera aldaketak burutzea lehentasunezko ekimena da, eta jada jarduera batzuk martxan badaude ere, hauetan sakontzea garrantzitsua da.

Halaber, ekintzak **finantzatzeko modu berriak** bilatu behar direla argi geratu da, eta finantzatzeko bidea aukeratzeko ekintzaren izaera eta eskalari hobekien egokitzen

zaion bidea hautatu behar da. Horrez gain, gizartean norbanakoaren **jarrera arduratsua** garatzen joan behar da landa paisaien balioekiko. Orain arte **baserriarrak** eta **diru publikoa** ikusi dira iturri ia bakartzat balio horien zaintzarako, eta horrek gizartea jarrera eroso batera bultzatu du, non norberaren aldetik esfortzua edo ardurarik jartzeko beharrik ez den. Jarrera horri buelta emateko beharra azaleratu da gogoeta honetan, landa paisaien balioak mantendu nahi badira behintzat.

Bukatzeko, proiektuan parte hartu duten pertsonen ekarpenek, nahiz jasotako artelanez, agerian uzten dute baserri-paisaiek ez direla edonolako balioak dituzten paisaiek. Zentzu honetan, oso azpimarragarria da parte-hartzaileek osatutako fitxen aberastasuna eta edertasuna; modu oso egoki eta pertsonalean adierazi baitituzte haiek baserri-paisaietan aurkitutako balioak.

Oso nabarmena da **baserri-paisaiek** euskal kulturaren testuinguruan **esanahi berezia** dutela, bertako **nortasuna**, **historia** eta **kulturaren** oinarritzko elementu direlako, **sinbolismoz** beteak. XX. mendearen hasieratik nabaria da egun paisaian ikusgai diren hainbat elementu eta ezaugarri **beste garai bateko baserriko kulturaren oinordeko** direla, onerako eta txarrerako **atzean utzitako garaien arrastoa**, noizbait herri bezala izan ginen hori gogora ekartzea ahalbidetzen digun ebidentzia. Iragana guregana ekartzeko duten indar hori dela eta eutsi nahi die gizarteak neurri handi batean baserri-paisaiei. Hala ere, **etorkizunera begiratzea** ere ezinbestekoa da, hurrengo belaunaldiei Goierriko landa-paisaiei dagokienez utzi nahi diegun **herentzia** zein izango den guztion artean erabakitzeke, eta egun lur horietan bizimodua irabazten dutenek **bizi baldintza duinak** izan ditzaten moduak bilatzeko. Bide horretan proposamenak egitea bilatuko du proiektu honen **hurrengo faseak**, Goierriko baserri-paisaietarako **ekintza** zehatzak mahai gainean jarri.

5.1. Landa-paisaien balioa agerian jartzeko ekintzak nola burutu?

Landa paisaiei zuzendutako **ekintzak** proposatu aurretik interesgarria da ekintzak **gauzatzeko moduen** inguruan gogoeta egitea. Jakina da egun krisian murgilduta gaudela, eta administrazioek ekimenak burutzeko dituzten aukerak urritzen ari direla. Beraz, proiektu honen baitan proposatuko diren ekintzak aurrera eramateko modu berririk bururatzen al zaigu?

Proiektu honen baitan eskualdeetako batean ospatutako saioetan gai honi buruzko eztabaida egiteko aukera izan dugu. Erreportaje motz bat ikusi ondoren («Se estrena documental financiado por la red sobre la historia un horno tradicional, Telediario - RTVE.es

A la Carta», d. g.), partaideek ideiak bota dituzte. Jarraian ikusiko dugun bezala, ekintzak burutzeko formula ezberdinak aipatu dira, baina bertaratutakoek adierazi dute **ekintzen arabera**koak izan behar dutela formula horiek, hau da, ez dela posible alde zuzenetik formulak aukeratzeko.

Bestalde, **finantzazio publikoa** ezinbestekoa dela esan bada ere, diru-iturriak lortzeko modu ezberdinez hitz egin da saioan. Horren harira, **gizartean eman beharreko aldaketa** azpimarratu da, guztionak diren balioekiko ardurazko jarrera orokortu dadin. Horrekin lotuta hain zuzen ere ondoko ekimenak azaldu dira: auzolana, denbora bankuak, lurralde zaintza, baserriko abereen aitabitxi bihurtzea, eta crowdfunding (finantzazio kolektiboa edo mikro-mezenasgoa), kontsumo arduratsua, kooperatibak. Bakoitzari buruzko azalpenak ematen ditugu jarraian.

Auzolana landa eremuan aspaldian ezaguna den formula da, modu boluntarioan edo derrigortuta elkarlanean egiten den auzoarentzako lana. Garai batean oso hedatua, egun oraindik ere eskualde batzuetan mantentzen den sistema da. Zenbait ekintza gauzatzeko aproposa izan daiteke, bai bere forma ohikoenean, baita auzolanaren interpretazio berrien bidez (adibidez, crowdfunding delakoa auzolan mota berri bat dela esan liteke).

Denbora bankua lan zehatzetarako norberaren denbora trukatzeko prest dauden pertsonen osatzen duten kolektiboa da («Bancos de Tiempo - Trueque Online - Trueques por Internet», d. g.). Diruan oinarritutako ekonomiatik ihes egiteko sistema bat da, zerbitzuak eta ondasunak diruarekin erosi ordez, trukean oinarritzen dena. Eskualde batzuetan badira honelakoak («AUZOPOLIS Denbora Bankua», d. g., «Tik-Tak Truk Tolosako Denbora Bankua | Facebook», d. g.). Orain arte denbora bankuak hiriarri lotuta daude nagusiki, baina ekimena molda liteke esku artean dugun proiektutik eratorritako ekintzetara. Landa eremuko biztanleek haien beharrak asetzeko, solidaritatea indartzeko eta harremanak sustatzeko balio lezake; hau da, landa eremuan identifikatu diren hainbat balio ukiezin kontserbatzeko.

Baserriko abereen **aitabitxi** bihurtzeko hainbat proiektu daude. Batzuk bertako arrazak kontserbatzeko balio dute (El refugio del burrito, d. g.), eta beste batzuetan baserriko produktuak eskuratzeko aukera ematen dute, laguntza ekonomikoaren truke. Formula hau ere egoki izan liteke sentsibilizaturik dauden herritarrek (kaletarrak bereziki) baserrira gerturatzeko, hiria eta landa eremuaren arteko harremana eta lotura sendotzeko.

Lurraldearen zaintza lurraldearen erabiltzaileak eta jabeak natura-, kultura- eta paisaia-baliabideen kontserbazioan eta berauen erabilera egokian inplikatu nahi dituen estrategia eta tresnen multzoa da. Horretarako, akordio eta etenik gabeko elkarlanak sustatzen ditu jabeen, zaintza-erakundeen eta bestelako eragile publiko nahiz pribatuen artean (Xavier Basora Roca & Xavier Sabaté i Rotés, 2006). Gure erkidego autonomoan hasi dira horrelako akordioak ematen, bereziki landa eremuan, eta espero da hurrengo urteetan

hedatzen joango direla. Tresna horien artean leudeke lur bankuak, adibidez. Bereziki garrantzitsuak izango dira honelako tresnak landa eremuko balioak kontserbatzeko, lur gehienak jabetza pribatuaren eskuetan daudela jakinda. Tresna hauek, gainera, landa eremuarekiko sentikortuta dagoen gizarteak hainbat praktika eta jarduera mantentzeko daitezkeen eta ustiapenek haien errentagarritasuna hobeto dezaten laguntzeko balio dute.

Crowdfunding, finantziario kolektiboa edo mikro-mezenasgoa bezala ezagutzen diren ekimenak, jarduera zehatzak finantzatzeko pertsona kopuru handien laguntza ekonomikoa biltzean datza. Ezaugarri bereizgarrienetako batzuk ondokoak dira: pertsona bakoitzak egindako diru-ekarpena txikia izaten da (maiz 5 eurotik hasita), eman nahi den kopurua aukera daiteke, eta emandako kopuruaren arabera pizgarriak eskaintzen dira ordainetan (finantzatzen lagundu duten pertsonen zerrenda zabalazetik hasita, lagundu duen enpresaren publizitatea egitera, edo ekimenari lotutako produktuak oparitzera). Maiz, IKTek eskuragarri jartzen dituzten bideak erabiltzen dituzte horretarako, nabarmenki Internet sarea. Verkami izeneko plataforma aipatzen da saioan, («Verkami | Crowdfunding para amantes de la creación», d. g.), baina egia da euskal plataformetan ere hasi dela honelako tresnak lehen sektoreko ekimenetarako erabiltzen, hala nola, Oiartzunen Goteo Euskadi plataforma erabiliz Arraztalo Elkarteak sustatutakoa (Arraztalo Elkartea, 2012). Honelako ekimenak landa eremuko balioen kontserbaziorako gutxi erabili diren arren, badute horretarako potentziala, eta bereziki aproposak izan daitezke hirietan bizi direnen laguntza ekonomikoa bideratzeko.

Kontsumo arduratsuak forma ezberdinak hartzen ditu, eta horien artean egun indar handia dute **kontsumo taldeek**. Landa eremuko balioak kontserbatzen asko lagun dezaketela uste da, baita kaleko eta baserriko bizimoduak elkarren artean hobeto ezagutzeko, eta gizartea landa paisaien balioez jabetzeko ere. Eskualde nahiz udalerrri mailan talde hauek hedatzen ari dira, eta aukera polita ematen dute eskualdean bertan esku hartzeko. Kontsumo taldeen aldaera bat bezala har litezke eskualdeko hainbat erakunde edo enprekin akordioak zehaztea ekoizle batek (edo talde batek) baserriko produktuz hornitzeko (adibidez, langileentzat edo ikasleentzat dituzten jantokietan janaria prestatzeko enpresa/eskolekin egindako hitzarmenak, edo jatetxeekin egindakoak).

Kooperatibek emaitza onak eman dituzte eskualdean orain arte, eta etorkizunari begira ere egoki ikusten da horiek sustatzea, lehen sektoreko ekoizleek bakarka aurrera eramanez ahal izango ez litzuketen zenbait ekintza mamitzeko balioko dutelako. Kooperatibez gain, elkarrekin eta bestelako ekoizleen sareek funtzio berak bete ditzakete.

Herritarrek ekintzak burutzen inplikatzen, saiora bertaratutakoek garrantzitsu ikusi dute burutu nahi den hori herritarrei gerturatzeko, eta konpromiso mugatua eskatzea. Izan ere,

jendea mobilizatzea zaila da. Horregatik, oso garrantzitsu ikusten da **sentiberatzea**, inplikazioa emateko aurrebaldintza baita.

6. IDENTIFIKATUTAKO BASERRI-PAISAIEN INGURUAN PROPOSATUTAKO EKINTZAK

6.1. Proiektuko fase honetan emandako urratsak eta parte-hartze saio irekiaren datuak

Proiektuaren aurreko fasean identifikatutako baserri-paisaien balioak agerian jartzeko eta mantentzeko proposenak izan daitezkeen ekintzak zerrendatzeko ere eskualdeko eragileen parte-hartzetik abiatu dira lanak. Horretarako, beste **partaidetza saio ireki bat** antolatu da eskualdean.

Partaidetza saioaren **deialdia** zabaltzeko moduari dagokionez, aurreko bi saioetarako emandako **urratsak** errepikatu dira, dokumentu honen 2.2 atalean kontsulta daitezkeenak.

Partaidetza saioan ekintzak proposatzeko orduan paper zuri baten gainean eztabaida hasia baino errazago suerta daiteke alde aurretik egindako proposamen baten gainean ekarpenak egitea. Horregatik, aurreko faseko baserri-paisaien fitxetan eta partaidetza saioetan proposatutako ideiak, eskualdean aurretik gauzatutako ekintzak eta eranskinen argitalpenean bilduta dauden beste herrialde batzuetan burututako ekimenak gogoan izanda, ekintzen sorta bat prestatu da partaidetza saioan lantzeko, eta deialdiarekin batera zabaldu da, parte-hartzaileak saioaren aurretik buruari eragiten hasteko asmoz.

Partaidetza saio irekia GOIMEN Landa Garapen Elkartearen egoitzan (Zaldibiako Goizane eraikinean) 2013ko apirilaren 17an ospatu da, eta hamabi lagun bildu ditu. Saioaren **helburua** ekintzen inguruko **ideia-zaparrada** sortzea izan da, proposatutako ekintzen artean **lehentasunak** ezartzeko denborarik hartu gabe. Azken hori eskualde guztietako saioak bukatu ondoren inkesta txiki baten bidez egitea erabaki da, eta horren emaitzak orrialde batzuk aurrerago azalduko dira.

Saioa aurreko fasean lortutako emaitzak **laburbilduz** hasi da, fitxetan eta bi partaidetza saioetan identifikatutako baserri-paisaia esanguratsuak, baserri-paisaietako balioak eta aurrera begira dauden erronkak labur-labur gogoratu.

Sarrera arin horren ondoren, partaideak hiru taldetan banatuta ekintzen zerrenda eztabaidatu da, ekintza batzuk baztertuz, beste batzuk aldatuz eta ekintza berriak gehituz. Eskualdeko baserri-paisaien **balio zehatzei buruzko ekintzak** hiru taldeetan eztabaidatu dira, garrantzitsu ikusi baita partaide guztiek eskualdeko berariazko ekintzen inguruan iritzia ematea.

Talde txikian izandako eztabaidan ekintzak burutzeko orduan kontuan hartu beharreko gaitan sakondu da, eta eztabaida mamitsuak sortu dira, ekintza bakoitzari buruzko fitxetan jaso direnak. Ekintza batzuetan azpi-ekintza zehatzak identifikatu dira. Sortutako ekarpen guztiak ekintzen fitxetan jaso dira, eranskinen argitalpenean ikus daitezkeenak.

6.2. Saioaren emaitzak

Hiru taldeetako eztabaidak batera jarri dira saioaren bukaeran, eta hauxe da adostutako ekintzen zerrenda, bildutako iritzi eta ohar guztiak barne:

Baserri-paisaiez gozatu ahal izatera bideratutako ekintzak

1. Eskualdeko oinezko bide berdeen sarea diseinatu eta zabaldu.
 - o Deskribapena: Bide berdeen sareak herri bideen berreskuratzea bultzatuko luke, Goierri motor bidez gaindiko kota mantenduz. Sare honetan sartu beharko lirakeke udalek mantentzen dituzten PRak, baita Mendi Federazioak mantentzen dituen GRak ere.
2. Eskualdean baserri-paisaien ibilbideak izan daitezkeenak zehaztu eta haien sustapen berezitua egin.
 - o Deskribapena: Eskualdean Tolosaldearekin batera identifikatutako paisaia-errepideak daude autoz eskualdeko paisaiez gozatzeko proposenak diren errepideak identifikatzen dituztenak. Ekintza honek harago joatea bilatzen du, eta autoz puntu batera iritsita, ondoren oinez egin daitezkeen ibilbideak, nahiz autoaren beharrik gabe herrietatik oinez irtenda egiteko ibilbideak identifikatzea bilatzen du, beti ere proiektu honetan azaleratutako baserri-paisaien balioez gozatzeko eta horietaz jabetzeko balioko dutenak. Lehentasuna ematen zaie norberaren herritik zuzenean oinez egin ahal izateko ibilbideak identifikatzeari, bailara kota baxuetan zeharkatuko dutenak. Baserri-paisaien ibilbide hauek zabalagoa izango litzatekeen sare berde baten parte lirakeke.
 - o Baserri-paisaien ibilbideetarako hautagai batzuk: Goiturreko ikusmira puntuekin lotutakoak, Lazkaomendin Ordizia – Zaldibia – Lazkao, Altzagatik Gaintzara, Zaldibia Tejeri Enirioko Galtzada, Itsasondo Urkia Murumendi, Brinkola Barbari auzoarekin lotzen duen pasua Aizkorri aurrez aurre, Araman herriari buelta ematen dion ibilbidea, Zaldibiatik Arroegi auzoa – Urretakale auzoa – Goizane – Zaldibia egiten duena, Goierri auzoa Lazkaorekin lotzen duen ibilbidea, Beasain – Altamira – Olaberria, Sara ibilbidea, Zaldibiatik

Arkakara doan bidegorria, edo Intxaurpe elkarteak Beasainetik Arriaran auzora doan ibilbidearen inguruan duen proiektua, liburuxka batean lantzerantz doazena. Urola Garaian, Urretxu eta Legazpi lotuko lituzkeen oinezko pasabidea garatu, Urretxuko Lekaio elkarteak landutako Tortoa – Deskarga ibilbidea.

3. Udalerri mailan herri-bideen inbentarioak egin.

- Deskribapena: Eskualdean badira udalerri batzuk herri-bideen inbentarioa egin dutena, baina beste batzuk ez. Baserri-paisaien balioez gozatzeko ibilbideak sustatzeko ezinbestekoa da herri-bideak zeintzuk diren ezagutzeko. Bestetik, herri-bideek maiz tokiko historia azaltzen dute, bide horiei lotutako erabilera eta ohiturei esker; beraz, herri-bideak paisaiaren ondare ere badira. Hori guztiagatik interesgarri jotzen da udalerriek herri-bideen inbentarioak egitea. Inbentario horiek ez dute zertan udalerri osoa hartu behar, ezta herriko bide guztiak ere; auzo bateko edo ibilbide zehatz batzuetako azterketak izan daitezke, eta hori inbentarioa egin aurretik adostu daiteke. Helburua gatazkarik sortu gabe herri-bideak balioan jartzeko moduak bilatzea litzateke.
- Azpi-ekintza: Udalerri mailako herri-bideen inbentarioetatik abiatuta, eskualdeko bide berdeen sarean herri-bide horiek integratu, eskualdeko ikuspegitik koherentzia duen sare batean.
- Azpi-ekintza: Herri-bideen erabilera egokia erregulatu, bide hauek zeharkatzen dituzten lurretan kalte eta eragozpenik ez sortzeko. Bereziki, langa eta itxituren errespetua, bideen alboetan dauden lursail eta abereen errespetua eta bisitariari zuzendutako beste hainbat gomendioz ari gara. Sarreretan zenbait azalpen panelek erabilera gonbidatu behar dute, eta bidea egiteko konfiantza eman, nahikoa informazio eskainiz, eta aukera, baliabide eta baldintzak azalduz.

4. Eskualdeko baserri-paisaiez gozatzeko proposenak diren mendi-tontorrek identifikatu, eta horietatik bista panoramikoak baso-landaketek oztota ez ditzaten neurriak hartu.

- Deskribapena: Baso-landaketek bistak ez oztopatzeko akordioak eta konpentsazioak Paisaiaren Kartan jaso litezke, egingo balitz. Eskualdean honelako ekintza bat beharko lukeen guneen artean Irimo gaina identifikatu da.

5. Santa Barbarako parkearen barneraketa eta bertako paisaien balioztatzea, bertako baserri-paisaien inguruan burututako gogoetak indarrean jartzea bilatuaz, Irimo bueltako gerriko pista, eta Karakateko kordala.

- Deskribapena: Udalak proiektua badu, baina Santa Barbarak bi isurialde ditu eta udala horietako baten jabea da bakarrik. Bi isurialdeak mantentzeko ahaleginak egin beharko lirateke, udalarena den lurrera mugatu gabe.

6. Antigua baselizako paisaien balioztatzea, eta inguruan eraikitzen ari diren zenbait elementuren barneraketa, urbanizazio biguna aplikatuz.

7. Legorretako PR-a Koateko auzotik Bartzelona auzora alderakoa PR -Gi_72.

8. Mirandaolako inguruak baserri-paisaiaren ezaugarriak kontserba ditzan eta bertako lasaitasuna mantendu dadin neurriak hartu.

- Deskribapena: Lenburrek aurreikusitako zituen zenbait gogoeta eskuratzea komeniko litzateke. Landa eremuen mugak ondo definitu beharko lirateke jendea jabetu dadin, eta aplikatuko diren interbentzio edo urbanizazioak ahalik eta bigunenak izan daitezela bermatu, eredu izatea bilatuz, eman daitezkeen bestelako herri-hazkuntza kasuetarako.

9. Itsasondoa loia azpiko sakonuneko erreka eta garai bateko meatze sarrerak balioan jartzea aztertu.

- Deskribapena: Iraola baserrira iritsi aurretik dagoen gune honetan garai batean pizarra ustiatzen zen (Sarasola eta Altuna familien meatze garrantzi berezia hartuz), eta herriaren historiari oso lotutako tokia da, bertako lan baldintza zailek arrasto sakona utzi dutelako herritarrengan, oraindik ere nabarmena dena. Galeria horiei lotutako historia zabala egoteaz gain, inguruak naturaren aldetik balioa du ere, errekaaren ertzetako landaredia dela eta. Ekintzak inguruko herri-hazkuntzat balioan jartzea bilatuko luke. Gune hau AHTko sarrera batekin bat datorrenez, bi guneak barneratzea merezi ote duen ikusi beharko litzateke.

Baserri-paisaien kalitatea hobetzeko ekintzak

10. Toponimia, bizimoduak, ohiturak edo lanbideen ezagutza belaunaldi berriei transmititzeko ekintzak garatu.

- Deskribapena: Transhumantzia bezalako ohituren eta baserri-paisaien bestelako balio ez-material askoren transmisioa bermatzea bilatzen du

ekintzak. Adibidez, Ordizian egindako azterketa batek erakutsi du transmisio hori aitona-amonetatik bilobetara egiten dela, baina tarteko belaunaldiak honen berri ez duela. Gertakari honen arrazoien inguruan hiru hipotesi daude: gurasoek ez dute denborarik transmisioa burutzeko, guraso gazteek ez dute ezagutza hori, eta teknologia berrien eraginez transmisioa eta harremana galtzen ari dira.

- Azpi-ekintza: Herrietako bizipenak jaso eta belaunaldi berriei ezagutzaren transmisioa burutzeko ekintzak antolatu, horretarako herriak inplikatu. Honetarako eredu ezberdinak erabil daitezke: ezagutza hori dutenek hitzaldien bidez transmititzea, tokien denbora-lerroak osatzea, etab. Ekintza hau herrietako elkarte ezberdinek bultzatzen dira. Adibidez, Lekaio elkarteak Irimo inguruan toponimia berreskuratzeko ekintza burutzen ari da. Inguruko herrietako biztanleek izen ezberdinekin ezagutzen dituzte gune berak, eta beraz toponimia ezberdinak azaltzen dituzten kartelak jartzen ari dira. Ordiziako Oiangu parkean, aldiz, lehengo usadioak berreskuratzeko prozesu bat burutzen ari da, baita San Inazio erromeria berpizteko ere.
- Azpi-ekintza: Hitzaldiak antolatu ereiteko eta landatzeko garai aproposak zeintzuk diren azaltzeko, zein nekazaritza produktu landatzea komeni den eztabaidatzeko, eta abar. Modu horretan, garai bateko nekazaritza ezagutza berreskuratzeko da, baserriarrek hitzaldi zein mintegiak eman ditzaten saiaturik. Horrek harremanak estutzeko balioko du ere.
- Azpi-ekintza: Gune berde edo eskola barazetan baserriarrek kontaktua eta euren bidezko ezagutzaren transmisioa bultzatu. Horrek harremanak estutzeko balioko du ere.

11. Itsasondan hondakinak pilatuta dauden lursailaren jabearekin inguru haiek txukuntzeko akordioa lortu eta gai horiek arautu.

- Deskribapena: Gunea Berostegiko auzoan dagoen mendixka gorria da, duela hamarkadak bertan behera utzitako meategia da, aspalditik hondakinak pilatzen dituen. Udala eta Eusko Jaurlaritza arazoaz jabetu arren, orain arte ez zaio irtenbiderik eman ahal izan, eta eskualdeko baserri-paisaia inpaktu bat da.

12. Igartubeiti inguruan eta, orokorrean, Ezkio-Itsaso inguruan egiten ari diren lanak paisaia inpaktu txikiarekin sortzeko erantzunak eman daitezela ziurtatu.

- Deskribapena: Aurreikusten da egiten ari den proiektuaren barnean hau ondo lotuta egongo dela, baina hala ere ziurtatzea komeniko litzateke.

Sentsibilizaziorako materialak prestatzeari buruzko ekintzak

13. Eskualdeari buruzko informazio turistikoan (webguneak, liburuxkak...) proiektuan identifikatutako landa-paisaia balioak islatzen direla bermatu, horretarako beharrezkoak diren azterketa eta aldaketak eginez.

14. Eskualdetik kanpoko turismoari buruzko web orriak eskualdekoekin lotu eta, beharrezkoa bada, informazioa osatu.

- Deskribapena: Oso nabarmena da eskualdeaz gaindiko erakundearen ardurapean dauden turismoarako baliabideetan kostaldean eta hirietan oinarritzen den eskaintzari erabateko garrantzia ematen zaiola, barrualdeko baserri-paisaia alde batera utziz. Egoera hori iraultzea bilatzen du ekintzak.

15. Paisaiaren inguruko sentsibilizazio materiala sortu eskualdeko webguneetan txertatzeko.

- Deskribapena: Ekintza hau 13. ekintzarekin batera egin liteke.

16. Eskualdeko landa-paisaia inguruko hausnarketa bultzatzeko duen argitalpena prestatu, garai bateko eta egungo landa-paisaia argazkiak oinarri gisa erabiliz.

- Deskribapena: Beste toki batzuetan egin dira honelako ekintzak (http://www.catpaisatge.net/docs/suple_nadal12.pdf). Eskualdean <http://www.guregipuzkoa.net> webguneko Xabier Eskisabelen argazkiak erabil litezke honetarako, adibidez. Gaur egun AHTaren obrek eskualdeko baserri-paisaia duten eragin sakonaren ondorioz, baserri-paisaia batzuk erabat aldatzen ari dira, eta oso aproposa izan daiteke honelako gogoeta egitea.

17. Eskualdeko baserri-paisaia inguruko Wiki bat sortu, herritarrek elkarlanean informazioa eta materiala biltzeko. <http://ha2a.net/> webgunean txerta liteke.

- Deskribapena: Egokia izan daiteke eskualdean paisaia azterketen fitxak osatzen joateko plataforma moduan, adibidez.

Baserritarrek egiten duen lanarekiko sentiberatzeari eta partaidetzari lotutako bestelako ekintzak

18. Herritarrek baserri-paisaia osatzen dituzten elementuak errespetuz tratatzeari buruz sentiberatzeko ekintzak burutu.

- Deskribapena: Baserri-paisaia balioa neurri handi batean jabetza pribatuko elementuetan oinarritzen da (zelaiak, soroak, basotxoak, bidezidorrak, hesiak, txabolak, harresiak eta abar). Beharrezkoa da baserri-paisaia

gerturatzen diren herritarrak (kaletarrak, bereziki) elementu horiek errespetatzea, baserriarrek paisaia bisitariari irekita mantentzen jarraitu ahal izan dezaten, haien jardueran inolako kalterik jaso gabe. Bide sarreretan eta jendea biltzen den guneetan, naturaz gain, baserriari buruzko informazioa sartzen saiatu, artaldeak, goiko larreak, baserri kulturaz mintzatuz, adierazpenak jasoz.

19. Eskualdeko artisten artean baserri-paisaiekin lotura berezia dutenen lanak paisaian txertatu.

- Deskribapena: Eskualdean badira hainbat artista (bertsolariak, margolariak, idazleak eta abar), eta horietako batzuk baserri-paisaiekiko lotura estua dute, edo haien obrak baserri-paisaiei erreferentzia egiten die. Horrelako kasuetan, lotura hori ezagutzea emateko ekintzak burutzea bilatzen da. Ekintza burutzeko orduan, artelanak jasoko dituzten euskarriak baserri-paisaian ondo integratzen direla bermatuko da, eta bandalismoko arazoak aurreikusiko dira.
- Azpi-ekintza: Lazkao Txikiren bertsoak jarri Lazkaomendi inguruan egokien ikusten den ibilbidean (hau eskola zaharrean, San Juan En Porta Latinam – Intxurrenean), edo zuzenean bere jaiotetxe aurreko bidegurutzean Intxustiko bidea eta Intxurrenera doan goiko bidegurutzean.

20. Herritarrei zuzendutako landa-paisaian ikus-entzunezko baliabideen inguruko lehiaketak eta ekimenak proposatu, sentikortzeko ekintza gisa.

- Deskribapena: Eskualdeko hainbat tokitan egiten dira honelakoak, hala nola, Igartubeitin bertsoak sakelako telefonoaren bidez entzutea inguruak bisitatzen diren bitartean, edo Zerainen udaberriaren soinuak entzunez egiten den ibilbidea. Hala ere, jarduera gehiago egiteko aukera ikusten da.
- Azpi-ekintza: Eskualdeko ibilbideen soinu-paisaiak bildu, eta webgune jakinen bidez zabaldu. Webgune horiek eskualdeko erakundeek izan daitezke, erakundeek sare sozialetan duten presentzian oinarritu daitezke (Facebook-eko orritik eskuragarri dagoen Sound Cloud-eko aplikazioa sortuz), edo soinu-paisaiei buruzko webgune espezifikoak (Audiolab, Soinumapa.net, & Arteleku, d. g.; Audiolab, 2005).
- Azpi-ekintza: Eskualdeko ibilbideetako paisaian argazkiak trukatzeko plataformak erraztu (adibidez, erakunde batzuk Flickr erabiltzea proposatzen dute), eta eskualdeko baserri-paisaien bideoak biltzeko YouTube kanala bat sortu.

- Azpi-ekintza: Proiektu honetan identifikatutako baserri-paisaieko balioen inguruan argazki lehiaketak antolatu, adibidez, ondoko gaiak hartuta: baserriarren lana, zuhaitzak, ondare kulturala, auzolana, eta abar.
- Azpi-ekintza: Eskualdeko erakundeen partaidetzarekin eginiko egutegia osatu.

21. Arteaz baserri-paisaiekin gozatzeko ekimenak antolatu.

- Deskribapena: Antolatzen dira honelako ekimenak, baita herri txikietan ere, adibidez, Aramako jazz kontzertuak edo Igartubeitin antolatzen direnak. Helburu duten publikoaren arabera ondo aukeratu behar dira baserri-paisaiekin kalterik ez sortzeko, hori bai.
- Azpi-ekintza: Antzerkiak eta kontzertuak landa-eremuan burutu, kanpoan, erraz iristeko moduan dagoen baserri-paisaia batean. Modu horretan, biztanleek landa-eremuarekin lotura berreskuratzea sustatuko da.
- Azpi-ekintza: Eskualdeko landa-paisaiak baliabide bezala erabiltzen dituzten artista/artelaren inguruan ekimenak antolatu (erakustaldiak, literatura tailerrak, bertso-saioak...).
- Azpi-ekintza: Kanpoan margolanak egiteko saioak antolatu landa-paisaiekin, ikastaro eta mintegi bidez.
- Azpi-ekintza: Landart-a hedatu.

22. Eskualdeko herri edo hiri nagusietan Aste Berdea ospatzen bada, landa eremuan burutuko diren hainbat jarduera txertatu (lehiaketak, ibilaldiak, erakusketak eta abar).

23. Eskualdean ekoizten diren baserriko produktu nabarmenen inguruan jarduerak proposatu.

- Deskribapena: Honen eredu Tolosaldea Garatzenek antolatutako Tolosako Babarrunaren ibilaldia izan daiteke (Tolosaldea Garatzen, d. g.). Oiarde landa-etxeak gai honekin erlazioan daitezkeen ekintza bat burutu zuen. Elkarrekin ezberdinei sagardoa eskuratzeko eskatu, eta ondorengo txapelketa bat burutu zuen. Honetan enologo batek parte hartu zuen eta lau sagardo hoberenak sailkatu ondoren elkarrekin hoberena zein zen adierazteko eskatu zien, txapelketa gisako bat burutuz. Ondoren, enologoak hoberena zein zen adierazi eta asmatutako elkarrekin sari bat irabazten zuen. Ekintza hau, lehenengo sektoreko produktuen promozioa egiteko oso egokia ikusten da, baina sagardoa erabili beharrean bertan kontsumitutako produktuekin soilik

- burutzea proposatzen da, sagardoa eskualde ezberdinetatik ekarri baitzen. Bertatik Bertara antolatzen da ere Urola Garaian.
- Azpi-ekintza: Eskualdean ekoizten diren produktuekin erlazionatutako edo baserri zehatzen inguruko auto edo/eta oinezko paisaia-ibilbideak egokitu, horien interpretaziorako.
24. Paisaiari lotutako jardunaldi gastronomikoak antolatu, edo ospatzen diren ekimen gastronomikoetan paisaiarekin erlazionatutako jarduerak txertatu, hala nola, jardunaldian landuko diren produktuak ekoizten diren paisaian ezagutzea, ondoren prestatu eta dastatzeko.
- Deskribapena: Lurrama azokaren aurretik egiten diren ekintzak eredu bezala har daitezke, hala nola, izen handiko sukaldariak eta ekoizlea egun batez bildu eta azoka batera eramango den menua adostu. Beste ekintzetako bat kontsumitzaileak, sukaldariak eta ekoizleak elkartzea da, mahai inguru bat egiteko.
25. Herritarrek beren herriko paisaia eta ibilbideak ezagutzeko ekintzak antolatu.
- Deskribapena: Herritarren artean gertuko paisaiaren ezagutzaren galera eman dela sumatzen da. Ezagutza hori berreskuratzeko, eta paisaiarekiko atxikimendua sustatzeko ibilaldi gidatuak, orientazio-jolasak, geocatching-eko jarduerak (Groundspeak, d. g.), ginkanak eta antzeko ekintzak antola daitezke herrietako baserri-paisaietan, bertakoei zuzenduak. Baserri-paisaiak balioan jartzeko nahiz helburu didaktikoekin egin daitezkeen ekintzak dira. Ordiziako Azokaren bueltako 500ak, herria baserriarren mundu birtuala gerturatuz, haurrekin jokoak, audio-gidak, QR kodeen bidez zein errealtate areagotu deritzen aplikazio informatikoen bidez informazioa eskuragarri izatea izan daitezke ideia batzuk.
26. Landa eremuko balioak zabaltzeko sakelako telefonorako aplikazio bat sortu.
- Deskribapena: Teknologia berriak erabiltzea oso interesgarria den arren, ezin dira ohiko formatuak ahaztu.
27. Eskualdeko nahiz eskualdetik kanpoko ikastetxeei zuzendutako jarduera didaktikoen proposamena prestatu, landa-paisaiak ardatz gisa hartuta eskualdeko baserri-paisaiak ezagutzera ematea helburu izango dutenak.
- Deskribapena: Baserrira Natur Eskola Bizia... Iztueta Elkartea barneratuz, Latxaren artilearen lanketa... dira ideia batzuk.
28. Baserri-paisaiekiko eta inguruarekiko norbanakoarena nahiz kolektiboa den ardura bultzatzea, baita auzolana ere, eta auzolanerako formula berriak bilatu.
29. Denbora bankuak, mikro-mezenasgoa eta hirietan gehienbat sortzen ari diren beste hainbat ekimen eta tresna (asko laugarren sektorea deritzonari lotuak) proiektuaren helburuen mesedetarako nola erabil ote daitezkeen hausnartu.
- Deskribapena: Lur bankuaren definizioaren zain, elkarlana zertan izango den ikusteko. Biodibertsitate diru-laguntzak udalekin elkarlanean garatu. Gailurren babesa.
- Lehen sektoreko produktuen kontsumoari buruzko ekintzak**
30. Baserriko produktuen kontsumoa, bereziki abeltzaintzako produktuena, eta paisaiaren balioen kontserbazioaren inguruan herritarrak (kaletarrak bereziki) sentikortzeko ekimenak zabaldu.
- Deskribapena: Kontsumitzaileari ekarritako onura eta balioen inguruan zabaldu behar da informazioa, gehienbat.
31. Baserriarrek sortzen dituzten baserri-paisaien zein produktuen balioetan sinets dezaten sentiberatze ekintzak burutu.
32. Eskualdeko lehen sektorearen ekoizpena bertan kontsumitua izan dadin sustatzeko ekintzak bultzatu.
- Azpi-ekintza: Salmenta zuzena egiten deneko puntuan eta kontsumo taldeak identifikatu.
33. Eskualdeko produktuak erostea eta zerbitzuak kontsumitzea sarituko duen sistema sortzea.
- Deskribapena: Adibidez, kontsumitzaileari puntuak metatzen joatea ahalbidetuko dion sistema sor liteke, eta produktuak erostearen truke lortutako puntuak eskualdeko turismoa eta aisialdiko eskaintzan erabil litzake (nekazaritza-turismoak, jatetxeak, aisialdiko jarduerak eta abar), eta alderantziz. Hala ere, hau egiteko txartelen sistema ez da egoki ikusten, gaur egun establezimendu askotan eskaintzen baitute sistema hau, eta gizarteak jarrera ezkorra garatu du honekiko. Adibidez, taula bat erabiltzea proposatzen da, horrela erosketa bakoitzarekin taula horretan itsatsiko den puntu bat lortuko da, eta taula osoa betetzerakoan deskontua lortuko da. Kixkurgune – Ni ere azokara – Bertatik bertara
34. Udalerrri mailan salmenta zuzena egiten duten ekoizleen berri zabaldu.

- Deskribapena: Kixkurre seinalizazioa BerBert / Gustum.
 - Azpi-ekintza: Salmenta zuzena egiten den puntuak seinalezatu.
 - Azpi-ekintza: Erosketa errazteko moduak garatzen jarraitu.
35. Eskualde mailan eskaria duten lehen sektoreko produktuen ekoizpen, eraldaketa eta salmenta sustatzeko ekimenei jarraipena eman. Goizane Inkubategi Area.
36. Baserritarrak betetzen dituen funtzioak saritzeko sistemak mantendu eta hobetu.
- Deskribapena: “Baserritarra, natur zaintzailea” ekimena burutzen da Goierriin, baserritarrak betetzen duten funtzioagatik sarituz. Hala ere, baserritarra saritzeko udalen zergetan hobariak aplikatzea prozedura egokiagoa dela uste da.
37. Bertako produktu eta zerbitzu jakin batzuei kanon bat ezartzea, bide horretatik bildutako dirua lehenengo sektorea sustatzeko ekimenetara zuzentzeko. Eskualdeko biztanleei ez litzaieke kanona kobratuko, edo txikiagoa izango litzateke beraientzat. D’elikatuz.
- Turismo bulegoetan liburuxka eta materialei “landa-paisaien” tasa bat jarri, eta biltzen den dirua lehenengo sektorea bultzatzeko ekimenetara bideratu. Natur Zaintzaile ekimenen historiko bat garatu.

Lehen sektoreari eta landa-eremuko herriei buruzko ekintzak

38. Lurrari lotutako ustiapenak bereziki sustatu, bultzatu edo lagundu, haien bideragarritasuna eta etorkizuna bermatzeko asmoz.
- Deskribapena: Lehen sektoreak gizarteratzeko ekimenak behar ditu, erakustazoken modukoak.
 - Azpi-ekintza: Ustiategi edo baserrietan jardunaren dibertsifikazioa, eredu ez intentsiboa eta bertako arrazen ustiaketa mantendu daitezen eta errentagarriak izan daitezen ekintzak burutu. Adibidez, udal mailan diskriminazio positiboa eta neurri konpentsatzaileak eman daitezela bilatu behar da, udal-tasen ordainketan, nekazaritza egiturak sendotuz, eta abar, edo Bertatik Bertara produktuen kontsumoa sustatuz.
 - Azpi-ekintza: Azoka eta gizarte ekimenetan bertako nekazaritza eredia txertatu, abeltzaintzan oinarrituak daudenez, erakusleio eta ekintza egokituak bideratuz, Santa Luziako azoka apartean hartuta.

- Azpi-ekintza: Garai bateko baserri produktuak eta orduko jardunak nolakoak ziren gizarteratzeko ekimenak. Lekaiok egin izan du garo metak herrian denontzat ikusgai eginez, “show working” aplikatuz.
39. Ustiapenetako laboreetan bertakoak diren barietateak berreskuratzeko eta, baita barietate horiei lotutako ezagutza hedatu (ez bakarrik laborantzari buruzkoa, baizik eta transformazioari eta elikagaiak egiteari buruzkoa ere), kontserbatu eta zabaltzeko ere ekimenak martxan jarri.
- Deskribapena: Dibertsifikazioa laboreetan ez ezik, jardueretan ere sustatu beharko litzateke.
 - Azpi-ekintza: Eskualdean bertakoak diren barietate eta arrazen ikerketa antropologiko, historiko eta soziologikoak bultzatu, berauekin erlazionatzen den ezagutza azaleratu eta hedatzeko asmoz. Gerriko Beka (Goierriko Sagastiak - Upategiak)
 - Azpi-ekintza: Bertako barietateen hazien trukaketarako ekoizleen sareak sortu, baserri-paisaien biodibertsitatea eta paisaien aberastasuna mantentzeko.
 - Azpi-ekintza: Ekoizleentzat errentagarriak ez diren barietateak eskola-barazetan edo Biolurren bidez bideratu.
40. IKTak lehen sektorearen alde egiteko erabiltzen jarraitu eta horretan sakondu (adibidez, produktuen salmentarako). Gure Lurretik, Ordiziako azoka 500ak.
41. Lurraren kultura sustatu, hirietan nekazaritzaren presentzia barneratuz
- Azpi-ekintza: Espazioak sustatu hauen presentzia gertukoa izan dadin, lokalak erakustoki modura, elkarguneak herrian bertan irekiz, toponimia, lanabesak ikusgai jarritz, adibidez.
42. Auzo-lokalik edo -elkarerik ez dagoen landa-auzoetan horrelako bat sor dadin sustatu, landa-bizitza suspertzeko tresna gisa. Horretarako, borda edo baserri hutsak egonez gero, horien zaharberritzea aztertu daiteke, adibidez.
- Deskribapena: Elkarrekin indartzea oso helburu garrantzitsua da, ezagutzaren eta baserri-kulturaren transmisioan laguntzen dutelako, besteak beste.
43. Lurren jabeek etorkizunari begira zer asmo duten jakin eta lur horien erabilera zein den ezagutu, paisaia nola alda daitekeen aurreikusi eta beharrezkoak ikusten diren ekimenak burutzeko.

Aisiari eta turismoari lotutako ekintzak

44. Baserri-paisaietara eta bertako ustiategietara bisita gidatuak antolatu.
- Deskribapena: Beste herrialde batzuetan oso barneratua dago tokikoa balioan jartzeko joera, eta oso ohituak gaude beste herrialde batzuetako landa-eremuak ezagutzera joatean nahiko “normalak” diren ustiategietara bisita gidatuak egiten. Eskualdean bisita gidatuak egiten dira, eta ekintza honek horrelako jarduerak hedatu eta indartzea bilatzen du, baita salmenta zuzena egiten duten ustiategietan baserri-paisaiei etekina ateratzea ere, bisita gidatuen bidez, edo bestela.
45. Landa-turismoa sustatzeko eskualdeko hainbat zerbitzu eta produktu bilduko dituzten pack-ak sortu.
- Deskribapena: Adibidez, ostatu-gau bat, turismo aktiboko ekintza bat eta azoka bateko erosketetan deskontu-txartela bilduko dituen produktua. Kixkurre ekimenekin bateragarri egin beharko litzateke. Eskualdean, Zerainek “Mucho más que un regalo” pack-a izan zuen eskaintzan, emaitza onekin.
46. Landa-eremuko turismoko eskaintzaren asoziazionismoa sustatu.
- Deskribapena: Ekimena ostatuera ez ezik, jatetxeetara, aisialdiko zerbitzuera, salmenta zuzena egiten duten ekoizleera eta abarretara zabal liteke.
47. Mirandaola gune turistikoa eta baserri-paisaia denez, paisaiaren diskurtsoa txertatzeko aukerak baliatu.
- Deskribapena: Baserri-paisaiei buruzko diskurtsoa txertatzeko baliabide estatikoak (panelak, adibidez) baino askoz ere egokiago ikusten dira baliabide dinamikoak (bisita gidatuak, esaterako).
48. Itxitako harrobiak egokien ikusten diren erabileretarako berregokitu.
- Deskribapena: Aisialdirako gune bezala, eskaladarako, edo arteetarako eszenatoki gisa (Suedian, Enkarterrietan edo Andoainen egin den bezala) presta daitezke itxitako harrobiak. Bakoitzaren ezaugarrien arabera erabaki beharko da erabilerarik egokiena zein izan daitekeen.
49. Baserri-eremuen sustapenerako ekimenak eta publizitate-kanpainak irudi tradizional eta bukolikotik urrundu

- Deskribapena: Adibidez, Suitzan burututako ekimenean egiten den bezala («Los pastores suizos se depilan de cara al verano», d. g.). Aralar baserritik begirada bideorama aktibatua.

Araudia, lurralde antolamendua eta hirigintzari buruzko ekintzak

50. Gure proiektua borobildu eta egindako lanari jarraipena eman eskualdeko Paisaiaren Karta eginez, Kataluniakoak eredu gisa hartuta (Observatorio del Paisaje de Catalunya, 2013).
- Deskribapena: Goimenez eta udalek sustatzaile izan beharko lukete, bolondreski hartutako konpromisoa izaki. Honelako tresna batean txerta litezke eskualdeko hainbat udalerritan martxan dauden ekimenak, hala nola, Zeraingo lur funtsa, laster abiatuko dena.
51. Lurralde zaintzaren esparruan egiten ari diren ekimenei eutsi (lur bankuak, akordio puntualak...) eta horiek eskualde guztian hedatzea bultzatu.
- Deskribapena: Honetarako, oso garrantzitsua da jabeak lotzea. Etorlur Gilur.
52. Hirigintzaren eta lurralde antolamenduaren ikuspegitik, eskualdearen nortasunaren ezaugarri diren auzo-gune eta herri-gune txikiak kontserbatzeko neurriak garatu, besteak beste, araudiaren bidez.
- Deskribapena: Paisaiaren Karta beharrezkoa da, eta eragile asko inplikatu behar dira horretan. Irizpideak eta paisaiaren ezaugarriak adostu behar dira, eta jabeekin aztertu ea nola landu daitekeen. Paisaiaren Karta berezkoa egokitu, elkarlana sustatu, udal teknikariak inplikatu paisaia irizpide komun batera begira.
53. Hiri-paisaien eta baserri-paisaien arteko mugen tratamendurako irizpideak diseinatu eta adostu, eta beharrezkoa bada, horren inguruko araudia landu.
- Deskribapena: Herriak hazten doazen neurrian hiriaren ezaugarriak hartzen doaz paisaiari dagokionean, eta hiri-paisaia horien ertzek maiz ez dira ondo integratzen kontaktuan duten baserri-paisaiekin. Baserri-paisaiekin kontaktuan dauden hirien ertzak “leuntzeko” irizpideak proposatzea eta adostea litzateke ekintzaren helburua.
54. Baserri-paisaiekin kontaktuan dauden hiri-paisaien ertzen mantenuan eta kudeaketan baserri-paisaietako elementuak sartu.
- Deskribapena: Adibidez, hainbat tokitan hiri-ertzeko paisaien mantenuaz baserriarrak arduratzen dira, edo ganadua erabiltzen da horretarako.

Honelako ekintzek hiria eta landa eremuaren arteko paisaiaren trantsizioa biguntzen lagun dezakete. Landa eremuan egiten diren lorategietan espezie aproposak erabili. Espezie aproposak aukeratzeko egokia da GOIMENEK landutako materiala (Paisaia S.L., Goimen Landa Garapen Elkarte, & Zorrakin, 2002).

- Azpi-ekintza: Espezie egokiak aukeratzeko direla bermatzeko beharrezkoak diren tresnak sortu.

55. Bailaretako zelaia, artzaintzari lotutakoak, babestu.

- Deskribapena: Erabilerari lotuta kontserbatu behar dira, funtzioa mantenduz kontserbatu behar dira. Hautagai batzuk: Segurako Madura, Santa Barbara, Oianguko landak...

56. Landa-paisaietan espekulazioak izan dezakeen eraginaren gainean hausnartu, eta beharrezkoa balitz, dagozkion neurriak proposatu.

- Deskribapena: Jabetzarekin arazoak sortzen dira batzuetan, bereziki baserriko seme-alabek utsiapena utzi eta etxea mantentzen dutenean lurren etorkizunari begira. Beste toki batzuetan, adibidez Clermont-Ferrand-en, hurrengo belaunaldiak jarduerarekin jarraitu behar ez badu, lurra desjabetu egiten dira beste baserri batzuk lantzen jarrai ditzaten. Arau erradikalak dira, baina pentsatu beharra dago nola lortu lehen sektorerako aproposak diren lurra erabiltzen jarraitzea.

57. Landa eremuan bigarren etxebizitzak mugatzeko neurriak eutsi, eta horietan sakondu.

- Deskribapena: Udalerri udalari arauak estandarizatu beharko lirateke.

58. Baserriak zaharberritzean hainbat etxebizitza eraikitzea errazten jarraitu, bertako paisaiaren ezaugarriak eusteko baliabide delako.

- Azpi-ekintza: Eraikina zaharberritzea berria egitea baino garestiago, bada, jabearen konpentsazio bat eman zaharberritu dezan.

59. Landa eremuan eraikin berriak egitean haien integrazio harmoniatsua bermatzeko aholku, irizpide eta beharrezkoa bada, arauak landu eta ezarri.

- Deskribapena: Hirigintzaren inguruko arau estandar bat eta nahiko berdintsua beharko litzateke eskualdeko herri guztietarako. Landa eremuko jardueraren jatorren gida...

60. Landa eremuko ondare arkitektonikoari eutsi, hura babestuz, eta zaharberritzeak egitea lagunduz.

- Deskribapena: Auzolandegien aktibizetarik etorritakoak badira, hobe, jarraipen eta mantenuen berezko direna bizitzari begira.

61. Azpiegiturak paisaiaren integrazioaren inguruko gaiak erregulatuko dituen araudia landu.

6.3. Saioa ospatu ondorengo urratsak

Zazpi eskualdeetako saioak ospatu ondoren, eskualde guztietan proposatutako ekintzak aztertu dira eta eskualde bakoitzeko ekintzen zerrenda **osatu** egin da bestelako eskualdeetan proposatutako ekintzekin, pentsatu delako agian beste eskualde batzuetan proposatutako ekintzak interesgarriak izan daitezkeela. Horrela, eskualdeko saioan parte hartutako pertsonen ekintzen zerrenda osatua bidali zaie, eta beste eskualdeetan proposatutako **ekintza berriak** kolore desberdin baten bidez markatu dira, erraz identifikatuak izateko.

Ekintzen zerrenda hori **on-line** betetzeko moduko **inkesta** bat osatzeko erabili da (inkesta bana eskualde bakoitzean). Inkesta horren bitartez saioetan parte hartu duten pertsonen adierazi ahal izan dute ea **beste eskualdeetan proposatutako ekintzak** bere eskualdean aplikatzeko egokiak iruditzen zaizkien, eta ekintza guztien artean lehentasunak finkatu dituzte. **Lehentasunak bi mailatan** finkatu dira: ekintzen kategorien mailan lehendabizi, eta kategoria edo gai bakoitzaren barruko ekintzen artean bigarrenik. Ondokoak dira ekintzak taldekatzeko erabili diren **kategoriak**:

- Baserri-paisaieko gozatu ahal izatera bideratutako ekintzak
- Baserri-paisaieko kalitatea hobetzeko ekintzak
- Sentsibilizazioarako materialak prestatzeko buruzko ekintzak
- Baserriak egiten duen lanarekiko sentiberatzeko eta partaidetzari lotutako bestelako ekintzak
- Lehen sektoreko produktuen kontsumoari buruzko ekintzak
- Lehen sektoreari eta landa-eremuko herri buruzko ekintzak
- Aisialdiari eta turismoari lotutako ekintzak
- Araudia, lurralde antolamendua eta hirigintzari buruzko ekintzak

Orokorrean, ekintzen gai zabal horiek guztiek **lehentasun nahiko altua** dutela adierazi dute Goierriko inkesta erantzun duten 15 pertsonak. Baserri-paisaiez gozatu ahal izateari eta aisialdia eta turismoari buruzko ekintzei eman zaie **garrantzi gutxien**, eta kontsumoari eta araudiari eta lurralde antolamenduari buruzko ekintzei **garrantzi gehien**. Beste eskualdeetan proposatutako ekintza berri gehienak apropos ikusi dira, eta kategoria bakoitzaren barruan ekintzen artean lehentasunak adierazi dira, ekintzen fitxak idazteko orduan gogoan izan direnak. Inkestaren emaitza zehatzak eta ekintzen fitxak eranskinen dokumentuan kontsulta daitezke.

6.4. Adostutako ekintzen zerrenda

Proiektuaren fase honetako lanak burututakoan ondoko ekintzen zerrenda osatu da:

Baserri-paisaiez gozatu ahal izatera bideratutako ekintzak

1. Eskualdeko oinezko bide berdeen sarea diseinatu eta zabaldu.
2. Eskualdean baserri-paisaien ibilbideak izan daitezkeenak zehaztu eta haien sustapen berezitua egin.
3. Udalerrri mailan herri-bideen inbentarioak egin.
4. Eskualdeko baserri-paisaiez gozatzeko aproposenak diren mendi-tontorrek identifikatu, eta horietatik bista panoramikoak baso-landaketek oztopa ez ditzaten neurriak hartu.
5. Santa Barbarako parkearen barneraketa eta bertako paisaien balioztatzea, bertako baserri-paisaien inguruan burututako gogoetak indarrean jartzea bilatuaz, Irimo bueltako gerriko pista, eta Karakateko kordala.
6. Antigua baselizako paisaien balioztatzea, eta inguruan eraikitzen ari diren zenbait elementuren barneraketa, urbanizazio biguna aplikatuz.
7. Legorretako PR-a Koateko auzotik Bartzelona auzora alderakoa PR -Gi_72.
8. Mirandaolako inguruak baserri-paisaiaren ezaugarriak kontserba ditzan eta bertako lasaitasuna mantendu dadin neurriak hartu.
9. Itsasondon loia azpiko sakonuneko erreka eta garai bateko meatze sarrerak balioan jartzea aztertu.

Baserri-paisaien kalitatea hobetzeko ekintzak

10. Toponimia, bizimoduak, ohiturak edo lanbideen ezagutza belaunaldi berriei transmititzeko ekintzak garatu.
 11. Itsasondon hondakinak pilatuta dauden lursailaren jabearekin inguru haiek txukuntzeko akordioa lortu eta gai horiek arautu.
 12. Igartubeiti inguruan eta, orokorrean, Ezkio-Itsaso inguruan egiten ari diren lanak paisaian inpaktu txikiena sortzeko eran gera daitezela ziurtatu.
 13. Eskualdeko ondare eraikiari buruzko informazioa bildu, ikuspegi orokorra izateko.
 14. Hesi biziak berreskuratu, eta lubakiak dauden lekuetan horiek balioan jarri. Agian lubakiena berezko ekintza batean behar luke joan?
 15. Eskualde mailan baserri-paisaien balioen inbentario bat egin, indarrak non kokatu jakin ahal izateko.
 16. Eskualdean hildako pertsonen errautsak bota eta horiei omenaldiak egitean sortzen diren arazoak prebenitzeko neurriak hartu.
 17. Unibertsitateekin harremana sendotu, baserri-paisaien aldeko izango diren ekimenak sustatzeko.
 18. Flora exotiko inbaditzailearen hedapena mugatzeko neurriak hartu.
 19. Pinudien eta eukalipto-landaketen hedapena mugatzeko neurri egokiak landu, landa-paisaien balioen kontserbazioarekin bateragarriak izatea lortzeko.
 20. Eskualdeko mendi-ibilbideen sare zabalean ibilgailuek (auto, moto, bizikleta) sortzen duten presioa aztertu, eta beharrezkoa bada erabilerak mugatzeko neurriak hartu.
- ##### Sentsibilizatorako materialak prestatzeari buruzko ekintzak
21. Eskualdeari buruzko informazio turistikoa (webguneak, liburuxkak...) proiektuan identifikatutako landa-paisaien balioak islatzen direla bermatu, horretarako beharrezkoak diren azterketa eta aldaketak eginez.
 22. Paisaiaren inguruko sentsibilizazio materiala sortu eskualdeko webguneetan txertatzeko.
 23. Eskualdeko landa-paisaien inguruko hausnarketa bultzatuko duen argitalpena prestatu, garai bateko eta egungo landa-paisaien argazkiak oinarri gisa erabiliz.

24. Eskualdeko baserri-paisaien inguruko Wiki bat sortu daiteke, gerora "Euskal Herrian Ihesi" eta "ha2a" webguneetara bidaliko den informazio eta materiala herritarrekin elkarlanean.

25. Eskualdeko telebistak landa-eremuari buruzko erreportajeak baditu bere web orrian ikusgai, horiek baliabide gisa erabili eskualdeko paisaiak zabaltzeko eta bertara bisitariak erakartzeko eta bestelako web orrietatik horietara estekak sortuz.

26. Udal bakoitzaren esku utzi proiektuan baserri-paisaien balioen inguruan sortutako ezagutza udalerriko ibilaldi markatuetan txertatzeko ardura.

27. Eskualdeko baserri-paisaien balioak oinarri bezala hartuta haurrei zuzendutako ipuinak eta kondairak berreskuratu edo asmatu.

Baserritarrak egiten duen lanarekiko sentiberatzeari eta partaidetzari lotutako bestelako ekintzak

28. Herritarrak baserri-paisaiak osatzen dituzten elementuak errespetuz tratatzeari buruz sentiberatzeko ekintzak burutu.

29. Eskualdeko artisten artean baserri-paisaiekin lotura berezia dutenen lanak paisaian txertatu.

30. Herritarrei zuzendutako landa-paisaien ikus-entzunezko baliabideen inguruko lehiaketak eta ekimenak proposatu, sentikortzeko ekintza gisa.

31. Arteaz baserri-paisaietan gozatzeko ekimenak antolatu.

32. Eskualdeko herri edo hiri nagusietan Aste Berdea ospatzen bada, landa eremuan burutuko diren hainbat jarduera txertatu (lehiaketak, ibilaldiak, erakusketak eta abar).

33. Eskualdean ekoizten diren baserriko produktu nabarmenen inguruan jarduerak proposatu.

34. Paisaiari lotutako jardunaldi gastronomikoak antolatu, edo ospatzen diren ekimen gastronomikoetan paisaiekin erlazionatutako jarduerak txertatu, hala nola, jardunaldian landuko diren produktuak ekoizten diren paisaian ezagutzea, ondoren prestatu eta dastatzeko.

35. Herritarrek beren herriko paisaia eta ibilbideak ezagutzeko ekintzak antolatu.

36. Landa eremuko balioak zabaltzeko sakelako telefonorako aplikazio bat sortu.

37. Eskualdeko nahiz eskualdetik kanpoko ikastetxeei zuzendutako jarduera didaktikoen proposamena prestatu, landa-paisaiak ardatz gisa hartuta eskualdeko baserri-paisaiak ezagutzera ematea helburu izango dutenak.

38. Baserri-paisaiekiko eta inguruarekiko norbanakoarena nahiz kolektiboa den ardura bultzatzea, baita auzolana ere, eta auzolanerako formula berriak bilatu.

39. Denbora bankuak, mikro-mezenasgoa eta hirietan gehienbat sortzen ari diren beste hainbat ekimen eta tresna (asko laugarren sektorea deritzonari lotuak) proiektuaren helburuen mesedetarako nola erabil ote daitezkeen hausnartu.

40. Lehen sektoreak sortu eta mantentzen dituen baserri-paisaiek gizarteari ematen dizkioten onuren eta gizartearen ohiturek baserri-paisaietan duten eraginaren inguruan gizartea sentiberatzeko materialak eta ekintza prestatu.

41. Nekazaritza ekologikoari buruzko ikastaroak eskualdean zabaldu.

42. Udalerrietan baratzeko ekologikoak sustatu.

43. Ikastetxeen bisitak edo udalekuak antolatu landa-eremuan, bertako baserri-paisaiak ezagutzera emateko.

Lehen sektoreko produktuen kontsumoari buruzko ekintzak

44. Baserriko produktuen kontsumoa, bereziki abeltzaintzako produktuena, eta paisaiaren balioen kontserbazioaren inguruan herritarrak (kaletarrak bereziki) sentikortzeko ekimenak zabaldu.

45. Eskualdeko lehen sektorearen ekoizpena bertan kontsumitua izan dadin sustatzeko ekintzak bultzatu.

46. Eskualdeko produktuak erostea eta zerbitzuak kontsumitzea sarituko duen sistema sortzea.

47. Udalerri mailan salmenta zuzena egiten duten ekoizleen berri zabaldu.

48. Eskualde mailan eskaria duten lehen sektoreko produktuen ekoizpen, eraldaketa eta salmenta sustatzeko ekimenei jarraipena eman.

49. Bertako produktu eta zerbitzu jakin batzuei kanon bat ezartzea, bide horretatik bildutako dirua lehenengo sektorea sustatzeko ekimenera zuzentzeko. Eskualdeko biztanleei ez litzaieke kanona kobratuko, edo txikiagoa izango litzateke beraientzat.

50. Eskualdean sortu diren kontsumo-taldeen jarraipena egin eta horiek dinamizatu.

Lehen sektoreari eta landa-eremuko herriei buruzko ekintzak

51. Baserritarrek sortzen dituzten baserri-paisaien zein produktuen balioetan sinets dezaten sentiberatze ekintzak burutu.

52. Lurrari lotutako ustiapenak bereziki sustatu, bultzatu edo lagundu, haien bideragarritasuna eta etorkizuna bermatzeko asmoz.

53. Ustiapenetako laboreetan bertakoak diren barietateak berreskuratzeko eta, baita barietate horiei lotutako ezagutza hedatu (ez bakarrik laborantzari buruzkoa, baizik eta transformazioari eta elikagaiak egiteari buruzkoa ere), kontserbatu eta zabaltzeko ere ekimenak martxan jarri.

54. IKTak lehen sektorearen alde egiteko erabiltzen jarraitu eta horretan sakondu (adibidez, produktuen salmentarako).

55. Lurraren kultura sustatu, hirietan nekazaritzaren presentzia barneratuz

56. Auzo-lokalik edo -elkarterik ez dagoen landa-auzoetan horrelako bat sor dadin sustatu, landa-bizitza suspertzeko tresna gisa.

57. Lurren jabeek etorkizunari begira zer asmo duten jakin eta lur horien erabilera zein den ezagutu, paisaia nola alda daitekeen aurreikusi eta beharrezkoak ikusten diren ekimenak burutzeko.

58. Baserrietako baratzeei eusteko ekintzak bultzatu.

59. Basogintzaren produktuak iraunkortasunari lotuta joan daitezela lortzeko moduak aztertu. Horrela, ustiapenentzat errentagarritasun ekonomikoaz gain, proiektu honetan identifikatutako baserri-paisaien balioak mantentzea bermatuko da.

60. Baserrien seinaleztapena burutu eta GPS sareetan haien kokapena zehaztu.

61. Luizien inbentarioak egin.

62. Energia berriztagarrien erabilera bultzatu landa-eremuan.

Aisiari eta turismoari lotutako ekintzak

63. Baserri-paisaietara eta bertako ustiategietara bisita gidatuak antolatu.

64. Landa-eremuko turismoko eskaintzaren asoziazionismoa sustatu.

65. Mirandaola gune turistikoa eta baserri-paisaia denez, paisaiaren diskurtsoa txertatzeko aukerak baliatu.

66. Itxitako harrobiak egokien ikusten diren erabileretarako berregokitu.

Araudia, lurralde antolamendua eta hirigintzari buruzko ekintzak

67. Gure proiektua borobildu eta egindako lanari jarraipena eman eskualdeko Paisaiaren Karta eginez.

68. Lurralde zaintzaren esparruan egiten ari diren ekimenei eutsi (lur bankuak, akordio puntualak...) eta horiek eskualde guztian hedatzea bultzatu.

69. Hirigintzaren eta lurralde antolamenduaren ikuspegitik, eskualdearen nortasunaren ezaugarri diren auzo-gune eta herri-gune txikiak kontserbatzeko neurriak garatu, besteak beste, araudiaren bidez.

70. Hiri-paisaien eta baserri-paisaien arteko mugen tratamendurako irizpideak diseinatu eta adostu, eta beharrezkoa bada, horren inguruko araudia landu.

71. Bailaretako zelaiak, artzaintzari lotutakoak, babestu.

72. Landa-paisaietan espekulazioak izan dezakeen eraginaren gainean hausnartu, eta beharrezkoa balitz, dagozkion neurriak proposatu.

73. Baserriak zaharbertitzean hainbat etxebizitza eraikitzea errazten jarraitu, bertako paisaien ezaugarriei eusteko baliabide delako.

74. Landa eremuko ondare arkitektonikoari eutsi, hura babestuz, eta zaharbertitzeak egitea lagunduz.

75. Azpiegiturak paisaian integratzearen inguruko gaiak erregulatuko dituen araudia landu.

76. Jarduera ekonomikoak sustatzeko araudi eta laguntzek baserri-paisaietan zer nolako eragina duten aztertu, eta ondorioen araberako neurriak hartu.

77. Landa eremuan egiten diren lorategietan espezie aproposak erabili

7. PROIEKTUAREN ONDORIO OROKORRAK

7.1. Eskualdeetan identifikatutako ekintza komunak

Proiektuan **bederatzi Landa Garapen Elkartek** parte hartu dute, dokumentuaren hasieran azaldu den moduan. Parte hartu duten bederatzi eskualdeetako **zazpitan** ekintzak lantzeko partaidetza saio irekiak antolatu direnez, interesgarria da eskualde guztietan **errepikatzen** diren ekintzak identifikatzea, elkarlanean burutzeko oso aproposak izan daitezkeelako. Horregatik, zazpi eskualdeetan behin betiko ekintzen zerrendak osatu ondoren aztertu egin dira **sinergiak** aprobeztatuz aurrera eraman daitezkeen ekintzen bila.

Indarrak batuz batera burutzeko ekintza apropos gisa identifikatu diren ekintzak ondoko taulan bildu dira. Bertan argitzen da ekintzetako bakoitza **zein eskualdetan** proposatu den, baita eskualde bakoitzean ekintza horrek **ekintza planean** jaso duen **zenbakia** ere, aurkitzen erraza izan dadin (ekintza izan beharrean azpi-ekintza bat den kasuan, * batez adierazi da ekintzaren zenbakiaren ondoan).

Taularen azken bi zutabeetan ekintzari eman zaion **lehentasuna** (ikus eranskinetako ekintzen fitxetan lehentasunaren kalkuluari buruzko argibideak) eta **eskualdez gaindiko** ekintzak izatera iris litezkeenak (hainbat eskualde hartu nahiz EAE mailakoak izan litezkeenak) adierazten dira, hurrenez hurren. Eskualdez gaindiko ekintzei dagokienez, argitu beharra dago ekintza horiek ez direla nahitaez eskualdez gaindiko mailan gauzatu beharrekoak, baizik eta horretarako potentzialtasuna dutela identifikatu dela.

	Debarrena	Debagoiena	Durangaldea	Goierri	Lea Artibai	Tolosaldea	Urola Kosta	Lehentasuna1	EAE
Aisialdia eta turismoa									
Eskualdean ekoizten diren baserriko produktuak ezagutzera emateko jarduerak proposatu, hala nola, baserri-paisaietara eta bertako ustiategietara bisita gidatuak antolatu eta jada egiten direnak indartu.	26,	26*, 51	27	33	27	14*	25*	A	X
	53	47	59	63	57	18*	49	B	
Baserri-paisaiak osatzen dituzten elementuak errespetuz tratatzeari buruz sentiberatzeko ekintzak burutu.	21	20	35	28	36	30	20*	EA	X
Herritarrek beren herriko paisaia eta ibilbideak ezagutzeko ekintzak antolatu.	28		29	36	29			EA	
Informazio turistikoan (webguneak, liburuxkak...) proiektuan identifikatutako landa-paisaien balioak islatzen direla bermatu, horretarako beharrezkoak diren materialak sortuz, azterketak eta aldaketak eginez.	16, 55	11, 12	16, 17	21, 22	16	28	14	EB	X
Paisaiari lotutako jardunaldi gastronomikoak antolatu, edo ospatzen diren ekimen gastronomikoetan paisaiarekin erlazionatutako jarduerak txertatu.	27	26	28	35	28	14	25	EB	X
Baserri-paisaiez gozatzeko aiposenak diren paisaia-ibilbideak edo oinezko bide berdeen sarea osatzeko ibilbide aiposak bilatu, eta horietatik bista panoramikoak oztopa ez daitezen neurriak hartu.	1 4	1, 3	1, 6	1, 2 4	1, 4 5	2 1	1, 11	EB B	X
Bide publikoen inbentarioak egin eta horiek erregistratu.	2			3	3	2*		B	
Itxitako harrobiak aisialdirako gune gisa berregokitu.	57	52	61	66	61		51	B	X
Udal bakoitzaren esku utzi proiektuan baserri-paisaien balioen inguruan sortutako ezagutza udalerriko ibilaldi seinaleztatueta txertatzeko ardura.		16	21	26	21	6	18	B	
Baserri-paisaietan arteaz gozatzeko ekimenak antolatu, eta baserri-paisaiekin lotura berezia duten artisten lanei buruzko informazioa edo artelanak paisaian txertatu.	24, 32	24, 30	25, 36	29, 31	24, 37	10	22, 23	B	X
ARGIaren "Euskal Herrian Ihesi" webgunean agertzen den eskualdeari buruzko informazioa osatu eta proiektuan identifikatutako balio nagusiak islatzen direla ziurtatu.	18	14	19	24	18	4	16	B	X
Eskualdeko telebistak landa-eremuari buruzko erreportajeak baditu bere web orrian ikusgai, horiek baliabide gisa erabili eskualdeko paisaiak zabaltzeko eta bertara bisitariak erakartzeko eta bestelako web orrietatik horietara estekak sortuz.		15	20	25	20	5	17	B	
Landa-eremuko turismoko eskaintzaren asoziazionismoa sustatu.	56	50	60	64	60*	29	50	B	X

¹ A = altua, EA = ertaina-altua, EB = ertaina-baxua, B = baxua

	Debabarrena	Debagoiena	Durangaldea	Goierri	Lea Artibai	Tolosaldea	Urola Kosta	Lehentasuna1	EAE
Eskualdera datozen bisitariak bertako balioez gozatzeaz gain, ekarpen ekonomikoa egiteko bideak aztertu.	41	49	46	49			48	B	
Bestelako jarduera eta erabilerekin uztartzea									
Mendi-ibilbideen sare zabalean ibilgailuek (auto, moto, bizikleta) sortzen duten presioa aztertu, eta beharrezkoa bada erabilerak mugatzeko neurriak hartu.	6		8	20	15		5	EB	
Eskualdean hildako pertsonen errautsak bota eta horiei omenaldiak egitean sortzen diren arazoak prebenitzeko neurriak hartu.	7		7	16	12		7	B	
Gizartearen sentiberatzea									
Landa-paisaien inguruko gogoeta bultzatuko duen argitalpena prestatu, garai bateko eta egungo landa-paisaien argazkiak oinarri gisa erabiliz.	17	13	18	23	17	7	20*	EB	X
Landa eremuko balioak zabaltzeko sakelako telefonorako aplikazio bat sortu.	28*	22	30	43	30	8	20*	EB	X
Ikastetxeen jarduera didaktikoak, bisitak edo udalekuak antolatu landa-eremuan, bertako baserri-paisaiak ezagutzera emateko.	22, 35	27, 32	31, 40	37, 38	31, 32	11, 18	26, 27, 32	EB	X
Baserri-paisaien balioak oinarri bezala hartuta haurrei zuzendutako ipuinak eta kondairak berreskuratu edo asmatu.	15	17	22	27	22		15	B	X
Herritarrei zuzendutako landa-paisaien ikus-entzunezko baliabideen inguruko lehiaketak eta ekimenak proposatu, sentikortzeko ekintza gisa.	23	23	24	30	23	9	21	B	X
Eskualdeko herri edo hiri nagusiko Aste Berdean landa eremuan garatuko diren hainbat jarduera txertatu (lehiaketak, ibilaldiak, erakusketak, eta abar).	25	25	26	32		13	24	B	
Landa-eremuko bizi-baldintzak eta kohesioa									
Auzolan tradizionala suspertu eta auzolanerako formula berriak bilatu, hala nola, denbora bankuak, mikro-mezenasgoa eta hirietan gehienbat sortzen ari diren beste hainbat ekimen.	29	28	32	38	33	15	28	EA	X
	30	29	33	39	34	16	29	B	
Energia berriztagarrien erabilera bultzatu landa-eremuan.	52	46	58	62	56		43	EB	X
Auzo-lokalik edo -elkarerik ez dagoen landa-auzoetan horrelako bat sor dadin sustatu, landa-bizitza suspertzeko tresna gisa.	47	42	51	56	50		44	B	
Baserrien seinaleztapena burutu eta GPS sareetan haien kokapena zehaztu.	51	45	56	60	54	27	37	B	X
Luizien inbentarioak egin.			57	61	55		38*	B	X
Lehen sektoreko produktuen kontsumoa									

	Debarrena	Debagoiena	Durangaldea	Goierri	Lea Artibai	Tolosaldea	Urola Kosta	Lehentasuna1	EAE
Baserri-paisaiek gizaritari ematen dizkioten onuren eta gizaritearen ohiturek baserri-pasaietan duten eraginaren inguruan gizaritea sentiberatzeko materialak eta ekintzak prestatu, bereziki baserriko produktuen kontsumoa eta baserri-paisaien kontserbazioa lotuz.	31, 36	19, 33	34, 41	40, 44	35, 39		20, 33	EA	X
Eskualdeko lehen sektorearen ekoizpena bertan kontsumitua izan dadin sustatzeko ekintzak bultzatu, bereziki ikastetxeetako jangeletan eskualdeko baserri-produktuak erabiltzea bultzatuz, eskualdeko produktuen kontsumoa sarituko duten sistemak sortuz, eta baserri-produktuen ekoizpena, eraldaketa eta salmenta sustatuz.	37	34	42	45	40	21	34	A	X
	38,39	34*, 35	43, 44	46, 47	41, 42	20	34*	EB	
	40	36	45	48	43			B	
Eskualdean sortu diren kontsumo-taldeen jarraipena egin eta horiek dinamizatu.	42	37	47	50	44		35	B	
Lehen sektorearen sustapena eta baserri-paisaien hobekuntza									
Pinudien eta eukalpto-landaketen hedapena mugatzeko neurri egokiak landu, landa-paisaien balioen kontserbazioarekin bateragarriak izatea lortzeko.		9	14	19	7		13	EA	X
Lurrari lotutako ustiapenak bereziki sustatu, bultzatu edo lagundu, haien bideragarritasuna eta etorkizuna bermatzeko asmoz.	43	39	48	52	46	22	40	EB	X
Tokiko bariatateak berreskuratzeko eta horiei lotutako ezagutza hedatzeko eta kontserbatzeko ekimenak martxan jarri.	44	40	49	53	48	23	41	EB	X
Baserrietako lurrei eusteko ekintzak bultzatu.	45		53	58	52	26	46	EB	X
Lurren jabeek etorkizunari begira zer asmo duten jakin eta lur horien erabilera zein den ezagutu, paisaia nola alda daitekeen aurreikusi eta beharrezkoak ikusten diren ekimenak burutzeko.		43	54	57	53		45	EB	X
Basogintzaren produktuak iraunkortasunari lotuta joan daitezela lortzeko moduak aztertu.	50	44	55	59	47		47	EB	X
IKTak lehen sektorearen alde egiteko erabiltzen jarraitu eta horretan sakondu.	46	41	50	54	49	24	42	B	X
Baserritarrak bere produktuetan eta eskaintzen dituen zerbitzuetan sinets dezan eta horietatik etekina atera dezan ekintzak burutu.	48	21	52	51	51	25	36	B	X
Baratze ekologikoak sustatu nekazaritzan aritu nahi dutenei zuzenduta, eta nekazaritza ekologikoari buruzko ikastaroak antolatu, lehen sektorearekiko sentiberatze tresna gisa.	34,54	48	38, 39	41, 42	25, 26		31	B	X
Hesi biziak berreskuratu, eta lubakiak dauden lekuetan horiek balioan jarri.	11	5	10	14	10		8	B	X
Flora exotiko inbaditzailearen hedapena mugatzeko neurriak hartu.	13	8	13	18	6		12	B	X
Araudia, hirigintza, antolamendua									
Eskualdeko Paisaiaren Karta egin, Kataluniakoak eredu gisa hartuta, baserri-paisaien balioen inbentarioa barne izango duena.	12, 58	53	11, 62	15, 67	11, 62	3, 35	9, 52	EB	X

	Debabarrena	Debagoiena	Durangaldea	Goierri	Lea Artibai	Tolosaldea	Urola Kosta	Lehentasuna1	EAE
Lurraren kultura sustatu, hirietan nekazaritzaren presentzia barneratuz.	33	31	37	55	38		30	EB	X
Lurralde zaintzaren esparruan egiten ari diren ekimenei eutsi (lur bankuak, akordio puntualak...) eta horiek eskualde guztian hedatzea bultzatu.	59	55	63	68	63	31	53	EB	X
Hirigintzaren eta lurralde antolamenduaren ikuspegitik, eskualdearen nortasunaren ezaugarri diren auzo-gune eta herri-gune txikiak kontserbatzeko neurriak garatu, besteak beste, araudiaren bidez.	60	56	64	69	64		54	EB	
Landa eremuan eraikin, instalazio eta azpiegitura berriak egitean haien integrazio harmoniatsua bermatzeko aholku, irizpide eta beharrezkoa bada, arauak landu eta ezarri.	60*	60	64*	69*	64*	33	54*	EB	X
Landa-paisaietan espekulazioak izan dezakeen eraginaren gainean gogoeta egin, eta beharrezkoa balitz, dagozkion neurriak proposatu.	62	58	66	72	66		56	B	X
GOIMENek argitaratutako baserri-paisaietako zuhaitz eta zuhaixken liburua zabaldu eskualdean.	20	18	23		19		19	B	X
Unibertsitateekin harremana sendotu, baserri-paisaien aldeko izango diren ekimenak sustatzeko.	9	7	12	17	13	17	10	B	X
Landa lurra babestu, batez ere bailaretakoak.	61	57	65	71	65	32	54*	B	
Azpiegiturak paisaian integratzearen inguruko gaiak erregulatuko dituen araudia landu.	65	60*	69	75	68	33	54*	B	X
Jarduera ekonomikoak sustatzeko araudi eta laguntzek baserri-paisaietan zer nolako eragina duten aztertu, eta ondorioen arabera neurriak hartu.	66	54	70	76	69		60	B	X
Hiri-paisaien eta baserri-paisaien arteko mugen tratamendurako irizpideak diseinatu eta adostu, eta beharrezkoa bada, horren inguruko araudia landu.		62	71	70	70	34	55	B	X
Landa eremuan egiten diren lorategietan espezie aproposak erabili.	67	63	72	77	71	36	59	B	X
Baserriak zaharberritzean hainbat etxebizitza eraikitzea errazten jarraitu, bertako paisaien ezaugarriei eusteko baliabide delako.	63	59	67	73	67*		57	B	X
Kultur ondarea									
Baserri-paisaiei lotutako ondare ez-materiala berreskuratu eta balioan jarri.	14	10	15	10	14		4	EB	X
Ondare eraikiari buruzko informazioa bildu, egoera barne, ikuspegi orokorra izateko, eta berau kontserbatzeko neurriak hartu.	10, 64	4, 61	9, 68	13, 74	9, 67		3, 58	EB	X

7.2. Baserri-paisaietan aurkitu diren balio orokorrak

Eskualde guztietan ospatutako saioetan eta bildutako fitxetan oinarrituz, baserri-paisaia atlantikoetan aurkitu diren **paisaia-balio nagusiak** ondokoak direla esan daiteke:

Lehenengo sektoreari lotutakoak

- Baserritarraren lana, inguruak txukun mantentze dituen.
- Baserritarraren lur-mina, lanerako duen prestutasuna.
- Larre zabalak, alfonbra berde baten modukoak.
- Basoak, landaredia, kolore eta ehunduren aniztasuna sortzen duena.
- Zuhaitza, baliabide iturri eta kulturaren osagai dena.
- Abereak, bereziki larrekoak.
- Naturarekin orekan dagoen sistema, baliabide naturalen erabilera iraunkorra.
- Galzorian dagoen bizimodua.
- Baserria, eta bere lurrekin batera sortzen duen landa-espazioaren antolaketa tradizionala.
- Lurrarekin lotura.
- Osasunarentzat onuragarriak diren produktuak ekoiztea.

Landa-eremuko biztanleei lotutakoak

- Auzolana.
- Herritarren arteko harreman estua.
- Biztanleriaren dinamismoa.
- Biztanleriaren elkartasuna eta ingurunearekiko lotura.
- Baserriko bizimodua alde batera utzi baina baserria mantendu dutenen artean, etxearen inguruak txukun mantentzeko ohitura.
- Nortasun propioa.
- Herri txikien kopuru handia.
- Eraikitze-eredu tradizionala.

- Ondare artistikoa, arkitektonikoa, etnografikoa eta kulturala. Honen barnean daude euskara, ohiturak, toponimia, mitologia, eta paisaia ikus daitezkeen hainbat elementu (sarioak, karobiak, mugarriak, baselizak, baso mugarratuak, eta abar).

- Euskal kulturaren iturri eta gordailu.

Bestelako balio orokorrak

- Landa-lurra gure etorkizuna da.
- Paisaiaren kontrasteak: zelai eta basoen artean, landa-eremua eta hiriaren artean, eta abar.
- Urtaroen aldaketa nabarmenak.
- Artifizialtasun maila txikia (salbuespenekin).
- Azpiegitura gutxi, haien inpaktu urria.
- Naturako elementuekin kontaktua ahalbidetzea.
- Uraren presentzia.
- Lainoaren presentzia.
- Mendiekiko gertutasuna.
- Erliebeak eta urak sortutako izaera.
- Mendi tontorrak eta haietatik ikusten diren bista panoramikoak.
- Kobazuloak.
- Ibilbideen kopuru handia.
- Turismorako baliabide izatea.
- Artearentzat inspirazio-iturri izatea.
- Kontsumo taldeen eta autokontsumoaren areagotzea, landa-eremua eta hiriaren arteko gertutasuna errazten duena.
- Sorrarazten dituen sentsazio eta sentimenduak: usain eta soinu atseginak, lasaitasuna, isiltasuna, bakardadea, naturaren erritmo mantsoa baina etengabea, naturaren handitasuna, bakea, haurtzaroko oroitzapenak, indarberritzea, estresa gutxitzea, eta abar.

7.3. Proiektutik eratorritako gomendioak

Egindako lanak borobiltzeko asmoz, eskualdeetan aurkitu diren paisaiaren balioetatik eta proposatu diren ekintzetatik abiatuz, ekimenak sentiberatu nahi litzuzkeen hiru eragileri zuzendutako gomendioak azalduko ditugu ondoren.

ERAKUNDEEI ZUZENDUTAKO GOMENDIOAK

Baserri-paisaiei buruzko proiektu honetan identifikatu diren erronken eta proposatu diren ekintzen inguruan erakundeek eman ditzaketen urrats nagusiak **ekintzak burutzea** ahalbidetzarekin lotuta daude. Horrekin batera, **lehen sektorearen aldeko apustu sendoa** egitea eta gizarteak baserri-paisaietan ikusitako balioak kontuan izanda, **landa-eremuetan inbertitzea** lirarteke erakundeek egin beharreko gai nagusiak. Azken batean, proiektuaren ondorio nagusiaren arabera, baserri-paisaien balioak mantendu ahal izateko bete behar den lehen baldintza lehen sektorea bera mantentzea da; baserriarrik gabe ez baita baserri-paisaiarik izango.

Zehazki, erakundeei begira ondoko gomendio orokorrak egingo genituzke:

- Lehen sektoreak sortu eta mantentzen dituen baserri-paisaiek gizarteari ematen dizkieten onuren gainean gizarte osoa **sentiberatzeko ekimenak** gauzatu, eta lan hori **errekonozitu** eta **saritu**.
- Landa-eremuan ematen diren **jarduera ezberdinak** (bereziki aisialdiari lotutakoak) lehen sektoreko jarduerekin **bateragarriak** izan daitezen neurri egokiak ezarri, baserri-paisaien kontserbazioan lehen sektoreak betetzen duen paper garrantzitsua gogoan izanda.
- Gizartearen ohiturek baserri-paisaietan dituzten **eraginak agerian utzi**. Bereziki, baserriko produktuen **kontsumoaren** eta paisaiaren **balioen kontserbazioaren** inguruan gizarte **sentikortzeko** ekimenak hedatu behar dira.
- Lehen sektoreko eragileak **baserri-paisaien** eta haien **produktuen balioen** inguruan **sentikortzeko** ekimenak burutu.
- Baserri-paisaien ezagutza, horiekiko errespetua eta jakin-mina, eta berauen balioez jabetzea **bizitza osoan zeharreko ikaskuntzarako** ekimenetan eta **hezkuntzan** txertatu, haurtzarotik hasita lurraldearen eta gizartearen zati hain garrantzitsua den landa-eremua aintzat hartua izan dadin.
- Baserri-paisaiak bizirik mantentzeko parte hartu behar duten eragile guztien **elkarlana** eta **erantzunkidetasuna** sustatu, bai aspaldian landa-eremuan existitu diren formulen bidez, hala nola, auzolana, baita bide berrien bitartez ere. Bereziki garrantzitsu jotzen da hiria landa-eremuaren etorkizunean zuzenean inplikatzeari, bereziki sistemak izango balira bezala jokatu gabe.
- Lehen sektorearen ekoizpena **tokian kontsumitua** izan dadin sustatzeko ekintzak bultzatu. Zentzu honetan, proiektua burutu den eskualde guzietan proposatu dira eskoletako jantokietan **tokiko baserriko produktuak erabiliak** izan daitezela, hori ikusten baita eskualde bakoitzeko lehen sektoreko ekoizleen etorkizuna bermatuz haurrei kalitate goreneko jakiak emateko bidea, bestetik, egungoa baino askoz ere jasangarriagoa izango den eredu baten alde eginez.
- **Turismoaren sustapenerako** sortzen diren material eta baliabideetan baserri-paisaiei behar bezalako **pisua** eman eta gizarteak ematen dien **balioa aitortu**. Bestetik, baserri-paisaien balioez gozatzeko eta balio horiek urte askotan mantendu ahal izateko, **turismo jasangarriaren** bidea hartu beharra dago, eta turismoak **landa-komunitateetan eragin positibo** zuzena eta nabarmena izan dezala lortu behar da.
- **Turismoaren** sustapenean **barnealdeko baserri-paisaiei** ematen zaien garrantzi eta pisua **kostaldeko** paisaiei eta **hiritakoei** ematen zaienarekin **parekatu**. Proiektu honek agerian utzi du barnealdeko baserri-paisaiek askotariko balioak dituztela, baina barnealdea eta kostaldea hartzen duten eskualdeetan argi geratu da turismoari zuzendutako materialek ia esklusiboki kostaldea hartzen dutela aintzat.
- Euskal paisaiak zeharkatzen dituzten **ibilbideen** artean **baserri-paisaiez gozatzeko aproposenak** direnetan arreta berezia jarri, horiek **identifikatu** eta **balioan jarri**, eta ibilbide horiek diseinatzea ahalbidetzen duen bide-sarea **mantentzen lagundu**, lan hori pribatuen esku soilik egon ez dadin.
- **Landa-eremuko dinamizazioari** zuzendutako ekimenei eutsi eta horiek indartu, landa-garapena errealtate bihurtuz, lehen sektorearen **bideragarritasuna** hobetzen dutelako, eta landa-eremuko biztanleen **bizi-kalitatea** areagotzen dutelako.
- **Lurrari lotutako ustiapenak** bereziki sustatu, bultzatu eta lagundu, horiek baitira baserri-paisaien balioak mantentzen gehien laguntzen dutenak.

- Lehen sektorean jarduten diren pertsonak eta landa-eremuko lur jabeek **etorkizunari begira** zer nolako **asmoak** dituzten ikertu, baserri-paisaiak horren arabera nola aldatuko diren **aurreikusit**, eta beharrezkoak diren **neurriak** hartu.
- **Jarduera ekonomikoak** sustatzeko ekimenek eta erabakiek baserri-paisaietan zer nolako **eragina** duten aztertu, eta ondorioen araberako **neurriak** hartu.
- Baserri-paisaien inguruan **eskualde mailako diagnostiko partekatuak, akordioak, konpromisoak** eta **ekintzak** adostea bultzatu. Zeregin honetan bereziki aproposak izan daitezke **lurraldearen zaintzako** tresnak eta beste lurralde batzuetan emaitza onak eman dituzten tresnak, hala nola, Kataluniako Paisaiaren Kartak (Observatorio del Paisaje de Catalunya, 2013).
- Lurralde antolamenduaren eta hirigintzaren ikuspegitik, baserri-paisaien nortasunaren ezaugarri diren **auzogune** eta **herri-gune** txikiak **kontserbatzeko neurriak** garatu, beti ere, horien itxura “fosiltzea” bilatu gabe. Bereziki garrantzitsua ikusten da landa-eremuko **gazteak** bertan bizitzen gera daitezten aukerak sortzea.
- Hiri-paisaien eta baserri-paisaien arteko **mugen** tratamendurako **irizpideak** diseinatu, adostu eta aplikatu.
- Baserri-paisaietan **eraikin, instalazio** eta **azpiegitura** berriak egitean haien **paisaia-integrazio harmoniatsua** bermatzeko aholku eta irizpideak garatu eta aplikatu.
- Landa-eremuko **bide zaharrak** eta **herri-bideak inbentariatu** eta **erregistratu**, baserri-paisaiak zeharkatzeko eskubideak bermatuz eta, aldi berean, bertan jarduten diren lehen sektoreko eragileen interesak landa-eremura aisialdiko jarduerak burutzeraz doazen pertsonen interesekin **uztartu**.
- Baserri-paisaiak zeharkatzen dituzten bide eta pistetan **motordun ibilgailuen** erabilera aztertu eta, beharrezkoa bada, erregulatu, ibilgailuak lanerako ibili behar dituzten lehen sektoreko eragileei lehentasuna eman. Beti ere, paisaia hauen **lasaitasuna** eta isiltasunaren balioak kontserbatzea litzateke helburua, ibilgailuen erabilera balio horiekin bateragarri den mailetan mantenduta.
- Landa-eremuko **ondare eraikia** mantentzen lagundu, paisaia horien balioen oinarrian baitago. Horrekin batera, **ondare ez-materialari** (landa-eremuko ohiturak, ahozko literatura, toponimia, eta abar luzea) pareko garrantzia eman beharko litzaioke.
- Landa-eremuan sortzen diren **erabilera berriei jarraipena** egin, eta horiek baserri-paisaien balioekin **bateragarri** egiteko moduak bilatu. Adibide gisa, proiektu

honetan hildako pertsonen errautsak bota eta horiei omenaldiak egiteko ohitura hedatzen doala agerian geratu da, eta horren areagotzeak paisaian izan ditzakeen ondorioak aztertu dira.

LEHEN SEKTOREKO ERAGILEEI ZUZENDUTAKO GOMENDIOAK

Lehen sektoreko eragileei jarraian azalduko diren gomendio orokorrak egingo genizkieke, proiektu honen emaitzen harira. Gomendio hauetako batzuk aurretik TOLOMENDIK sustatutako proiektu batetik eratorriak dira (Paisaia SL & 4ki Arkitektura, 2010).

Bestetik, kontuan izan behar da gomendio hauetako batzuk martxan jartzeko beharrezkoa izango dela lehen sektoreko eragileek **gizarteko bestelako eragileen laguntza** izatea; beraz, aholkuetako batzuk ustiapenaren jabeak berak zuzenean burutzeko modukoak diren arren, beste batzuk udalari edo eskualde mailan hartutako erabakien ondorioz gauzatzekoak izango dira.

- Lehen sektoreko eragileak parte diren gizarteak baserri-paisaietan hautematen dituen balioak ezagututa, lehen sektoreak bere **produktu eta zerbitzuei balio erantsia gehitu** ahal izango die, gizarteak estimatzen dituen paisaiaren balio horiek sortu eta mantentzen laguntzen duelako. **Produktuak eta zerbitzuak merkaturatzean** kontsumitzailearen begietan lotura hori nabarmendu behar da horretarako. Hori eginez gero, gainera, gizartea lehen sektorearen garrantziaz sentiberatzen lagunduko da.
- Lehen sektoreko lanen ondorioz sortutako balioak zeintzuk diren jakinik, sektore horretako eragileek haien **jarduera orientat** dezakete, baserriko produktu eta zerbitzuen kontsumitzaileak diren pertsonak estimatzen dituzten balioak kontserbatzen laguntzeko. Adibidez, baserriarraren jardueraren ikuspuntutik esfortzu eta errendimendu berdina eskaintzen duten bi praktiken artean, baserri-paisaien balioen alde egiten duena aukeratuko du, hori eginez bere jarduerari etekin hobea ateratzeko aukera duelako. Landa-paisaietako balioak hobeto mantentzeko bere jardueran sartu beharreko aldaketek esfortzua areagotzea edo errendimendua gutxitzea suposatuko lioketela aurreikusten duenean, aldiz, oztopo hori mahai gainean jarri ahal izango du, gizartearen konpromisoa eskatuz.
- Baserri-paisaien balioei etekin zuzena atera ahal izango diote **lurrari lotutako** lehen sektoreko jarduerak burutzen dituztenek, horiek baitira EAEko baserri-paisaiak sortzen eta mantentzen laguntzen dutenak. Orokorrean, bertako produktu guztiak plazaratu behar dute honen gaineko **mezu argia: bertako produktuak** kontsumitzeak **tokiko baserri-paisaiak** mantentzen laguntzen duen artean,

kanpokoak kontsumitzeak beste nonbaiteko paisaietan eragina izateaz gain, hemengo paisaietan inpaktua sortzen duten hainbat elementu areagotzea dakar, hala nola, produktu horiek hona ekartzeko beharrezkoak diren errepideak. Zer esanik ez, kanpoko produktuak kontsumitzean bertakoak ekoizten dituzten ustiapenen errentagarritasuna urritzen da eta, zeharka, bertako paisaiaren mantenua bera.

- Produktuak **merkaturatzeko** orduan sortzen diren **materialetan** (etiketak, liburuxkak, web orriak, publizitatea, bildukiak, eta abar) produktuaren ekoizpena eta aipatutako landa-paisaiaren balioen kontserbazioa lotu, ahal bada, ustiapenaren inguruko paisaietako adibide zehatzekin.
- Ustiapenean bertan **salmenta zuzena** egiten denean ere, ekoizpena eta landa-paisaiaren balioen kontserbazioaren arteko lotura azpimarratu.
- Ustiapenean salmenta zuzena egiten denean, horretaz gain bertako **baserri-paisaiaren balioak ezagutzera emateko ekimenak** martxan jarri (bisita gidatuak eskaintzea, salmentako puntuan balio horiek bilduko dituzten liburuxkak edo posterrak saldu edo banatzea, eta abar).
- Ustiapenean **bisitak** jasotzen dituztenek paisaiaren balioak ezagutzera emateko jarduerak egiten dituzten kasuetan, ahal den guztietan inguruko bestelako ustiapenekin **elkarlanean** aritzea eskaintza osatzeko eta ahalik eta mezu aberatsena zabaltzeko, bai inguruan ekoizten diren produktuei buruz, baita inguruko paisaiaren balioen inguruan ere.
- Baserritarrak **kontsumo taldeekin** egindako **akordioak** eta autokontsumoan aritzen direnei emandako **aholkularitza** eta laguntza lehen sektorearekiko sentiberatzearen mailan egiten den **inbertsio** moduan ikusi, gizartea lehen sektorearen garrantziaz jabetzen laguntzen dutelako. Horrelako talde eta eragileekin izaten diren harremanetan paisaiaren balioen kontserbazioaren mezua azpimarratzea komeni da.
- Ustiapenetan **antzinakoak** diren elementuak (jatorrizko baserria, txabolak, iturri eta askak, harresiak, hesi-biziak, hesolak eta lursailen mugetako bestelako elementuak, karobiak, eta abar) elementu **berrieekin** nahasten dira (biltegi modernoak, ukailu berriak, makineria, siloak, eta abar). Posible den guztietan, antzinako elementuak mantentzeko ahalegina egingo da, paisaiaren balio historikoa neurri handi batean sortzen dutenak direlako, eta landa-paisaiaren artifizialtasuna maila baxua mantentzen laguntzen dutelako.
- Baserri-paisaiaren **egitura** berezia sortzen laguntzen duten elementuak errespetatu (bideak, bidexkak, zuhaitzen lerroak, errekaak eta haien landaredia, hesi biziak,

harresiak, eta abar), baserri-paisaiaren izaera eta nortasun berezia kontserbatzen laguntzen dutelako. Gainera, ustiapenaren elementu modernoak integratzen laguntzen dute.

- **Urtaroen aldaketak** azpimarratzen dituzten **landare** espezieak mantendu eta hedatu, posible den neurrian. Hau da, hostozabalak orokorrean sustatzea, eta baserriaren inguruan udaberri edo udazken kolore deigarriak dituztenak faboratzea (gereziandoa, astigarrak, eta abar).
- **Lehen sektoreko jarduerak** baserri-paisaietara **aisialdiaz** gozatzera doazenekin **bateragarri** egiteko moduak bilatu, bereziki ustiapena zeharkatzen duten bideak eta bidezidorrak bisitariari irekita mantentzeko begira. Paisaiaren bi erabilera hauek bateragarri egiteko neurriak hartu beharko dira horretarako.
- Ustiapenean **urak** paisaian duen presentzia mantendu (putzuak, iturriak, askak, errekaak, eta abar), bereziki bide eta bidezidorren inguruetan eta, horretarako aukerak badaude, presentzia hori areagotzeko moduak bilatu.
- Ustiapena zeharkatzen duten bideetatik egon daitezkeen **bista panoramikoak zabalik** mantendu, bereziki landarediak oztopatuko ez dituela ziurtatuz.
- Ustiapeneko **bideak zabaldu** behar badira, alboetan harresia edota heskaia dutenen kasuan, teknikoki bideragarria bada behintzat, albo batekoak mantendu.
- Ustiapenean jada existitzen diren **harri-lubetetan** belarra edo landare igokariak landatu, horien ikusgarritasuna baretzeko.
- Ustiapenaren inguruak traste eta hondakinez **garbi** mantendu.
- Desitxurosoak diren **eranskin** edota eraikin laguntzaile txikiak (txabolak eta antzekoak), konpondu edo botatzea.
- **Eraikin laguntzaile** berriak egitura eta material arinez eraiki, eta horien funtzioarekin bat datorren itxura eman.
- Ustiapeneko eraikinen inguruak material iragazgaitzaz **zolatzean** landaredia tartean eta ertzetan txertatu.
- **Heskai** eta **zuhaitz isolatuak** landatzeko orduan, bertako espezieak erabili.
- **Eraikin berriak** egiteko orduan, aurretik dagoen **topografia** ahalik eta gehien errespetatu, lurren mugimenduak ekidinez.
- Eranskin eta eraikin laguntzaileak **modu planifikatuan** eraiki, eta ahalik eta kopuru txikienean, orokorrean.

- **Eraikin nagusiaren aurrealdeari** dagokion duintasuna eman, are gehiago ezaugarri arkitektoniko on bat badu (arkua, harrizko aldeak eta abar).
- Ustiapeneko eraikin berriak aurretik daudenekiko **tarte egokietara** eraiki, hierarkia mantentzeko.
- Ustiapeneko eraikinen inguruan **zoladura** zaindu, horren akabera eta kalitatea egokiak izan daitezten.
- Ustiapeneko **bideetan** zoladura jarri edo berritzeko orduan **ertzen akaberak** zaindu, bereziki hormigoizkoak badira.
- Landa eremuko **auzoetan**, gutxi erabiltzen diren errepideetan **bidea zabaltzeko** beharra suertatzen denean, luzera osoan ez zabaldu, tarte jakinetan zabalgunekak jarri baizik. Aldi berean, bertakoei lehentasuna emango zaie errepidea erabiltzeko orduan, egoki ikusten bada.
- Errepidetik ustiapenera doan **landa-bidea** akabera finekoa egin, eta luzera egokikoa.
- Ustiapeneko eraikinen inguruko bestelako **elementu gehigarriak** bereziki zaindu.
- Baserriaren bueltan eta lursailen **itxituretan** konifero exotikoen espezie bakarra erabiltzen dituzten heskaiak baztertu, bertako espezie anitzetakoak hobetsiz.
- Eraikinetan eta bestelako eraikuntzetan, **estiloari** dagokionez gaurkotasuna eta abstrakzioa hobetsi.
- Eranskinak eraikitzean **konposizioa** zaindu.

GIZARTEARI OROKORREAN ZUZENDUTAKO GOMENDIOAK

Gizartearen esku dauden aldean artean, lehendabizikoa bere **indarraz jabetzea** litzateke. Izan ere, gizarteak badu erakundeen gain eragiteko ahalmena, baita lehen sektorearen etorkizunean eragiteko aukera ere. Jabekuntza horren ondoren letorke sinesten den horrekin bat datozen **erabakiak** hartzea, bereziki **kontsumitzaile** gisa. Ondorioz, jarraian adierazten diren gomendio orokorrak luzatzen zaizkio gizarteari:

- Baserri-paisaien proiektu honetatik eratorritako ondorio eta gomendioekiko **atxikimendua** plazaratu, horretarako jarriko diren bideak erabiliz.
- Eskura dauden bitartekoak erabilita **erakundeei** jakin arazi baserri-paisaien alde egin dezaten nahi dela, gertuen dauden erakundeetatik hasita.

- Baserri-paisaietara **gerturatu** eta paisaia horietako balioez **gozatu**, ezagutza zuzenaren eskutik etorriko baita paisaia horiek balioztatzea. Paisaiak ez ezik, bertako **biztanleak** eta **ohiturak** ere ezagutzeko ahaleginak egin, horiek sortu baitituzte ikusgarri dauden paisaiak. Horretarako aukera aproposa dira **bisita gidatuak**, adibidez.
- Eskualdean ekoiztiko lehen sektoreko produktuak **kontsumitu**, eta horien kontsumoa sustatu. Bertako produktuan kontsumitzean tokiko baserri-paisaiak mantentzen lagunduko da, besteak beste.
- Baserri-paisaietara bisitari moduan gerturatzean **errespetua** eta **begirunea** izan. Izan ere, ibilbide bakoitzaren albo bietako soro, zelai eta basoak bertan bizi den familia baten etxearen ataria edo ezkaratza dira. Ondorioz, bertan ez genuke egin behar edozein etxebizitzaren atarian egingo ez genukeen ezer.
- Baserri-paisaietako bide eta lursail batzuk publikoak dira, eta beste batzuk pribatuak, aldiz. Mendia kartekez betetzeak zentzurik ez duenez, maiz zaila da bisitariarentzat publikoa eta pribatuaren arteko muga non dagoen bereiztea. Horregatik, **guztion artean zaindu beharreko tokian** gaudela gogoan izango da, bidean topatutako guztia zegoen moduan utziz. Inolako jarduerarik antolatu baino lehen, noski, bururatutako tokiaren jabetzaren eta bertako erabileren araudiaren inguruan informazioa lortuko da, udaletxera joz.
- Baserri-paisaien **balio nabarmenetako bat** bertako **bakeak, isiltasunak** eta **lasaitasunak** sortzen dute. Bisitari bezala paisaia horiek zeharkatzean gogoan izan behar da ez garelako bertara gerturatzen garen bakarrak, eta bisitari guztien eragina batuta ere emaitza baketsua izan dadin lagundu behar dela. Bestetik, kontuan izan behar da ibilbidearen ondoan dagoen baserriaren paretik agian behin bakarrik igaroko garelako gu, baina bertan bizi den familiak segurutzat dozenaka pertsona ikusiko dituela bertatik igarotzen egunero, eta familia horrek ere egun atsegin eta baketsua igaro dezan lagundu behar du norberak.
- Baserri-paisaien balioak mantentzeko eta berreskuratzeko martxan jarritako **ekimenean** zuzenean **parte hartu**, horretarako irekiko diren bideak baliatuz. Zuzeneko partaidetzak sortuko du **ikaskuntza** eta ezagutzarik **esanguratsuenak**. Bestetik, norberaren eskuekin eraikitakoak emandako pozaren parekorik ez dago.

8. ERREFERENTZIEN ZERRENDA

Agirre Iraeta, E. (2005). *6 ibilbide basoan Gipuzkoan. 6 paseos por el bosque en Gipuzkoa*. Donostia: Fundación Kutxa.

Arraztalo Elkartea. (2012). Okobi Baratzak Traktorea. *GoteoEuskadi*. Berreskuratua 2013(e)ko otsailakaren 20a, -(e)tik <http://euskadi.goteo.org/project/traktorea>

Askasibar Bereziartua, M. (1999). La evolución y la idealización del paisaje vasco. In E. Ayerbe Echebarria (Arg.), *Geografía simbólica. Cultura de los espacios* (or. 8–17). Lasarte: Etor-Ostoa. Berreskuratua -(e)tik <http://www.etorkultura.com/capitulos/1-EE-T01c1.pdf>

Audiolab. (2005). Euskal Herriko Soinu Mapa. *SOINUMAPA.NET*. Berreskuratua 2013(e)ko martxoakaren 7a, -(e)tik <http://www.soinumapa.net/>

Audiolab, Soinumapa.net, & Arteleku. (d. g.). HOTS! Paisai Soinu Irratia. Berreskuratua 2013(e)ko martxoakaren 7a, -(e)tik <http://www.hots-radio.info/>

AUZOPOLIS Denbora Bankua. (d. g.). Berreskuratua 2012(e)ko urriakaren 22a, -(e)tik <http://www.auzopolis.net/eus/index.htm>

Bancos de Tiempo - Trueque Online - Trueques por Internet. (d. g.). Berreskuratua 2012(e)ko uztailakaren 25a, -(e)tik <http://www.depersonaapersona.es/>

Basquetour. (2011). Euskadi. Eusko Jaurlaritza.

Basquetour. (2012a). Gastronomía & enoturismoa. Eusko Jaurlaritza.

Basquetour. (2012b). Hiri ihesaldiak. Eusko Jaurlaritza.

Basquetour. (2012c). Natura aktiboa. Eusko Jaurlaritza.

Beasaingo Udala. (d. g.). Berreskuratua 2012(e)ko urriakaren 12a, -(e)tik <http://www.beasain.org/eu/html/9/96.shtml>

Bell, S. (1991). *Community woodland design guidelines*. London: HMSO Books.

Cortina, A., & Queralt, A. (2007). *Convenio Europeo del Paisaje : textos y comentarios*. Madrid: Ministerio de Medio Ambiente.

Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca. (2005). Distribución especies forestales ámbitos administrativos. Berreskuratua 2012(e)ko urriakaren 24a, -(e)tik http://www.nasdap.net/bancodatos/estadistica.asp?rec=0127_0600000000_C

Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca. (2009, azaroak 17). PTP Beasain-Zumarraga (Goierri). Berreskuratua 2012(e)ko urriakaren 25a, -(e)tik http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-565/es/contenidos/informacion/ptp_goierri_aprob_definitiva/es_goierri/indice_es.html

El refugio del burrito. (d. g.). El refugio del burrito. Berreskuratua -(e)tik <http://www.elrefugiodelburrito.com/about>

Eptisa Cinsa. (2010). Gehigarria. Eskualde Egituren ingurumen-azterketa. In *EAEko Bigarren Errepide Planaren berrikuspena Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazio Bateratuaren azterketa*. Berreskuratua -(e)tik https://www6.euskadi.net/r41-430/eu/contenidos/informacion/segundo_plan_gral_carreteras/eu_pgc2/adjuntos/apendice-eu.pdf

Euskalmet. (2005, otsailak 25). Klimaren araberako lurraldeen sailkapena. Berreskuratua 2012(e)ko urriakaren 23a, -(e)tik http://www.euskalmet.euskadi.net/s07-5921/es/contenidos/informacion/cla_clasificacion/eu_7264/eu_clasificacion.html

Eusko Jaurlaritza. (2008, azaroak 11). Inventario forestal 2005. Berreskuratua 2013(e)ko urtarrilakaren 31a, -(e)tik http://www.nasdap.ejgv.euskadi.net/r50-15135/es/contenidos/estadistica/inven_fores_bd_tablas/es_dapa/inven_fores_bd_tablas.html

Eusko Jaurlaritza. (2011a). GeoEuskadi. Euskadiko Datu Espazialen Azpiegitura - DEA. *GeoEuskadi*. Berreskuratua 2013(e)ko urtarrilakaren 15a, -(e)tik <http://www.geo.euskadi.net/s69-15375/eu>

Eusko Jaurlaritza (Arg.). (2011b). Iparreko Donejakue bideak. Eusko Jaurlaritza, Kantabriako Gobernua, Asturias Printzerriko Gobernua, Galiziako Xunta, Nafarroako Gobernua, Errioxako Gobernua.

Eusko Jaurlaritza (Arg.). (d. g.). Turismo irisgarria. Euskadin, oporrak guzti-guztientzat dira. Eusko Jaurlaritza.

eustat. (2010). Población de 16 y más años ocupada de la C.A. de Euskadi por ámbitos territoriales según sectores económicos. Berreskuratua 2012(e)ko urriakaren 24a, -(e)tik http://www.eustat.es/elementos/ele0006400/ti_Poblacion_de_16_y_mas_a%C3%B1os_ocupada_de_la_CA_de_Euskadi_por_ambitos_territoriales_segun_sectores_economicos_1-1-2010/tbl0006438_c.html#axzz2ACQoz5YX

eustat. (2011a). Estructura general y orgánica, y calificación del suelo de la C.A. del Euskadi por municipio. Berreskuratua 2012(e)ko urriakaren 23a, -(e)tik http://www.eustat.es/elementos/ele0005400/ti_Estructura_general_y_organica_y_calificac

ion_del_suelo_de_la_CA_del_Euskadi_por_municipio_Superficie_en_Ha_2011/tbl0005454_c.html#axzz2A1oJ8LS0

eustat. (2011b). Población por ámbitos territoriales. 1986-2011. Berreskuratua 2012(e)ko urriakaren 24a, -(e)tik http://www.eustat.es/elementos/ele0004400/ti_Poblacion_por_ambitos_territoriales_1986-2011/tbl0004435_c.html#axzz2A1oJ8LS0

Ezquiaga Arquitectura Sociedad y Territorio S.L. (2002). *Durangoko eskualde egituraren lurraldearekiko zati-egitama*.

Forestry Commission. (1989). *Forest landscape design guidelines*. Edinburgh: Forestry Commission.

Gipuzkoako eskualdeak. (d. g.). Berreskuratua 2012(e)ko urriakaren 8a, -(e)tik <http://www.ingeba.org/gipuzkoa/comarc/comeusk/marcomeu.htm>

Gipuzkoako Foru Aldundia. (d. g.). Ardixarra Etxea - Erdi Aroko Interpretazio Zentroa. *Gipuzkoako Museoa*. Berreskuratua 2012(e)ko urriakaren 12a, -(e)tik <http://www.gipuzkoakomuseoak.net/museos/museo.php?id=eu&Nmuseo=1261654998>

Goimen. (2002). *Goierriarrak, landa garapenaren aurrean*. Berreskuratua -(e)tik <https://www.google.es/search?q=goierriarrak&ie=utf-8&oe=utf-8&aq=t&rls=org.mozilla:es-AR:official&client=firefox-a>

Gómez Piñeiro, F. J., Sola Bueno, A., Seguro, Lázaro, C., Eguizabal, L., Lozano, P., Sáez García, J. A., ... Altuna, I. (1999). Guía de espacios de interés lúdico-naturalístico de Gipuzkoa. *Lurralde: investigación y espacio*, 22, 3–222.

Groundspeak, I. (d. g.). Geocaching - The Official Global GPS Cache Hunt Site. *Geocaching - The Official Global GPS Cache Hunt Site*. Berreskuratua 2013(e)ko martxoaren 7a, -(e)tik <http://www.geocaching.com/>

Kultur Saila. (2011, uztailak 18). Gipuzkoa. Berreskuratua 2012(e)ko uztailaren 25a, -(e)tik http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/eu/contenidos/termino/_c02449/eu_g_1951/g1951.html

LKS Ingeniería S. Coop. (2012). Catálogo de Paisaje del Área Funcional de Zarautz-Azpeitia-ko Eremu Funtzionalaren Paisaiaren Katalogoa. Eusko Jaurlaritzaren.

Los pastores suizos se depilan de cara al verano. (d. g.). *Turistario*. Berreskuratua 2013(e)ko otsailaren 20a, -(e)tik <http://blogs.elpais.com/turistario/2012/04/suiza-campa%C3%B1a-verano.html>

Lucas, O. W. R. (1991). *The design of forest landscapes*. Oxford ; New York: Oxford University Press.

M. Imaz. (2012). Paseos para conocer algunos paisajes mineros de Goierri. *diariovasco.com. Diario Vasco*. Berreskuratua 2012(e)ko urriakaren 12a, -(e)tik <http://www.diariovasco.com/v/20120816/al-dia-local/paseos-para-conocer-unos-20120816.html>

MacFarlane, R., Haggett, C., Fuller, D., Dunsford, H., & Carlisle, B. (2004). *Tranquility mapping: developing a robust methodology for planning support. Report to the Campaign to Protect Rural England, Countryside Agency, North East Assembly, Northumberland Strategic Partnership, Northumberland National Park Authority and Durham County Council, Centre for Environmental & Spatial Analysis, Northumbria University* (or. 191).

Observatorio del Paisaje de Catalunya. (2013). Cartas del paisaje. *Observatori del Paisatge*. Berreskuratua 2013(e)ko martxoaren 7a, -(e)tik <http://www.catpaisatge.net/esp/cartes.php>

Paisaia SL. (2006). *Propuesta de ordenación del paisaje en el ámbito del Parque de Lau Haizeta en el término municipal de Errenteria*. Errenteriako Udala.

Paisaia SL, & 4ki Arkitektura. (2010). Landa-eremu estrategikoetan nekazaritza ustiapenek duten integrazio paisajistikoaren egokitzapena. Tolosaldeako azterketa pilotua. Tolomendi, Landa Garapen Elkarte.

Santana, A., & Otero, X. (1993). *Baserría*. [San Sebastián, Spain]: Diputación Foral de Gipuzkoa, Departamento de Cultura y Turismo. Berreskuratua -(e)tik <http://bertan.gipuzkoakultura.net/bertan4/pdf/bertan4.pdf>

Se estrena documental financiado por la red sobre la historia un horno tradicional, Telediario - RTVE.es A la Carta. (d. g.). Berreskuratua 2012(e)ko urriakaren 2a, -(e)tik <http://www.rtve.es/alacarta/videos/telediario/se-estrena-documental-financiado-red-sobre-historia-horno-tradicional/1442773/>

Spiegler, A., & Dower, M. (2006). ECOVAST. Landscape Identification. A guide to good practice. ECOVAST. Berreskuratua -(e)tik http://www.ecovast.org/papers/good_guid_corr_e.pdf

Swanwick, C., & Land Use Consultants. (2002). *Landscape character assessment. Guidance for England and Scotland*. The Countryside Agency, Scottish Natural Heritage.

The European Landscape Convention. (d. g.). Berreskuratua 2012(e)ko urriakaren 2a, -(e)tik http://www.coe.int/t/dg4/cultureheritage/heritage/landscape/default_en.asp

Tik-Tak Truk Tolosako Denbora Bankua | Facebook. (d. g.). Berreskuratua 2012(e)ko urriakaren 22a, -(e)tik <http://www.facebook.com/TikTakTrukTolosakoDenboraBankua>

Tolosaldea Garatzen. (d. g.). Tolosako Babarrunaren bidaia. *Descubre Tolosaldea Ezagutu*. Berreskuratua 2013(e)ko apirilakaren 15a, -(e)tik <http://www.tolosaldea.net/eu/sabores-olores/experiencias-gastronomicas/viaje-alubia-tolosa>

Txelu Angoitia. (d. g.). *Urkiola Durangaldea Milkeldi GR 229*. (Arin-Arin, Itzul., Urkiola durangaldea pratzuergo turismoa, Arg.).

Udalplan 2011. (d. g.). Berreskuratua 2012(e)ko uztailakaren 27a, -(e)tik <http://www.geo.euskadi.net/udalplan/visor/viewer.htm>

Verkami | Crowdfunding para amantes de la creación. (d. g.). Berreskuratua 2012(e)ko uztailakaren 25a, -(e)tik <http://www.verkami.com/>

Xavier Basora Roca, & Xavier Sabaté i Rotés. (2006). Custodia del territorio en la practica. Berreskuratua -(e)tik <http://www.custodia-territorio.es/>